

Julene Azpeitia Lehiaketa 1999 urtea



Ipuinak



Bertsoak



AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
Nerea Urien Azpitarte, Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko Presidentea	

IPUINAK

ORDU BATZUETATIK DIRUZ JOSIA	4
Natalia Campos Dominguez	
GIZON BATEN AMETSA IZANA NAIZ	8
Iasmina Gorroño Elorriaga	
ZIORTZA TXERRIA	12
Gontzal Alkorta Garai	
IRAKURKETA MIRESGARRIA	15
Itziar Salaberria Larrauri	
ITSASERTZEKO LAGUNA	20
Paule Sanchez Arieta-Araunabeña	
BETIEREKOTASUNEZ	26
Fernando Morillo Grande	
MAKALETIK MADARIKATURAKO TRANTSIZIOA	32
Aintzane Agirrebeña Ubera	

BERTSO PAPERAK

BERTSOAK	41
Iñigo Igartza Olabarri	
GAU BATEN IKUSITAKOA	43
Txomin Magdalena Arriaga	
GURE NATURA	45
Erlantz Kortabitarte Agirrezabal	

HITZAURREA

Duela 16 urte, 1983an, Durangoko Udaleko Kultura Batzordeak umeentzako Ipuin Lehiaketa bat antolatzea pentsatu zuen. Joan Antonio Aromak, batzordekidea garai hartan, Julene Azpeitia izena proposatu zuen lehiaketarako, eta Batzordeak aho batez onartu. Izan ere, Julene Durangon bizi izan zen hainbat urtetan eta, umeak zituenez etorkizunerako esperantza, berauentzat idatzi zituen hainbat liburu: *Amandriaren altzoan*, *Irakurri matte* eta *Zuentzat*.

1983tik 1989ra Durangoko Udalak Julene Azpeitia Lehiaketa antolatzen jarraitu zuen, baina azken hamarkadan Berbaro elkarteak hartu zuen bere gain antolaketaren ardura. 1999 urtean, Durangoko Udalak eta Berbarok hala adostuta, lehiaketaren antolakuntza Udalaren eskuetara itzuli da. Guztiaren emaitza liburuxka hau duzue: *Julene Azpeitia Lehiaketa. Ipuin eta Bertso Paperak*.

Hasierako helburua ahaztu barik, hau da, lehiaketa Durangoko umei zuzentzea, badago atal berri bat: Euskal Herri osoko 17 urtetik gorakoek ere hartu dezakete parte ipuin zein bertso paperen alorrean. Beraz, liburuxka honetan, zazpi ipuin eta hiru bertso sorta izango dituzue irakurgarri. Testuen osagarri modura Imanol Larrinaga durangarraren marrazki paregabeak aurkituko dituzue.

Besterik gabe, azaleko irudiak iradokitzen duenari jarraitu eta murgildu zaitezte barruko orrialdeetan. Gogoan izan Erronkariko esaera zaharrak dioena: “*Libro zerratruk ez du ñori erakustan*”.

Durangon, 1999ko azaroan.

Nerea Urien Azpitarte
Euskara, Kultura eta Hezkuntza
Batzordeko Presidente

Ipuinak

Natalia Campo Dominguez

Irabazlea 11 –12 urteko sailean

Landako Herri Eskola

ORDU BATZUETATIK DIRUZ JOSIA

- Zerbait behar duzu andereno?

- Bai, ekarridazu limonada bat mesedez.

- Oraintxe bertan, zenbat izotz botako dizkizut?

- Birekin nahikoa dut, ah! Eta ez ahaztu bi edo hiru "pajita" ekartzea azkarrago amaitzeko.

- Bai, Larraitz andereno.

Limonada edan, bikinia jantzi eta ura bero edo hotza egongo zen pentsatu barik, igerilekura egin zuen salto.

Ura ez zegoen ez bero ez hotz, baina oso ondo egoten zen hantxe barruan.

Larraitz ez zen denbora askorik igeriketan ibili, presaka baitzebilen, festa batera joan behar zuelako.

Azkar batean, bere logela handira sartu eta armairuan zeukan traje politena jantzi zuen.

Trajea more kolorekoa zen eta bi lore zeuzkan, tirante bakoitzean bana. Kolore berdineko zapatak ere jantzi zituen. Geroxeago limusin batek bere ile-apaindegi pribatura eraman zuen, eta han, bere ile hori eta polita ondo orraztu eta gero, atzazalak margotu zizkieten, more kolorekoak ere.

Hau guztia amaitu ondoren, limusinean igo eta aireporturantz abiatu zen. Han, hegazkina hartu eta Parisera joan zen, festa "Eiffel" dorreko jatetxean zelako. Oso gustura egon zen Larraitz festan, eta ekitaldiari amaiera emateko lehiaketa bat antolatu zuten. Lehiaketa hau, "festako politena" deitzen zen, eta nahi zuenak hartu zezakeen parte. Larraitzek, bi bider pentsatu barik, parte hartu zuen. Aurkezleak berriz, honela hitz egin zuen saria ematerakoan:

- Lehiaketa honetako epaimahaiak erabakia hartu du: saria Larraitz anderenoari ematea. Zorionak!!!

- Eskerrik asko guztioi! –esan zuen Larraitzek, aurkezleak 500.000 pezeta eta urrezko iruditxo bat ematen zion bitartean.

Baina, egia esan, hori Larraitzentzako ez zen ezer berak zeukanarekin konparatuz. Larraitz mantsio batean bizi zen. Etxetzar horretan bizkartzaina, etxezaina, neskamea eta

zerbitzari asko zegoen Larraitz zaintzeko eta laguntzeko, gurasoak Ingalaterran zeuden bitartean.

Ordenagailu eta telebisiio pila bat zeukan etxean zehar, hamar limusin (telebisiio, bideo, ordenagailu, kasetta eta guzti)... Mantsioaren lorategian 200 m²-tako igerileku bat jauzi-ohol eta txirristekin; etxe barruan 15 m²-tako zazpi bainugela jakuzzy eta guzti, eta Larraitzen logela 100 m² zituen. Zoragarria, ezta?

Larraitzek berriz hegazkina hartu eta etxera bueltatu zen oso nekaturik. Horregatik, dutxa bat hartu, pijama jantzi, ohean sartu eta atoan lo geratu zen.

Hurrengo goizean, bere logelan gosaltzen zegoen bitartean, halako soinu bat entzun zuen: TIRRIIIIIIN!!!

- Zer ote da hori? –pentsatu zuen Larraitzek soinu hura birritan entzun ondoren.

- Telefonoa balitz, jadanik, nire neskameren batek hartuko zuen. Eta atea bada? – galdetu zion bere buruari- ez eta ez, hala izango balitz ere, jadanik nire zerbitzariren batek zabalduko zuen...

Larraitzek pentsatzen eta pentsatzen jarraitzen zuen, soinu hura aurrera zihoan bitartean: TIRRIIIIN!!! TIRRIIIIN!!!

Baina, bat batean, ahots bat entzun zuen:

- Larraitz, esnatu zaitez maitea.

Larraitzek begiak zabaldu eta ... nor ote zen hori? Larraitzen ondoan emakume dotore bat zegoen jesarrita. Emakume hori bere ama zen, eta logelatik arineketan zebilen neskatoa bere ahizpa txikia zen. Eta 100 m²-tako logela? Eta neskameak? Non zegoen gure Larraitz gizagaixoa? Guztia desagertu egin zen!!!

- Baina, zer da hau? Non nago? Nortzuk zarete? –deiadar egin zuen Larraitzek-.

Egia esan, goizeko zortziak eta bost minutu ziren eta Larraitzek eskolara joan behar zuen. Etxean zegoen! Den dena bere imajinazioan gertatu zen, lotan zegoen bitartean. Berak ez zeukan halako mantsiorik ez antzerako ezer. Berak zeukana hori baino inportanteagoa zen: Imajinazio handia. Oso amets polita izan zen, amets zoragarri bat!!!

Iasmina Gorroño Larrinaga

Irabazlea 13 – 14 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

GIZON BATEN AMETSA IZANA NAIZ

Gaur, ehun urte bete ditudanean, bota egingo nautela jakin dut. Atsekabeturik eta triste nago, lur jota. Ez nau inork maite.

Gaur, sitsez eta sasiz janda egon arren, luzaroan gizon baten ametsa izana naiz: Juanjo Zugadirena alegia.

Juanjo, Errota baserriko 9. semea, 18 urte zituela, Argentinara sukaldari joan zen bere lehengusu baten jatetxera.

Egunak joan, egunak etorri, Juanjoren bazkari-afariak gero eta ospetsuagoak egin ziren eta jatetxe hark makina bat janari eman zuen. Horregatik, gure sukaldariak bere jatetxe propioa irekitzea erabaki zuen, Buenos Airesen bertan. Negozioa primeran zihoakionez, hotelen esparruan ere sartu zen bere lehengusua kidea zuelarik. 55 udaberri eta ile urdin mordoxkarekin aldean, bere jaioterrira itzultzea erabaki zuen; ezkondu, seme alabak izan eta bitzta osoan amestutako etxea eraikitzeko: NI NEU.

Ez ninduen edonola egin. Sasoi hartako arkitektozik onenetariko batek diseinatu ninduen eta altzairu ederrenez jantzi ninduten. Handik gutxira, Juanjo, nire lorategian ezkondu zen Etxebarri baserriko Maritxu Iriarte gazte mardularekin eta geroago, euren seme-alabak bertan hazten ikusi nituen urteetan zehar.

Daniel gazteenak, zirugia izan zuen txikitatik gustuko. Sukaldean oilasko bat hiltzen zen bakoitzean, han zegoen laguntzaile.

Begona, aitaren urratsak jarraituz, negozioen munduan sartu zen, lehenik ostalaritzan eta beranduago, etxegintzan.

Pedro Marik, semerik zaharrenak ere, aitaren pausoei jarraituz sukaldaritza zuen ogibide; baina, Juanjorena berezkoa bazen, Pedro Marirena ostera, aitarengandik ikasitakoaz gain hainbat ikastarotan ikasitakoaren emaitza zen. Horregatik, Parisa joan zen bertako ardoak eta sukaldaritza ospetsua ezagutzera.

Etxeko umeak gazteak ziren bitartean, nire geletan bizitasuna eta berbaroa ziren nagusi. Daniel, Begona eta Pedro Mari kanpora ikastera joan zirenean ordea, isiltasuna nagusitu zen eta aldi berean Juanjo gaixotu egin zen, minbiziaz.

Nire egileak hainbat ordu igarotzen zituen nire lorategian zegoen aterpeko besaulkian eserita. Udaberriko egun epel eta eguzkitsu batean, 80 urterekin, joan egin zitzaigun.

Bat batean, Maritxurentzat handiegia bilakatu nintzen; seme-alabak etxetik kanpo, senarra hilda, zer egingo zuen ba! Ulertzekoa zen hartu zuen jarrera: Maritxuk

gero eta ordu gehiago pasatzen zituen etxetik kanpo eta nik ezagunagoak nituen hezetasunaren usaina eta hautsaren laguntza. Ni ere alferrik galtzen hasia nintzen!

Handik pare bat urtetara beste lagun bat izan genuen etxean: Peter Collins amerikarra. Etxekoandrearen laguna.

Donostiako zaldi lasterketetan ezagutu ziren, biei apustua gustatzen baitzitzaien.

Maritxu alargundu zenean, apustuak egitera zaletu zen: bingoetara, loteriara, kasinoetara, baita ere zaldi lasterketetara ere.

Peter gizon lodikotea eta garaia zen, dirua barra-barra gastatzen zuen horietakoa. Aberatsa ematen zuen.

Urteak pasatu ziren, eta Pedro Marik gustura jarraitzen zuen Parisen bizitzen, Interpolen lan egiten Sarah Dupon zuen neskaekin.

Sarah oraingoan, duela lau urte New York-eko Metropolitan museoan lapurtutako Gertrude Stein Picassoren margo famatuaren desagerketa aztertzen zebilen. Kasua zaharra zen eta Interpolek ondorengo pista hauek zituen:

1. Lapurra gizona zen.
2. Lodikotea eta garaia zen.
3. Ameriketatik ihes egindakoa zen.
4. Erretratu robota bazuten.

Iluntzeko zazpiak ziren Parisen, Pedro Mari afaltzeko arraina prestatzen zegoen eta Sarah, Picassoren koadroaren lapurketaren fitxategiak birpasatzen zegoen erretratu robota alboan zuela. Handik ordu laurdenera, Pedro Mari joan zitzaionean afaria prest zegoela esatera, erretratu robota ikusi zuenean, ezaguna egin zitzaion aurpegi hura. Bere amaren maitalearen izugarrizko antza zuen gizon hark, eta, txantxetan Sarah-ri komentatu zion. Sarah-k ez zuen uste txorakeria hutsa zenik eta eskuartean zituen paper eta boligrafoz Pedro Marik esandakoaz informe bat osatu zuen. Interpolek zituen datuak eta Pedro Marik emandakoak ez zetozen bat, deskribapen fisikoan izan ezik

Hau ikusitakoan, bikoteak aste beterako amarenera joatea erabaki zuen. Han etorri ziren Sarah eta Pedro Mari aspaldiko partez oporrak pasatzera zetozela esanez. Sarah-k denbora nahikoa izan zuen Peter Collins ez zela Peter Collins ziurtatzeko, John Martin baizik. Metropolitan museoan lapurtutako artelanaren lapurra.

Hurrengo egunean, Peter Collins ez zenak zerbait arraroa sumatu zuen bere etxe aurrean jende ezezaguna ikusteaz batera.

Arineketan, eskailerak igo zituen eta ihes egiteko nahian, bere logelako ezkerreko leihotik salto egin zuen, baina zoritxarrez, lorategiko harri koxkor baten kontra kokoteko bat hartuz, bertan siku geratu zen, hilda.

Maritxuk orduan, bertan behera utzi ninduen, bakarrik. ONG batekin Afrikako erdialdera joan zen bizitza berri baten bila.

Gaur bere ilobek saldu egingo naute, zentro komertzial handi bat egiteko.

Triste nago, inork ere ez nau maite, baina, egun baten gizon baten ametsa izan nintzen.

Gontzal Alkorta Garai

Akzesita 13 –14 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

ZIORTZA TXERRIA

Bazen behin Zerriporki izena zuen herria. Familia hauek osatzen zuten: Ziortza, Esotzi, Txirrimirri eta Kaskamirri.

Ziortza oso triste zegoen ez zuelako lurra ezagutzen eta Txirrimirri galdetu zion nolakoa zen. Arratsaldean bere familiari esan zion eta ondo hartu zuten gurasoek.

Bi astetara planetara iritsi zen eta txizepozo batera jauzi zen kotxez.

- Non nago ni? –esan zuen txerritxoak.

Han lau txerritxo zeuden, eta esan zioten txizepozo batean zegoela, baina berak ez zekien zer zen.

Hortik bi astetara Miamira iritsi zen. Bertan mutil bat ezagutu zuen, Pako zuena izena. Pako oso atsegina zen, batez ere Ziortzarekin.

Ziortza handik bost egunera Pariseko txerri dantzaldira joan zen, eta dantzan hasi zen Mimiko txerriarekin. Bera maitemindu egin zen eta honek esan zion:

- Nahi ahal duzu nirekin ezkondu?

- Gog, gog, bai noski.

Mimikok etxera eraman zuen Ziortza, bere familia ezagutzera; baina Ziortzari ez zitzaion gustatu.

- Banoa hemendik! –esan zuen garrasika.

- Baina, Ziortza, ez nauzu bakarri utziko, ezta?

- Bai, utziko zaitut.

- Ez mesedez

- Banoa hemendik.

Ziortza, isil-isilik kotxea hartu, eta, Mongoliara joan zen. Hantxe San Martin eguna zen eta jende guztia Ziortzaren atzetik joan zen bera jateko. Baina animalia honek garraioa hartu eta Errusiako gaztelu batetara ailegatu zen.

- Nolako gaztelu polita! –esan zuen ederrarena eginez.

Bat batean gazteluko atea ireki eta Jainkoa agertu zen.

- Pasa zaitetz txerritxo! –esan zuen Jainkoak alai.

- Ongi da, banoa –esan zuen ilusioz.

Ziortza gazteluko logelarik politenera joan zen. Bitartean Jainkoa pentsakor zebilen bere logelan ez baitzekien zer egin animalia horrekin.

- Badakit, txerria harategira eramango dut.

- Zer esan duzu?

- Ezer ez.

Txerriak hortik aldegin zuen goiz batean eta bere lurraldera itzuli zen.

- Ama, hemen nago.

- Badakit hemen zaudela jolasean –esan zuen barrezka.

Txerritxoak jakin izan zuen amets bat zela eta pozik jarri zen.

- Esotzi, mesedez, ez joan lurra ezagutzera, agian suerte txarra emango dizu –
esan zuen penaz.

Hortik aurrera familia pozik eta alai bizi izan zen.

Itziar Salaberria Larrauri

Irabazlea 15 – 16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

IRAKURKETA MIRESGARRIA

1988ko uztailaren hasiera zen. Bero izugarria zegoen eta egun askotako lehortea. Jendea oporretarako ilusioz zegoen. Jadanik, asko Kanariar irletara, Balear irletara, Saloura... joana zen.

Jendea aurrera eta atzera zebilen bitartean, Mikel etxean zegoen, zer egin ez zekiela. Mikel, 16 urteko mutil gazte liraina zen. Begi urdin, ile hori eta ezpain sendoduna. Gainera, gorputz bikaina zuen. Neska ugari zituen atzetik, baina Mikelek ez zuen neskekin aritzeko nahirik.

Mikel bere gurasoekin bizi zen. Seme bakarra zen eta amaren aldeko aitonaren iloba kuttuna gainera. Bere aitona Andoni zuen izena. Honek 78 urte zituen, nahiz eta 60 bat eman. Gizon prestua zen. Hau ere, oso ederra izandakoa zen gaztetan, eta oraindik ere, zuen adina izanda, bere xarma mantentzen zuen.

Mikel oso bakarrik sentitzen zen garai hartan, Bilbotik Bartzelonara bizitzera joatean lagun gabe aurkitzen baitzen, lagun bakarra bere aitona zelarik.

Andoni urte askotan bizi izan zen Bartzelonan bere lanak bultzaturik, eta Mikelen aita ere aitonaren moduan lana zela eta hiri hartara joateko beharrea aurkitu zen.

Uztailaren 6a heldu zen eta Mikel bere logelan zegoen zeharo aspertua, bere aitona logelan sartu zenean:

- Epa Mikel.
- Kaixo aitona... - esan zuen Mikelek ahots leunez.
- Hori duk aurpegia! Asperturik al hago?
- Bai, guztiz! Zer egin dezaket aitona?
- Begira, nik hire adina nuenean, askotan sentitzen ninduan zer egin ez nekiela.

Ba al dakik zer egiten nuen horrelako kasuetan?

- Zer aitona? Esan mesedez!
- Ba, abenturazko liburu bat hartu, eta horren kontakizunean kontzentratuz pasatzen nian denbora.

- Jo aitona! Hori bai aspergarria!

- Aspergarria? Begira, nik liburu bat utziko diat, baina ez pentsa edonolako liburua izango denik; liburu "magikoa" duk.

- Hala, hala aitona! Mesedez! Jadanik ez naiz ume bat, 17 urte beteko ditut aurten. Orain dela 10 urte beno, baina orain ez ditut txorakeria horiek sinesten -esan zuen Mikelek gaitzetsita.

- Ez dituk txorakeriak! -erantzun zion aitona guztiz konbentzituta. Begira, liburu hori irakurri ondoren irakurtzeko grina pizten bazaik, egia esan dudala esan nahi dik, eta irakurtzeak oraindik amorrua sortarazten badik, hik nahi dituan hiru gauza eska iezazkidak.

- Nik nahi ditudanak? - Mikelek pozik.

- Bai, baina liburu osoa irakurri behar duk! Ulertu al duk?

- Bai aitona! Nahi duzunean hasiko naiz

Arratsalde hartan aitona liburuarekin agertu zen. Oso zaharkitua zegoen, eta orriek kolore horixka zuten. Mikelek liburua hartu eta bere hiru nahietan pentsatuz irakurtzen hasi zen:

*Munduan bazegoen oihan bat mapetan
kokatu gabe zegoena. Oso oihan ederra eta
handia zen, eta mota guztietako animaliak
zeuden bertan. Egun batean...*

...eta lokartu egin zen. Bere gorputza leku berean aurkitzen zen arren, arima kontakizunean sartua zuen.

Poliki-poliki itzartu eta oihan baten barrenean zegoela ohartu zen. Harriduraren harriduraz, geldik geratu zen, zer egin ez zekiela, bere ondoan zuen zuhaitzaren adarretatik suge bat zetorkiola konturatu zen arte. Korrika hasi zen eta sugea bere atzetik zetorrela ikustean abiadura arindu zuen. Harrigarria zen suge hark zuen abiadura. Mikel oso azkarra izan arren, sugeak lehenago edo beranduago harrapatuko zuen, gero eta distantzia txikiagoa baitzegoen bien artean.

Sugeak Mikel harrapatu behar zuenean zuhaitzetatik tximino bat agertu, eta Mikel besoetan hartu ondoren, oihanaren beste alde batera eraman zuen, eta zuhaitz baten gainean utzi. Mikel bakarrik utzi zuen eta, agertu zen bezalaxe, zuhaitz artetik desagertu zen.

Mikelek amets gaizto batean zegoela pentsatu zuen, baina itzartzeko egin zituen ahalegin guztiak alferrikakoak izan ziren. Inpotentzia handia sentitzen zuen eta, aspaldiko partez, negarrez hasi zen.

Bere tristuran murgildurik zegoela beste tximino bat agertu zen. Ez zen edonolako tximua, bazuen berezitasun handi bat: hitz egiten zekien.

Mikelengana hurbildu eta hau esan zion:

- Kaixo mutiko. Utzi negar egiteari eta kontaidazu gertatzen zaizuna.
- Hitz egiten dakizu! -Mikelek harrituta.

- Bai, hala da. Badakit oso arraroa gertatuko zaizula, baina... beno, gero azalduko dizut zergatik dudan ezaugarri hau. Orain, azaldu iezadazu zer egiten duzun.

- Begira, aitonak liburu bat eman dit irakurtzeko grina pizt iezadan. Horrela liburua irakurtzen hasi naiz, eta lokartu. Itzartu naizenean oihanaren erdian aurkitu naiz eta suge bat agertu zait. Arineketan hasi eta ia sugeak harrapatu nauenean... zazt! Zu bezalako tximu bat etorri eta hona ekarri nau.

- Beno, beno... betikoa da.

- Zer esan nahi duzu betikoa dela esatean?

- Badakit sinesgaitza gertatuko zaizula baina, irakurtzen ari zaren liburu horren istorioaren barnean zaude.

- Istorioaren barruan? Begira, niri interesatzen zaidan bakarria etxera itzultzea da. Liburu horren barnean nagoela egia baldin bada... mesedez, nola itzul naiteke etxera?

- Egin beharrekoa oso erraza da baina aldi berean oso arriskutsua. Badakizu oihan guztietan daudela lehoiak, baina leku honetan badago bat tximinoak hil eta jaten dituen. Benetan etxera itzuli nahi baduzu, lehoi hura hil beharko duzu –azaldu zion tximuak.

- Eta hiltzen ez badut?

- Hemen geldituko zara betiko eta ni bezalako tximu hiztuna bihurtuko zara.

- Zuri ere gauza bera gertatu al zitzazun, ba?

- Bai, baina nik ez nuen lehoia hil.

Mikelek zeukan ausardi guztia batu eta lehoiaren aurkako eraso prestatzen hasi zen. Halako batean lehoia agertu eta borrokan hasi zen Mikelekin. Guda luze baten ondoren, Mikelek tximuak emandako lantza batekin hil zuen lehoia.

Tximu guztiak saltoka hasi ziren, eta Mikel heroi bihurtu zen. Tximua hurreratu eta zera esan zion:

- Oso adoretsua izan zara Mikel. Etxera bueltatu nahi baduzu, lo egin, eta itzartzean loak hartu zaituen tokian agertuko zara.

- Eskerrik asko denarengatik. Ez dakit zer egingo nukeen zu gabe –Mikelek, esker onez.

- Eskerrik asko zuri. Zugatik izan ez balitz lehoiaren beldurrez jarraitu beharko genukeen. Orain joan zaitez lasai –eta tximino guztiak aldendu ziren.

Mikelek tximuak agindutakoa egin eta berriz ere etxean agertu zen bere amaren ahotsa sentitu zuenean.

- Mikel! Ordua da mutil! Jadanik bazkaltzeko ordua da eta aitona ere gurekin dugu. Jantzi eta zatoz jatera!

Mikel korrika jaitsi zen eta aitonarengana zuzendu zen esanez:

- Aitona, irakurri dut liburua, eta arrazoa duzu, "magikoa" da! Baina... zergatik arriskatu duzu nire bizitza liburu horren barruan harrapatua izatera? –galdetu zuen serio.

- Ez huen arriskurik. Gertatutako guztia idatzita zegok, eta irakurlea beti onik ateratzen duk. Berrito ere irakurriz gero, gauza bera gertatuko zaik, eta ezagutu berri dituzuen izakiek ez haute ezagutuko –azaldu zuen-. Zer, piztu al zaik irakurtzeko gogoa?

- Bai aitona, batez ere liburu magikoak irakurtzeko gogoa.

- Pozten nauk. Orain goazak bazkaltzera, ama haserretu egingo zaiguk bestela.

Paule Sanchez Arieta-Araunabeña

Akzesita 15 – 16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

ITSASERTZEKO LAGUNA

Aspalditik ezagutzen dudan neska aparta da, eta ingurukoen konfidantza irabazia zeukan lehenengo egunetik.

Gelara etorri zen egun berean, bere begi urdinek gu sorgindu gintuzten. Bakoitzak bere burua aurkeztu zuen eta gero bera, zailtasun gabe agertu zen, egunero 30 pertsonen aurrean hitz egingo balu bezala.

Neska hark bere buruarekiko zuen konfidantza ikusita, berarengana hurbildu eta aurkezpen gehiago egin ordez, jendeak bere gauzak kontatzen zizkion betidanik ezagutuko balute bezala.

Bitartean, neure txokotik hura miresten nuen eta era berean goitik behera aztertzen. Bitxia zen, oso bitxia. Edertasun berezi bat zuen, ez zen telebistan agertzen ziren neska horien antzekoa, guztiz desberdina antzematen nuen. Bere aurpegiak iluntasuna desagertarazten duen eguzkia zirudien, bere eskuek uso zurien hego pareak, bere gorputza firin-faran dabilen haizearekin dantzan zegoen, oso pertsona alaia iruditu zitzaidan.

Etixeratzean, ezin nuen matematikako klasean eman genuena gogoratu, bere irudia agertzen zitzaidan edonon.

Han eta hemen ikusten nuen, beti ere jendeak inguratzen zuela. Irudi horrek barregura eta tristura sortarazten zizkidan. Barregura, kofesaleku batean sartua dagoen abade baten antza hartzen niolako eta tristura, bere barruko penak kontatzeko inor ez zuelako.

Hala eta guztiz ere, neskarengana hurbiltzeko adorerik ez nuen. Gainera, laguntza behar izanez gero eskatu egingo zuela iruditzen zitzaidan.

Ikasturtea aurrera zihoan eta jadanik udaberrian geunden.

Neska honek hilabeteetan zehar sekulako aldaketa eman zuen. Kolore biziz jantzen zen pertsona alai hura, kolore ilun eta hotzez jantzitako neska bilakatu zen.

Erabateko aldaketa hark zeharo harritu ninduen.

Nik pertsonak aztertzea gogoko dut eta bera ikustean autoestima lurretik zuela iruditu zitzaidan. Jendez inguratuta jarraitzen zuen, hala ere, ez zuen irribarrea galtzen. Halako batean, jendetza zabaldu eta nire aurrean ikusi nuen neska hura.

Sei hilabete zeramatzan nire gelan eta oraindik ez nuen berarekin hitz bat ere gurutzatu.

- Barkatu, zuk Jon duzu izena ezta?

- Bai, hala da. -ezin nuen sinestu, bera! Bera niri hitz egiten! Ezagutzen ninduen!

- Zurekin hitz egin behar dut. Gaur zazpietan kaian. -esan zidan.

“Ezinezkoa, ez dut berarekin sekula hitz egin eta ez naiz agertuko” pentsatu nuen.

Eguerdiko hamabiak ziren eta jadanik urduri nengoen.

Ordu batak; berdin.

Ordu bi eta erdietan; ezin egon.

Laurak; buruan mila burutazio bueltaka.

Seiak; ez noa... ez.

Zazpiak laurden gutxi; urduri nago, ez naiz heltzen.

Korrika nindoan eta zazpiak bost gutxitarako han, geratutako lekuan, nengoen.

Banku batean eseri eta nire urduritasunak bertatik pasatzen zen mutil bati zigarroa eskatzera behartu ninduen.

Zigarroa piztu eta hura erretzen nengoen bitartean, zertan ari naiz? Erretzen ni? Ez da etorriko, banao. Lasai, agertuko da,... Nire buruak momentu batetik bestera eztanda egin behar zuela iruditzen zitzaidan.

Minutu erdian sei aldiz begiratu nuen erlojua, zigarroa bukatu zitzaidan eta urduritasunagatik lur jotzera nindoan momentu berean neska agertu zen.

Soineko berde bat zeraman soinean eta ile beltza, haizearekin solasean, sorbalden gainean pausatzen zitzaion.

- Kaixo Jon!
- Kaixo! –erantzun nion ahots dardarti batez.
- Zatoz paseatzera!

Eskutik ebatu ninduen eserleku hartatik ipurdia jasoaraziz.

- Badakizu?
- Zer?
- Haitz hartan nengoen olatu batek itsasoaren sabelera eramango ninduen egunaren zai –esan zuen.

Nik ez nuen ezer ulertu.

Eserleku hotz batean geunden biok.

Bere begirada guztiz galdua zegoela iruditu zitzaidan, baina ez zen horrela. Begi urdinak eguzkira zuzenduta zituen, eguzkiaren edertasunak liluratua baitzuen.

Itsasoa bare zegoen eta, sarritan bezala, olatuek hondartzan zeuden are aleak ureztatzen zituzten noizbehinka. Urrunean, emazteak lehorrean utzitako marinelen itsasontzi bat zihoan.

Eguna benetan berezia zen.

Ilunabar ikusgarria zen. Hondartzako pasealekuan zeuden eserleku jarri berrietako batean eserita, ortzera begira, bakoitza bere munduan guztiz murgilduta geunden.

Denborak aurrera egin zuen eta nire lagunak esandako esaldi hura zebilkidan buruan tximeleta balitz bezala, ideia guztiak nahasten. Galdera ugari nituen, baina nola ausart nintekeen pertsona hura bere ametsetatik edonola esnatzen?

Ezin nuen gehiago jasan, jakin-minak tripak jaten zizkidan. Beraz, arnasa hartu eta erantzungo ninduen itxaropenarekin zera galdetu nion:

- Barkatu, baina, zer esan nahi zenidan esaldi hura aipatzean?

Ez zidan erantzun, ezta begiratu ere. Geldi-geldi zegoen, seguruenik, bere baitan nonbait galdua.

Ez dakit nola demontre, nire begiak ixten joango balira bezala sentitu nituen.

Lo nengoen ala ez?

Ez nekien ziur, ametsa hastera zihoan edo begiak zabaltzean laguna horizontera begira ikusiko ote nuen. Horregatik, begiak itxita uztea erabaki nuen. Urrunean ahots bat entzuten nuen baina, amets haietan gertatuko zena erakargarriagoa iruditu zitzaidan.

Laino artean bezala sentitzen nintzen eta bat batean kolpe siku bat sentitu nuen besoan.

Ez nion jaramonik egin dei hari, paradisuan sentitzen nintzen, kotoizko bola erraldoi haien artean.

Begiak zabaltzeko ordua iritsi zen. Han, nire ondoan, ez nuen inor ikusi.

- O! Ez!

Kartazal bat zegoen, honela esaten zuen:

Berezia zinela uste nuen.

Zurekin hitz egitean, barruan gordetako samin guztiak askatzea pentsatua neukan.

Ziur nago, zuk ere berezitzat zenuela zeure burua. Hala ere, oso erraza da norberaren burua engainatzea. Hala eta guztiz ere, ingurukoak denbora luzez engainatuta mantentzea oso zaila da.

Ezin nuen sinestu irakurtzen ari nintzena. Haserreturik, etxera joan nintzen eta, gurasoak agurtu gabe, izendegian neska inozo haren telefonoa bilatzeari ekin nion.

Hantxe zegoen, neurearen azpian.

Deitu eta bere amari alaba etxean ote zegoen galdetu nion.

- Kaixo, Jon naiz. Alaba etxean al da?
- Bai, orain jarriko da.

Une hori gogoratzen dudan unerik luzeena izan zen.

- Kaixo, zer nahi duzu? –galdetu zidan ahots zakarrez.
- Ba... begira. Kartazalean idatzitakoaz nire iritzia ematearren deitzen dizut.
- Eta?
- Arrazoi osoa duzu. Berezia sentitzen nintzen, baina, mundu honetako guztiak artalde berekoak gara nahiz eta ardi beltzak ere banaka ageri.
- Zer esan nahi didazu horrekin? Nik berezitzat dudala neure burua?
- Bai, halaxe da. Baina, ez pentsa horrela denik. Gaur guztiok oso antzekoak garela azaldu didazu eta!
- Baina... –bere ahotsa intentsitatea galtzen zihoan. Edozein unetan negar egiten hasiko zela uste nuen. Beraz, lasaitzeko erregutu nion eta biharamunean toki berean hitzordua geneukala ere azpimarratu nion.

Gaua oso luze egin zitzaidan.

Biharamunean jaiki eta ordua heldu arte, zer eta nola esan pentsatzen aritu nintzen.

Neska kaian zegoen ni heldu orduko.

- Kaixo Jon! –agurtu ninduen ahots lotsatiz.
- Kaixo!
- Barkatu atzokoa. Ez nekien zer egin lo zeundela konturatu nintzenean.
- Ez du axola. Ni ere telefonoz pasatu egin nintzen.
- Sentitzen dut, benetan. Benetako lagun baten premia nuen eta zu aproposena zinelakoan nengoen. Konfunditu egin naizela ohartu naiz, beraz, agur. –neska altxatu eta bere soineko beltza aldean zeramala aldentzen ikusi zuen.

“Ezin nuen sinestu...” zioen ahots batek.

“... bakardadearen itzalak jarraitzen ninduen...” ezaguna egiten zitzaidan ahotsa.

“Itsasbazterrean nengoela, neure buruaz beste egitea pentsatu nuen...” Geroz eta ezagunagoa egiten zitzaidan ahotsa. Baina, norena zen?

“Ez nintzen neure burua itsasora botatzeko gai, beraz, haitz hartan nengoen olatu batek itsasoaren sabelera eramango ninduen egunaren zai”

Esaldi hura berriro!

Orduan ohartu nintzen neska haren hitzak buruan geratu zitzaizkidala ni lo geratu nintzen egun hartan. Sinesgaitza benetan!

Korrika ari nintzen neskaren atzetik.

- Barkatu, inozo hutsa izan naiz. Zure laguna izatea gustatuko litzaidake.
- Baina, zin egin ez garela sekula bananduko.
- Zin egiten dizut.

Hau duela urte asko gertatu zen. Hala eta guztiz ere, lagunak izaten jarraitzen dugu. Bera, ikasketa batzuk burutzen kanpoan da, baina astero idazten diogu elkarri eta oporretan munduko toki ezberdinak erakutsiko dizkidala zin egin dit.

Fernando Morillo Grande

Irabazlea 17 urtetik gorako sailean

BETIEREKOTASUNEZ

Urteak ziren. Urte asko, neurgaitzak kasik. Baina guzti horrek merezi izan zuen, beharrik! Merezi izan zuen. Azkenik ere... lortzeko zorian zegoen oraintxe. Arnasa sakonki hartu, eta aurrera ekin zion. Dena ala ezerrez, iritzi zion. Gerta ala gerta. Gehiegi zuen jokoan zalantza ziztrinekin hasteko. Dena, erabaki zuen, dena izan behar zen. Derrigorrez.

Azken osagaiak nahastu zituen, erlojua begiratu, eta zain geratu zen. *Grimoriumaren* arabera, minutu batzuk besterik ez ziren izango. Minutu batzuk gehiago, demontre! Haatik, hainbeste denbora igaro bazuen ere, honez gero, hau lortu nahian, une labur hauek amaitezinak iruditu zitzaizkion. Beste pixka bat, arren, pixka bat, besterik ez.

Lortu egin zuen.

Gelako horma oso bat goritu egin zen gorgarriki, suaren dantza erotuaz mozorrotuz une berean. Ez zen ordea hau, su arrunta, eta ez zuen garrarik atera, beste nonbaitetik zetorren, izendaezina den sakan ilunenetik, ausaz. Seguruenik. Horman itsatsirik balego mugitzen zen sua, zelatan antza, larderiatsu betiere bi dimentsio haietara zedarriturik. Horrelako zerbait itxaroten bazuen ere, gure laguna aho bete hortz geratu zen arras. Azken unean zalantzek eraso zioten. Aitzitik, muzin egin zien oldarki.

Igarobide beltz eta borobil bat zabaldu zen horman bat-batean gorgarri, eta bera ipurdiz erori zen atzera, alimaleko sustoaren ondoren. Hala ere, bere kikilkeria menperatu zuen berriro ere, irmoki. Ez zuen hutsik egingo. *Ezin* zuen hutsik egin. Ezin zuen. Heldua baitzen bere *benetako* ordua.

Irudi bat irten zen pasabidetik. Itxura liluragarria zuen, mirestu zuen, egiatan gorpuzkera aparta. Ezin izango zuen egoki deskribatu, hori ezinezkoa bailitzateke ziurrenik. Ilea *pizturik* zuen irudiak, gar erogarriez, baina ezin zuen baieztatu jantzirik ere zegoenik, hain zen jasangaitza bere presentzia. Eta zirrara hori areagotzeko, etorri berriaren begirada zegoen. Indar ikaragarria isurtzen zuen begi distiratsuetatik, den guztia azpiratzeko jaio izan bailitzan. Nor izango zen horrelako begirada bat eusteko gai? Galdetu zion alferrik bere buruari. Nork egin lezake? Inork ere ez. Ezta inork ere!

– Nork deitu nau? – egotzi zion irudi piztuak, bera bakarrik bazen ere gela osoan aurki zitekeen beste pertsona bakarra. Jolasean ala? – Nork deitu nau? – errepikatu zuen ozenkiago, besteak ez baitzion erantzuten.

– Nnn... nik. Nik. – maiseatu zuen ahal moduan besteak. Bere totalka hitz egite hori ez zen ez gutxiagorako.

– Hik. – ez zen galdera bat.

– Bai.

– Eta zertarako? Ba al dakik nor naizen?

– Nolabait... bai.

– Ba al dakik nor naizen? – errepikatu zion berriro.

– Bai.

– Ez dezagun orduan denborarik galdu.

Azkenean bai, lortu behar zuen. Gaztetatik izan zen bere obsesio arreena, kiskalgarriena, bizigarriena. Bere aita zerraldoan ikusi zuenetik, gogoratu zuen. Zurbila, zurruna, munduko edertasun guztietarako itsua; egunsenti gehiagorik ez gizaldi eta gizaldietan, ez irribarrerik, ez besarkadarik, ez... milioi bat urte eguzkia mendiak zeharkatzen ikusi gabe! Milioi bat milioi urte! Eta gehiago, ene, gehiago. Nork jasan zezakeen horrelakorik?

Hala eta guztiz ere, bazirudien bera besterik ez zela ohartzen, gela hotz eta negarti hartan. Beste guztiek tristura tankera bat agertzen zuten, hunkiturik beharbada, edo hala agertu nahi zuten bederen. Ama negar batean zegoen, gainontzeko hurbileko senideak antzera, goibeltasun ilun batean murgildurik. Baina ez zen hori. Ez. Ez zen hori bere arimaz jabetu zen sentipen higatzailea. Ez al zuten sumatzen bada, Dama Beltzaren soinekoaren fereka, limurtzaile bezain zarrastatzailea, barreneko hezur guzti-guztietan erroturik? Ez al zien bi huts mugagabeen arteko txinpartaren ezgauzak gogamena infinituki ohiltzen?

Balirudike ezetz. Berarentzat, alta, goitik beherako antzaldaketa suposatu zuen aitaren heriotzak. Begien irekitze bortitz bat, borroka lazgarrienerako zioa. Eta beldur izugarri, neurgaitz eta atergabea halaber.

Ikasten hasi zen, ero antzera, etsipenak ematen zion erabakitasunaz horniturik. Egon behar zuen bideren bat halabeharra nola edo hala saihestu ahal izateko. Egon behar zuen! Eta berak aurkituko zuen.

Ikas zitekeen dena ikasi zuen, eta gehiago ere. Pixkanaka, bidezidor bat irekiz joan zitzaion. Baziren hainbat bide, arriskutsuak, ezinbestean. Baina hori, bizitza serio hartzen duen edonorentzako ebidentea zen, hausnartu zuen, ezin baita borrokara joan dena gal daitekeen uste osorik gabe. Erantzukizun-gabetasun barkaezina litzateke.

Itsukeria hutsa. Ondiko handienetarako egon behar zuen prest, nahi zuena lortu nahi bazuen. Bera prest zegoen. Orain ziur zen. Orain behintzat bai.

Goi-*grimoriuma* lortu zuen, egin behar zena egin zuen, eta orain saria eskura zekusan. Berak imajina lezakeen saririk garaiena, berealdikoena, bikainena ; Heriotik itzurtzeko aukera! Hilezkortasuna!!

– Zein da hire eskaera? – jaulki zion agerpenak ahots burrunbatsuz.

– Hilezkortasuna jauna. – erantzun zion besteak ia arranditsuki. Bere nahiaren lorpen hurbilak ausarkeriaz blaitu zuen antza.

– Hilezkortasuna? Zertarako nahiko huke ba hik betiereko bizia?

– Hori nire gauza da jauna. Uste nuen hori eskaintzeko gai zinela. – ihardetsi zion apur bat kezkatu. Egin behar zen dena egin zuen. Orain ezin zion ukatu! Ezin zion ezetz esan, otoi!

– Horixe naizela gai, memeloa halakoa! Zer uste duk? –itxurazko amorru suminaldi batek hartu zuen, eta literalki su eztanda batean zartarazi zen, gela osoa argi jasangaitzaz gainezkatuz. Gure lagunak begiak ireki zituenean, denak berdin zirauela ohartu zen, baina horrelako indar erakustaldi baten ondoren, dardara geldiezin batean hasi zen.

– Barkatu jauna, barkatu. – eta irudiaren aurrean makurtu zen umiliaturik. – Nik... nik ezin hobeto zerbitzatu zaitut hainbat urtetan. Uste nuen... uste nuen hori eska niezazukeela.

– Mmm... – murmurikatu zuen agerpenak. – Egia da bai, ondo zerbitzatu nauk. Badakik? Hire eskaera onartuko diat. Bai, hilezko egingo haut. Tipo jatorra naizelako, gero.

– Benetan? – eta bere begiak itxaropenaz urpetu ziren.

– Nik ez diat gezurrik esaten! – oihukatu zuen berriro trumoi antzera.

– Noski, noski.

– Zehaztapen txiki bat. Hilezkortasuna *heureganatzeko*, lehen hil egin behar duk.

– Zer? – galdetu zuen mesfidati. Zertan ari zen ordea? Bazekien bere aurreko agerpen hura ironiaren maisua zela. Adar joka ari ote zitzaion?

– Esan diat nik ez diodala gezurrik. Ez duk txantxa. Heuk ikusi nola egiten duan heure buruaz beste.

– Neure buruaz... beste... egin?

– Bai. Behin hil eta gero, hirugarren egunean piztu egingo hintzateke, berriro "*sekula sekulorum*" ez hiltzeko.

– Hirugarren egunean? Baina hori... hori ez al da...?
– Ez huen ba pentsatuko lehenengoa hi hintzenik, ez da hala? – moztu zion besteak.

– Ez ez. Bakarrik...

– Zer? – bota zion zakarki.

– Beno, deus ez.

– Hori dugu guztia beraz?

– Bai. – Zer erremedio. Ez zen beste ezer esatera ausartu.

– Orduan, badakik zer egin behar duan. *Heldu horri!* – oihukatu zion, airean desagertzen zen bitartean. Gure lagunak gorde zuen irudiaren azken oroimena, irkaitz bitxi bat izan zen, nolabaiteko irribarre maltzurra. Haatik, beste gauza garrantzitsuagoak zituen orain buruan. Hilezkorra izango zen! Beste pixka bat. Pixka bat bakarrik.

Pozoina aukeratu zuen. Tiroz edo labarren batetik salto egiteari bortitzegia iritzi zion bere izaera baketsurako.

Lagun gutxi agertu ziren hiletara. Ezin izango zituzkeen egiazki gehiago espero, bere biziak bakartia kontutan izanik. Ez zen ezer aipatzekorik gertatu; pare bat malko, pare bat hitz. Eta etxera.

Hirugarren egunean, ikaragarriko konbultsioak jota, esnatu egin zen, esnatu ere. Hasiera batean, itotzen ari zen sentsazio lazgarria izan zuen gainean, arnasik ezin bereganaturik, eta non zegoen asmatu ezinik bere zorabioan. Segundo luze batzuk igaro ostean, alabaina, gogoratu zuen. Hilezkortasuna. Hilezkortasuna! Barre egin zuen. Berririo egin zuen barre pozarren. Betiko biziak. Betiko! Ez zuen ez inoiz hain barre alairik egin.

Eta ez zuen inoiz gehiago egingo.

Zerraldoaren barruan aurkitu zuen bere burua. Klaustrofobiako atake mutiri baten ondoren, norbaitek (inoiz badare) entzungo ziola uste nahi izan zuen, bere burua lasaitu nahi izan zuen. Denbora zuen horretarako, ez? Ez? Kolpeka hasi zitzaion zerraldoaren estalki sendoari ordea, ero moduan. *Bada norbait? Norbaitek entzuten al du? Arren, arren!! Oso ilun dago. Oso. Ireki! Ireki atea!*

Hilezkortasuna, maiseatzen zuen tarteka izaturiko begiradaz, *hilezkortasuna*. Bere beldurra areagotzen zihoan denborak aurrera egin ahala. Izan ere, bere gorputza (gorpua ia), jan ezean, mugaraino ahuldurik zen, eta minak eta itolarriak goraka ari zitzaion. Min ikaragarria, berebizikoa, amaigabea. Hilezkorra. Hilezkorra!

Negar egin zuen orduan, ironia beltzez gainezkaturiko negar pattala, indargea.

Orain, hainbeste desiratu izan zuen betierekotasun osoa zuen bere burua
madarikatzeko. Eternitate sorta bat berarentzako bakarrik, eternitate guztiak. Eta
bitartean, garai batean hainbeste izutu zuen horretan pentsatzeko astia, orain hainbeste
irrikatzen zuen horretan. Heriotzaren misterioa, berak orain ezagutu ezin izango zuen
atseden eternoan mugitzeko ahala. Heriotza, heriotza...! Herioa... ...hotza. Hotza. Gaur.
Mina. Betiko. Betiko! *Ireki atea, arren! Ireki...!*

Aintzane Agirrebeña Ubera

Akzesita 17 urtetik gorako sailean

MAKALETIK MADARIKATURAKO TRANTSIZIOA

Hamaika pauso triste egina naiz ni. Nire bizitzako unerik zailenak izan nituen haiek. Ez zen eguzkirik irteten niretzat eta hodei ilunek kaleak iluntasun likits batez horditzen zituzten. Mundua gero eta estuagoa egiten zitzaidan; jada, ez nintzen bizitzaren pasabide estuan barrena kabitzen. Hainbeste estutzen ninduen non ez bainuen arnasa hartzeko betarik izaten eta ito beharrea nengil. (Beno ez dezadan larregi exajeratu...) Etxeko arazoak gutxi bailiren, uztar-lagunak "ondo bizi" esanda aldegin zidan eta eskolan ez nuen ia bat bera ere gainditzen. Nire zerupeko unerik zailenak izan nituen haiek. Sasitik irten orduko lar tartean sartzen nintzen. (E! Zu! Irri bat atera zaizu! Ba, ez pentsa, ez zen nire errua nota txarrak ateratzea, irakasleek gorrotatu egiten nindutelako zen dena...)

Nik deskuidu txiki bat egiteko zain egoten ziren haiek, eta uste gutxien nuenean, denen aurrean lotsagarri uzten ninduten. Nik ezer gutxi egin orduko, begirada zitalak zuzentzen zizkidaten. Ondoren etortzen zena, halaber, ez zen atseginagoa izaten; behin eta berriz errepikatzen zitzaidan amets gaizto hura. Haien ezpainetan osatzen zen "ZU!" beldurgarriak eztarria korapilatzen zidan. "ZU KALERA!" ozena zetorkidan behin eta berriz. Bigarren ilarako mahaian eserita egon arren, ate aldera ematen nuen pauso bakoitzeko nire mundu txiki hartako pieza bat erortzen zitzaidan lurrera, dena puzzle hauskor bat izango balitz bezala. Buru makur irteten nintzen, baina horrek ez zidan besteek nire kontura egindako trufa isila sentitzea eragozten. Ikasle txarra nintzela zioten, baina inoiz ez zidaten aukerarik eman. Eta nire pauso isilak korridoreetan barrena mugitzen ziren, atzean geratutako ikasleen barre eta ziriei jaramon zipitzik ere egin gabe.

Ikastolan neu nintzen azkeneko mamu gorria;ez nuen lagunik izan sekula eta eskola berrira pasatu nintzenean okerrago izan zen. Ikusi bezain laster, gelakide guztiek ezkerreko begiz hartu ninduten (nik ere ezin nituen haiek jasan, baina ni bat nintzen eta haiek asko). Makinatxo bat bider joana naiz etxera ubelunez belztuta, baita odolez makilaturik ere. (Noski, makilaturik edo margoturik ez dakit, baina, makilakadak hartuta bai behintzat). Gurasoek, honen aurrean, ez zuten ez mutik ez zirkinik egiten. Horiek haurren arteko "adineko borrokatxoak" zirela esan ohi zuten eta ez ziren ohartu nire estuasunaz, egin nuena jazo zitzaien arte. Ordura arte sarri jaso ohi nituen bezalako jipoi bat kobratu ondoren, etxera joan eta inor ez zegoela ikustean, aiztoa hartu nuen eskuartean. Inoiz ez dut berriz halako esperientziarik izan. Bihotzaren taupadak gorputzeko kokagune bakoitzean nabari nituen baina gehien eskumuturrean. Aiztoa

bertara zuzendu nuen zainak mozteko asmoz baina ez neukan indarrik eta eskuetatik ihes egin zidan. Izerdi patsetan nengoen eta zer egin ez nekiela, amaren logelara joan eta kaxoitik zapi ilun bat hartu nuen, begiak estaltzeko. Bigarren aldiz saiatu nintzen, zapia begien inguruan nuelarik, izua aldenduko zitzaidalakoan, baina, ez zen hala izan. Gurasoen urratsak entzun nituenean bakarrik erreakzionatu nuen. Eskua dardaraz hasi zitzaidan eta begirada lanbrotuak ez zidan eskumuturra erakutsi nahi. Itsu-itsuan, jesus amen esan orduko, zast! zainak ebaki nituen. Normala denez, ez dut ezer gehiago gogoratzen, anbulantzia zaratatsua izan ezik, irudirik gabeko formak.

Erizaindegian itzartu eta nire gelakide guztiak bertan ikusteak, bihotzari salto bat eragin zion, aurpegia zeharo aldatuz. Gelakide guztien begiradak ni nentzan oherantz zuzentzen ziren eta behingoz, denen arreta neureganatzea lortu nuen. Errukiz begiratzen zidaten eta nik, bitartean nire –aspaldidanik entseiatu gabeko– irrifarririk zabalena eskaintzen nien. Lau horma zuri haien artean egoteak ez ninduen batere alaitzen are gutxiago kable eta makina haiek inguruan nituelarik. Egunak eta gauak igarotzen nituen egindakoaren azterketa sakona egiten, buruan mareatu arteko jira-birak emanez. Egoera hura ezingo nuela gainditu iruditzen zitzaidan, eta lotsa sentitzen nuen nire gurasoen aurrean. Baina mundua buru gainera eroriko zitzaidala uste nuenean Mirari agertu zitzaidan. ("Nor da Mirari hori?" pentsatuko duzue...) Ba... Mirari erizaindegiko gelakidetzat nuen Imanolen arreba zen, ordura arte inoiz ikusitako pertsonarik alai eta biziena. Egunero-egunero bere presentziaz betetzen zigun gela, piper,gatz eta azukre nahasketa bat hedatuz gelaren azalera osoan. Lehenengo aldiz ikusi nuenean, mututurik gelditu nintzen, ahoa memelo baten antzera zabal-zabalik nuela. Bere begietan zuen bizipoza kutsakorra zen; irrifar goxoak gaztetu egiten zion eguzkiaren distira bezainbesteko argia isurtzen zuen aurpegi alaia. Anaia loak hartzen zuenean, bere ondoan egoten zen liburu bat irakurtzen. Orduak eta orduak pasatzen nituen, konturatu ere egin gabe, bere mugimenduak aztertzen, zer esan jakin gabe. Goizetan, Mirari ikusteko irrikiak goizago esnarazten ninduen. Imanolengandik jakin ahal izan nuenez, Mirarik ez zuen senargairik, eta nire buruak beregana nola hurbildu beste arazorik ez zerabilen, bere gogameneko igarobideetan barrena. Azkenean heldu zitzaidan aukera: bere urtebetetze eguna zela eta erizaindegiko lorategitik ostutako loreak eskaini nizkion, lau arrosa gorri. Bai zoriontsu egin ninduela eskertzeko eman zidan musu hark! Bizitza berri bati ekingo niola sinestu nuen bete-betean. Hurrengo egunean, Mirari erizaindegira iritsi aurretik berriz lorategira ihes egin nuen hain gogoko zituen arrosa gehiagoren bila, ordainez beste musuren bat jasoko nuen esperoan. Baina bizitzak nahi duenean petrala

izaten ere badaki eta... Itzalean nengoen bitartean etorri zen Mirari, baina ez zetorren bakarrik, motorrean zekarren mutil batek. Mirariren barre algarak iristen ziren nire entzumenetara, beti bezain alai, eta baita bere ahots leuna ere, beti bezain goxoa, txoriei buruzko hizketaldian. Belarriak zorrotzu nituen orduan, bere bizitzaz zertxobait gehiago ikastekotan, eta gutxien espero nuena jazo zen. Nitaz hitz egiten ari zen larruzko txaketaz jantzitako tipo harekin! Mirariren algarak nire kontura eginikoak ziren, lumatu gabeko txorikumeak loreak oparitu zizkiola eta! Mirari bakar bat gertatu zait bizitza nekagarri honetan eta bera ustelduta zegoen barrualdetik.

Orduak eta orduak pasa behar izan nituen nire barneko tristura guztiak kanporatzeko eta azkenik, heldu zen berriz etxera itzultzeko garaia.

Zuriz mozorrotutako etxe izugarri hartatik atera nintzenerako, dena bere normaltasunera itzulia zegoen. Gelakideek jarrera berbera azaltzen zuten nirekiko nahiz eta lagunak bat edo beste hurbildu galdera batzuk egitearren. Jakin nuen, derrigortuta joanak zirela ni bisitatzera eta barre egiten zidaten ni ikustearren joan zirela uste izateagatik. Indartsuenek ni jipoitzen segitzen zuten eta ni ez nintzen haien sakeak errestatzeko gai (bazirudien denek Mikel Gonik besteko abiadura eta indarra zutela sakea ateratzerakoan). Gurasoek, berriz, ildo beretik jarraitzen zuten, lehengo lepotik zuten burua. Hobeto zaintzen nindutela uste zuten, baina dena lehen bezala zegoen.

Egun batez, bizikletaz eskolara nindoan batean, bigarren mailako ume bat parean gurutzatu zitzaidan, eta istripua ezinbestekoa izan zen. Aurpegiaz lurra jo eta sudurretik odola zerion. Zer egin ez nekiela gelditu nintzen. Bitartean, txikia masailak lehertu beharrean negarrez ari zen. Ni jipoitzen ninduteneko irudia etortzen zitzaidan behin eta berriro burura. Zenbat ukabilkada, zenbat ostiko hartu behar izan nituen isil-isilik, umekeriak zirela eta. Nire sudurrak ederto zenbatuak zituen gelako liskar altxatzaile haiek atzaparretan zenbat hatz zeuzkaten. Barrena irakiten jarri zitzaidan. Lehenengo ostikoa eman nionean ez nintzen konturatu zertan ari nintzen, bere lagunak garrasika hasi ziren arte. Ingurura begiratu eta beldurra ikusi nien ume haiei begiratuan. Han ez zegoen iseka eta barrerik. Ni nintzen han indartsuena eta hori gustuko nuen. Bigarren ostikoa, nire hezurak mami bihurtu arte jipoitzen ninduten haientzat izan zen; nire gurasoentzat, behin eta berriz zigortzen ninduten irakasleentzat... Hiruzpalau ostiko gehiago eman nizkion, nagusiak gerturatzten hasi ziren arte.

Egindakoagatik ez nuen atarramendu txarrik jasan behar izan. Erraz libratu nintzen zigorrik jaso gabe, baina ez zen hala gertatu nire barruan piztu zitzaidan irriki berri harekin. Su hark, barrena irakiten jarri eta indar berri batez betetzen zidan

gorputzean sentitzen nuen hutsunea. Nire menpekoak zeintzuk ziren bereizten bai azkar ikasi nuela! Oilo busti haien begietan ikusten nuen beldurrak eta euren negar barregarriek nire barneko arrangura errotuari ura irrigatzen zioten, gorroto itsu bihurtu arte. Haien izuaz elikatzen nintzen. Izu-ikara sakratuaren aurrean hazi egiten nintzen.

Ez zen hilabete bat pasatuko, eskolan zegoen "makarra" tankerako mutil anker hura droga eskainiz etorri zitzaidanean. Entzuna zuen ematen zizkidaten jipoien berri, baita nik eginiko ekintzen berri ere. Tipo hark, ondo baino hobeto zekien ezingo niola hauts zurixka hari uko egin. Mundu hilkorri ihes egingo niolakoan, egunero-egunero erosten nion sobretxo bat, gutxienez. Alderatzen zenean, nire eginkizunetan jarraitzen nuen. Inork ez zuen ezer susmatu.

Gero eta zorrotzagoa nintzen jendearekin eta nire jenioa biziagotu egin zen. Hasieran, dirua behar nuenean gurasoei lapurtzen nien baina gerora, diru eskaera emendatzean, beste diru iturri batzuk aurkitu nituen, izan ere, munduan makal ugari baitago. Biderik errazena banketxetik irteten ziren aiton-amonak izaten ziren; konturatu orduko haien karteren jabe egiten nintzen.

Unibertsitateko lehenengo egunetan gelakide guztiak aztertzen aritu nintzen. Bat edo beste liskar altxatzaileak baziren ere, jadanik era horretako asunek ez zidaten hazkurarik ematen. Txikitako makal planta hura atzean utzi nuenetik, jendearen begirada nigana zuzentzen zenean apalagoa izaten zen. Birritan pentsatu behar izaten zuten niri hitz erditxo bat zuzendu aurretik; nire larruzko jakako ezkerreko sakelan eramaten nuen hamazazpi zentimetrotako labana ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula. Nire gainontzeko itxura ere itzela zen: kaskarra zerora moztuta, nire zaharraren bihotzaren kaltetan bi belarritako eskuineko belarrian eta beste bi sudurrean eta, nola ez, kendu ere egiten ez nituen koadrodun prakak. Unibertsitateko pasilloetan ibiltzen nintzen istilu bila, liskar altxatzaile bihurtu nintzen neu ere. Niretzat lanean jarri nituen zenbait kankailu; hain zen erraza haiei nire aginduak betearaztea... Nire oinaze guztia barneraturik, lege guztiak irensteko prest, bizitzari iseka eginaz bizitzea nuen jomuga.

Horrezaz gain, dena ondo zihoakidan, droga pasatzen zidanak istripu bat izan zuen arte. Auto batek jo eta hila suertatu zen. Ezin nintzen nire droga gabe gelditu eta hau uzteak eragina izan zuen nigan. Okerrena eragin hau ez zela onerako izan. Hasieran infernuko suaz gorituta nuen bihotza eta baita gorputza ere. Drogaren menpekotasuna gainditu nuenean, jendeari min egiteko grina hedatu egin zen nire burmuinean. Zuzendariak nire ibileren berri entzun zuenean, bere bulegora deitu eta Unibertsitatean ni bezalakorik ez zutela onartzen esan ondoren pasaporteia eman zidan, delinkuente soila

izango banintz bezala... bulego bat izateak ni baino boteretsuago egiten zuelakoan... Hurrengo astean zakarrontzian istripuz eroritako zigarro lipar batek su hartu eta bulego dotorea kiskali zitzaionean apika ez zuen berdin pentsatuko; ez eta bere Renault beltza beste kolore batzuen konbinaketaz apaindu nionean. Ondo baino hobeto jakinarazi nion nor nintzen ni.

Etorkizunaren lokarria galdurik, gizatasunik gabeko presentzia bihurtu nintzen. Etxe huts zaharkitu batera alde egin nuen, nire zaharren aurpegi luzeak berriz ikusi beharrik ez izateko. Nazkatuta nengoen haien betiereko kexuekin, haien beranduko arduratu itxura hutsalekin eta jadanik haien jarduna gehiago entzun beharrik ez nuenez, etxeko bazterretan aurkitutako diru eta baliozko objektu guztiak eraman nituen neurekin.

Denboraren poderioz, nire makurkeriak gero eta ausartagoak egiten ziren. Egin ahalak egin arren, ez ninduten inoiz harrapatzen eta gero eta indartsuago sentitzen nuen neure burua. Merke saltzen nuen nik bititza. Eskolako umeei drogak saltzeari ere ekin nion eta gainera, berdin izaten zitzaidan haien adina, nik ongi ezagutzen bainuen krudela izateak ez duela adinik; niretzat, objektuak besterik ez ziren deabrutxo haiek. Erruki hitza nire hiztegitik ezabatua nuen aspalditik. Dendetan lapurretan egitera behartzen nituen aitaxoren umetxoak eta behin baino gehiagotan salatu nituen hartan ari zirela, gizon handi haien ohore puztua nola husten zen ikusteko. Haietako bat izan zen nire irakasle ohi baten semea: irrati bat osten harrapatu zuten eta etxean, bereak ez ziren beste hainbat gauza aurkitu zizkieten. Mendekua garratza izan ohi da; historiako irakaslearentzat bederen istorio tamalgarria, larrutik nozitu baitzituen hark lotsa eta porrota.

Lapurtu, haurrak zauritu, drogak saldu... zer ez ote nuen egin? Baina niretzat ez zen aski. Legearen muga guztiak zeharkatu nahi nituen. Legearen muga guztiak hautsi nahi nituen, hauen esparrua zabaldu. Zikilu saltsa besterik ez ziren izan ordura artekoak. Sena joanda bezala nengoen, begiak erne, zerbaiten zai. Eta azkenean zeruaren erantzuna izango balitz bezala iritsi zitzaidan zerbait hori. Gau batez, ardoak itzala egiten zidan batean, trenbidean zehar aurrez betetakoa hustera abiatu nintzen, han inguruan paseatzen zebilen emakumeak ezagutu egingo ninduela aurrez susmatu gabe. Gelditu eta arreta handiz begira-begira egon ondoren, garrasika hasi zen inguruko jendeari laguntza eskatuz. Nik, badaezpada, hanka jokoak erakutsi nion, ez bainintzen ezkerreko sakelari gorderik nuen labana ateratzeko gai sentitzen. Baina emakume setatia ez zegoen ni joatearen alde eta nire atzetik segika zetorren, itzal ilun baten antzera. Trenbidetik irten nintzen errepidea gurutzatuz. Mirakulua izan zen une horretan nigana zuzen-zuzen

zetorren autobusak ni ez zapaltzea; berak ez zuen zorte bera izan, ordea. Herioren, igitaidun zaharraren, itzal hotza, atzean, hain gertutik sentitzea bizigarria egin zitzaidan; ni hilezkorra nintzelako burutazioa sortu zitzaidan kaskezurrean.

Nire larruzko txaketa beltzeko poltsikoan pistola erabiltzen hasi nintzen, pistolak hamazazpi zentimetrotako labanak baino errespetu handiagoa ematen baitu. Nire ausardia amaigabea zen; sarri ateratzen nuen pistola. Besteen beldurraz elikatzeaz gozatzen nuen, drakularen antzera, haien odola edanez... Jendearen aurpegikeretan marrazten zen izuak boteretsu egiten ninduen, eta azkenean nire handiusteak galdu ninduen. Tabernari bat garbitu nuen bezero guztien aurrean, oihu eta garrasi artean. Azkarra nintzela uste izan nuen, nire pistola indartsua zela, baina ertzainen eskuetan erori nintzen, atxilotu egin ninduten; argia nintzela uste izan nuen, baina juezak hogeituro urteko kartzela zigorra ezarri zidan; indartsua nintzela uste izan nuen baina kartzelan pairatutako torturek bizitzaren gogortasunak ni ere barne hartzen ninduela erakutsi zidan.

Hamar urte pasa nituen ilunpetan, eguzkiaren argia berriz ikusi orduko. Pareta beltz haien orroa mutua, haien irudi zehatza, nire erraietan gelditu zen betiko itsatsirik; hasiera-hasieratik argi utzi zidaten han indartsuena ni ez nintzena. Bizitzaren mugak ebidentziaren aurrean ikusten dira, eta kartzelak erakutsi zidan iheskortasuna zela nire izatearen funtsa. Izerdi hotzez, lau paretei loturik, gatibuan igaro nuen hamar urte haietako egun bakoitza.

Oso mantso joan ziren urte haiek niretzat, baina irten nintzenerako, jendea kaltetzeko gogoak ospa egina zidan. Berrero kartzelara joatearen ideia ez zen batere tentagarria eta bizitza berri bat eratu nahi nuen, nire burua kausitu. Baina nire bizitzaren kausetik jauzi batez irtetea nahi izan banuen ere, kanean, denek, aurpegikera arraroz begiratzen ninduten, urteetako Sufrimenduaren kiratsa nire gorputzari atxikirik balego bezala. Ezkontza kontuak ere erabili nituen buruan jiraka, baina, nor ezkonduko zen ni bezalako tipo nardagarri batekin? Mundu gizatiar soilak mundu ilunaren sakonera baztertzen ninduen. Bestalde, ideia honek hotzikara sortu eta zeharo tristatzen ninduenez, Ameriketara etortzea erabaki nuen.

Bakar-bakarrik bizi izan nituen ondorengo hogeituro urteak, mendiko etxola zaharkitu batean, lurreko arazoez at, naturaren putzu sakonean nire zatiezinezko sumina ito nahian, nire burua aurkitu nahian, nire mundu hutsala galdutako paraje hartan ezkutatu nahian. Hasieran pozik bizi nintzen inoren kexuak entzun gabe, baina asper-asper egin nintzen etxolako isiltasunaz eta nire barnean ernaldutako harraren kurruskak entzuteaz.

Bakardadearen bakardadeak eraginda noraezean nenbilen, tristura eta sufrimenduak goitikatu nahian. Jadanik jasangaitza egin zitzaidan isiltasunean murgildutako isiltasunak oihukatutako hitz isilak, isiltasunean galdutako zurrumurruak...

Gabean ez ninduen loak hartzen. Hain zen handia nahiaren oinazea... Honen aurrean hiriratzea pentsatu nuen eta hemen ikusten nauzue zaharren egoitza horietako batean (beno, ez nauzue ikusten baina imajina nazakezue, ezta?).

Ez da arrunta izan ohi hain gazterik egoitza batean egotea, baina inork ez zidan ezetzik eman eta nire zerupeko aldi kaxkarrari azken puntua bertan jarriko niola erabaki nuen. Orain badakit bizi eder bat alferrik galdu dudala. Hala ere, nik honela bukatzea beste batzuen errua izan da nirea baino gehiago, egin dudan guztia burutzeraz ingurukoek bultzatu bainaute. Nork daki, apika, guraso ezberdinak izan banitu munduko gizakirik zoriontsuena izango nintekeen. Agian... hau ez da ustea besterik (Usteak erdi ustel), baina nire bizitza irtenbide bakarreko pasabidea izan da eta ez dut beste ezein ihesbiderekin topo egin. Nork alda dezake patua?

Egoera honi aurre egiteko kemena izan beharko dut gelditzen zaizkidan urte apurretan. Inorengatik zapata gutxi urratu baditut ere, hemen lagunen bat egitea espero dut, neure azken finean lagunak izan ditudalako poztasun izpi batekin hil nadin.

Bertso Paperak

Iñigo Igartza Olabarri

Akzesita 13 – 14 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

BERTSOAK

Dirua ez da ona
kendu nahi digute
txuleta eder on bat
diru honen truke
janari hobea dela
jakingo balute
diru multzo guzti hau
hartu alko nuke

Lagunekin nabil ni
beti ni gustora
Durangoko kaletik
bera eta gora
erosten galtzen dugu
nahiko denbora
azkenean etxera
bihar be kanpora

Durangoko kaletan
dago zalaparta
horra joaten dena
beti da ausarta
inoiz ez duzu izango
lagun baten falta
beti ateratzeko
kristoren zarata

Lagunekin nabil ni
nolako itxura
ez dugu inork hartzen
batere ardura
beti ibiltzen gara
nahi dugun modura
barrezka ibiltzen gara
lagunen kontura

Txomin Magdalena Arriaga

Irabazlea 15 –16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

GAU BATEAN IKUSITAKOA

Aulki batean eserita gauz
hori omen da o(ra)in moda
gauero hemen jubilatuz lez
arin pasatzen denbora
eskumaldean kotxeak barra
ezkerrean hainbat lora
relajatzeko gaba hau dugu
yoga baino askoz hoba

Aurreko bide huts horretatik
badoa txakur nomada
ta ezkerreko zabor hoietan
egin duela parada
basura jaten edo usaintzen
gogoz hartu du patxada
bizitza hontan bizidun denok
nomadak gara beharbada

Txakurra joan eta paretik
bikote zahartxo bat dela
eskuak elkar helduta eta
amodio berri bezela
odol beroa dutenez gero
bizitza nahia itzela
oraindik ere ez dute moztu
maitasunaren kordela

Bizitza iturri ondo-ondotik
atsoa joan da bakarti
gaztetasuna pasa du eta
gozatu izan du beti
heriotzaren atean dago
aurkitzen da txit beldurti
eta iturri horren ondoan
azken malkoa du jaurti

KLASERA BUELTA

Bihar klasea dadukagula
ahaztutzeko ahalegina
nere burmuina despejatzeko
handia dut zeregina
klasera joan behar horrexek
ematen didala mina
berriro ere bueltatu zaigu
urte osoko rutina

EUSKERA

Gure hizkuntzak jaso izan dauz
makina bat zapalkuntza
eta oraintxe gainean dago
euskeraren normalkuntza
batzuk diote zatarrak dela
ez du sortzen konfiantza
izanen da gure hizkuntza
betetzen du bizi funtsa
oraintxe denok hasi behar dugu
euskeraren eraikuntza
etorkizuna geurea denez
euskeraz jo ta su mintza

BASERRIA

Baserritarrek Euskal Herriko
kultura dute ezarri
mundu zabal hau mantendu behar
da
hori pentsatzen dut sarri
lan asko eginez sortu dituzte
larreetan hainbat herri
baserria beti izan dalako
gure arbasoen oinarri

Baserria da Euskal Herriko
hirien aurrekaria
gure kulturaren zati handi bat
duela da nabaria
batzuen planak zabaltzen dute
baserritarren zauria
baserri danak deuseztu nahia
hori bai krudelkeria

Erlantz Kortabitarte Agirrezabal

Akzesita 15 – 16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

GURE NATURA

Azkenaldian ekologian
daukat jarria begia
natura oso gaizki dagola
guztiz dalako egia
denborarekin bihurtu baita
mundua zikinegia
ta beraz zaindu dezagun denok
betirako ekologia

Oraintxe ere hainbat proiektu
ari direla egiten
Abiadura Handiko Trenak
nahi dituzte hasi jartzen
ta horrexek bihotzean niri
izugarri mina ematen
mendi ta baso eder guztiak
baitituzte zeharkatzen

Bizi honetan egin ditugu
mordoxka bat asmakuntza
hoien ondorioz iritsi zaigu
teknologia iraultza
eroso bizi garen artean
natura mintzen gabiltza
guzti honekin bukatutzeko
guk denok daukagu hitza

Tontor gainean ni nengoela
alboetara begiratu
larre berdeak zuhaixka pila
ederki nuen gozatu
baina gu denon tristurarako
gizartea zaigu sartu
fabrikak eta errepideak
natura dute suntsitu

HITZAURREA

Duela 16 urte, 1983an, Durangoko Udaleko Kultura Batzordeak umeentzako Ipuin Lehiaketa bat antolatzea pentsatu zuen. Joan Antonio Aromak, batzordekidea garai hartan, Julene Azpeitia izena proposatu zuen lehiaketarako, eta Batzordeak aho batez onartu. Izan ere, Julene Durangon bizi izan zen hainbat urtetan eta, umeak zituenez etorkizunerako esperantza, berauentzat idatzi zituen hainbat liburu: *Amandriaren altzoan*, *Irakurri matte* eta *Zuentzat*.

1983tik 1989ra Durangoko Udalak Julene Azpeitia Lehiaketa antolatzen jarraitu zuen, baina azken hamarkadan Berbaro elkarteak hartu zuen bere gain antolaketaren ardura. 1999 urtean, Durangoko Udalak eta Berbarok hala adostuta, lehiaketaren antolakuntza Udalaren eskuetara itzuli da. Guztiaren emaitza liburuxka hau duzue: *Julene Azpeitia Lehiaketa. Ipuin eta Bertso Paperak*.

Hasierako helburua ahaztu barik, hau da, lehiaketa Durangoko umei zuzentzea, badago atal berri bat: Euskal Herri osoko 17 urtetik gorakoek ere hartu dezakete parte ipuin zein bertso paperen alorrean. Beraz, liburuxka honetan, zazpi ipuin eta hiru bertso sorta izango dituzue irakurgarri. Testuen osagarri modura Imanol Larrinaga durangarraren marrazki paregabeak aurkituko dituzue.

Besterik gabe, azaleko irudiak iradokitzen duenari jarraitu eta murgildu zaitezte barruko orrialdeetan. Gogoan izan Erronkariko esaera zaharrak dioena: “*Libro zerratruk ez du ñori erakustan*”.

Durangon, 1999ko azaroan.

Nerea Urien Azpitarte
Euskara, Kultura eta Hezkuntza
Batzordeko Presidente

Ipuinak

Natalia Campo Dominguez

Irabazlea 11 –12 urteko sailean

Landako Herri Eskola

ORDU BATZUETATIK DIRUZ JOSIA

- Zerbait behar duzu andereno?

- Bai, ekarridazu limonada bat mesedez.

- Oraintxe bertan, zenbat izotz botako dizkizut?

- Birekin nahikoa dut, ah! Eta ez ahaztu bi edo hiru "pajita" ekartzea azkarrago amaitzeko.

- Bai, Larraitz andereno.

Limonada edan, bikinia jantzi eta ura bero edo hotza egongo zen pentsatu barik, igerilekura egin zuen salto.

Ura ez zegoen ez bero ez hotz, baina oso ondo egoten zen hantxe barruan.

Larraitz ez zen denbora askorik igeriketean ibili, presaka baitzebilen, festa batera joan behar zuelako.

Azkar batean, bere logela handira sartu eta armairuan zeukan traje politena jantzi zuen.

Trajea more kolorekoa zen eta bi lore zeuzkan, tirante bakoitzean bana. Kolore berdineko zapatak ere jantzi zituen. Geroxeago limusin batek bere ile-apaindegi pribatura eraman zuen, eta han, bere ile hori eta polita ondo orraztu eta gero, atzazalak margotu zizkieten, more kolorekoak ere.

Hau guztia amaitu ondoren, limusinean igo eta aireporturantz abiatu zen. Han, hegazkina hartu eta Parisera joan zen, festa "Eiffel" dorreko jatetxean zelako. Oso gustura egon zen Larraitz festan, eta ekitaldiari amaiera emateko lehiaketa bat antolatu zuten. Lehiaketa hau, "festako politena" deitzen zen, eta nahi zuenak hartu zezakeen parte. Larraitzek, bi bider pentsatu barik, parte hartu zuen. Aurkezleak berriz, honela hitz egin zuen saria ematerakoan:

- Lehiaketa honetako epaimahaiak erabakia hartu du: saria Larraitz anderenoari ematea. Zorionak!!!

- Eskerrik asko guztioi! –esan zuen Larraitzek, aurkezleak 500.000 pezeta eta urrezko iruditxo bat ematen zion bitartean.

Baina, egia esan, hori Larraitzentzako ez zen ezer berak zeukanarekin konparatuz. Larraitz mantsio batean bizi zen. Etxetzar horretan bizkartzaina, etxezaina, neskamea eta

zerbitzari asko zegoen Larraitz zaintzeko eta laguntzeko, gurasoak Ingalaterran zeuden bitartean.

Ordenagailu eta telebisiio pila bat zeukan etxean zehar, hamar limusin (telebisiio, bideo, ordenagailu, kasetta eta guzti)... Mantsioaren lorategian 200 m²-tako igerileku bat jauzi-ohol eta txirristekin; etxe barruan 15 m²-tako zazpi bainugela jakuzzy eta guzti, eta Larraitzen logela 100 m² zituen. Zoragarria, ezta?

Larraitzek berriz hegazkina hartu eta etxera bueltatu zen oso nekaturik. Horregatik, dutxa bat hartu, pijama jantzi, ohean sartu eta atoan lo geratu zen.

Hurrengo goizean, bere logelan gosaltzen zegoen bitartean, halako soinu bat entzun zuen: TIRRIIIIIIN!!!

- Zer ote da hori? –pentsatu zuen Larraitzek soinu hura birritan entzun ondoren.

- Telefonoa balitz, jadanik, nire neskameren batek hartuko zuen. Eta atea bada? – galdetu zion bere buruari- ez eta ez, hala izango balitz ere, jadanik nire zerbitzariren batek zabalduko zuen...

Larraitzek pentsatzen eta pentsatzen jarraitzen zuen, soinu hura aurrera zihoan bitartean: TIRRIIIIN!!! TIRRIIIIN!!!

Baina, bat batean, ahots bat entzun zuen:

- Larraitz, esnatu zaitez maitea.

Larraitzek begiak zabaldu eta ... nor ote zen hori? Larraitzen ondoan emakume dotore bat zegoen jesarrita. Emakume hori bere ama zen, eta logelatik arineketan zebilen neskatoa bere ahizpa txikia zen. Eta 100 m²-tako logela? Eta neskameak? Non zegoen gure Larraitz gizagaixoa? Guztia desagertu egin zen!!!

- Baina, zer da hau? Non nago? Nortzuk zarete? –deiadar egin zuen Larraitzek-.

Egia esan, goizeko zortziak eta bost minutu ziren eta Larraitzek eskolara joan behar zuen. Etxean zegoen! Den dena bere imajinazioan gertatu zen, lotan zegoen bitartean. Berak ez zeukan halako mantsiorik ez antzerako ezer. Berak zeukana hori baino inportanteagoa zen: Imajinazio handia. Oso amets polita izan zen, amets zoragarri bat!!!

Iasmina Gorroño Larrinaga

Irabazlea 13 – 14 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

GIZON BATEN AMETSA IZANA NAIZ

Gaur, ehun urte bete ditudanean, bota egingo nautela jakin dut. Atsekabeturik eta triste nago, lur jota. Ez nau inork maite.

Gaur, sitsez eta sasiz janda egon arren, luzaroan gizon baten ametsa izana naiz: Juanjo Zugadirena alegia.

Juanjo, Errota baserriko 9. semea, 18 urte zituela, Argentinara sukaldari joan zen bere lehengusu baten jatetxera.

Egunak joan, egunak etorri, Juanjoren bazkari-afariak gero eta ospetsuagoak egin ziren eta jatetxe hark makina bat janari eman zuen. Horregatik, gure sukaldariak bere jatetxe propioa irekitzea erabaki zuen, Buenos Airesen bertan. Negozioa primeran zihoakionez, hotelen esparruan ere sartu zen bere lehengusua kidea zuelarik. 55 udaberri eta ile urdin mordoxkarekin aldean, bere jaioterrira itzultzea erabaki zuen; ezkondu, seme alabak izan eta bitzta osoan amestutako etxea eraikitzeko: NI NEU.

Ez ninduen edonola egin. Sasoi hartako arkitektozik onenetariko batek diseinatu ninduen eta altzairu ederrenez jantzi ninduten. Handik gutxira, Juanjo, nire lorategian ezkondu zen Etxebarri baserriko Maritxu Iriarte gazte mardularekin eta geroago, euren seme-alabak bertan hazten ikusi nituen urteetan zehar.

Daniel gazteenak, zirugia izan zuen txikitatik gustuko. Sukaldean oilasko bat hiltzen zen bakoitzean, han zegoen laguntzaile.

Begona, aitaren urratsak jarraituz, negozioen munduan sartu zen, lehenik ostalaritzan eta beranduago, etxegintzan.

Pedro Marik, semerik zaharrenak ere, aitaren pausoei jarraituz sukaldaritza zuen ogibide; baina, Juanjorena berezkoa bazen, Pedro Marirena ostera, aitarengandik ikasitakoaz gain hainbat ikastarotan ikasitakoaren emaitza zen. Horregatik, Parisa joan zen bertako ardoak eta sukaldaritza ospetsua ezagutzera.

Etxeko umeak gazteak ziren bitartean, nire geletan bizitasuna eta berbaroa ziren nagusi. Daniel, Begona eta Pedro Mari kanpora ikastera joan zirenean ordea, isiltasuna nagusitu zen eta aldi berean Juanjo gaixotu egin zen, minbiziaz.

Nire egileak hainbat ordu igarotzen zituen nire lorategian zegoen aterpeko besaulkian eserita. Udaberriko egun epel eta eguzkitsu batean, 80 urterekin, joan egin zitzaigun.

Bat batean, Maritxurentzat handiegia bilakatu nintzen; seme-alabak etxetik kanpo, senarra hilda, zer egingo zuen ba! Ulertzekoa zen hartu zuen jarrera: Maritxuk

gero eta ordu gehiago pasatzen zituen etxetik kanpo eta nik ezagunagoak nituen hezetasunaren usaina eta hautsaren laguntza. Ni ere alferrik galtzen hasia nintzen!

Handik pare bat urtetara beste lagun bat izan genuen etxean: Peter Collins amerikarra. Etxekoandrearen laguna.

Donostiako zaldi lasterketetan ezagutu ziren, biei apustua gustatzen baitzitzaien.

Maritxu alargundu zenean, apustuak egitera zaletu zen: bingoetara, loteriara, kasinoetara, baita ere zaldi lasterketetara ere.

Peter gizon lodikotea eta garaia zen, dirua barra-barra gastatzen zuen horietakoa. Aberatsa ematen zuen.

Urteak pasatu ziren, eta Pedro Marik gustura jarraitzen zuen Parisen bizitzen, Interpolen lan egiten Sarah Dupon zuen neskaekin.

Sarah oraingoan, duela lau urte New York-eko Metropolitan museoan lapurtutako Gertrude Stein Picassoren margo famatuaren desagerketa aztertzen zebilen. Kasua zaharra zen eta Interpolek ondorengo pista hauek zituen:

1. Lapurra gizona zen.
2. Lodikotea eta garaia zen.
3. Ameriketatik ihes egindakoa zen.
4. Erretratu robota bazuten.

Iluntzeko zazpiak ziren Parisen, Pedro Mari afaltzeko arraina prestatzen zegoen eta Sarah, Picassoren koadroaren lapurketaren fitxategiak birpasatzen zegoen erretratu robota alboan zuela. Handik ordu laurdenera, Pedro Mari joan zitzaionean afaria prest zegoela esatera, erretratu robota ikusi zuenean, ezaguna egin zitzaion aurpegi hura. Bere amaren maitalearen izugarrizko antza zuen gizon hark, eta, txantxetan Sarah-ri komentatu zion. Sarah-k ez zuen uste txorakeria hutsa zenik eta eskuartean zituen paper eta boligrafoz Pedro Marik esandakoaz informe bat osatu zuen. Interpolek zituen datuak eta Pedro Marik emandakoak ez zetozen bat, deskribapen fisikoan izan ezik

Hau ikusitakoan, bikoteak aste beterako amarenera joatea erabaki zuen. Han etorri ziren Sarah eta Pedro Mari aspaldiko partez oporrak pasatzera zetozela esanez. Sarah-k denbora nahikoa izan zuen Peter Collins ez zela Peter Collins ziurtatzeko, John Martin baizik. Metropolitan museoan lapurtutako artelanaren lapurra.

Hurrengo egunean, Peter Collins ez zenak zerbait arraroa sumatu zuen bere etxe aurrean jende ezezaguna ikusteaz batera.

Arineketan, eskailerak igo zituen eta ihes egiteko nahian, bere logelako ezkerreko leihotik salto egin zuen, baina zoritxarrez, lorategiko harri koxkor baten kontra kokoteko bat hartuz, bertan siku geratu zen, hilda.

Maritxuk orduan, bertan behera utzi ninduen, bakarrik. ONG batekin Afrikako erdialdera joan zen bizitza berri baten bila.

Gaur bere ilobek saldu egingo naute, zentro komertzial handi bat egiteko.

Triste nago, inork ere ez nau maite, baina, egun baten gizon baten ametsa izan nintzen.

Gontzal Alkorta Garai

Akzesita 13 –14 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

ZIORTZA TXERRIA

Bazen behin Zerriporki izena zuen herria. Familia hauek osatzen zuten: Ziortza, Esotzi, Txirrimirri eta Kaskamirri.

Ziortza oso triste zegoen ez zuelako lurra ezagutzen eta Txirrimirri galdetu zion nolakoa zen. Arratsaldean bere familiari esan zion eta ondo hartu zuten gurasoek.

Bi astetara planetara iritsi zen eta txizepozo batera jauzi zen kotxez.

- Non nago ni? –esan zuen txerrixoak.

Han lau txerrixo zeuden, eta esan zioten txizepozo batean zegoela, baina berak ez zekien zer zen.

Hortik bi astetara Miamira iritsi zen. Bertan mutil bat ezagutu zuen, Pako zuena izena. Pako oso atsegina zen, batez ere Ziortzarekin.

Ziortza handik bost egunera Pariseko txerri dantzaldira joan zen, eta dantzan hasi zen Mimiko txerriarekin. Bera maitemindu egin zen eta honek esan zion:

- Nahi ahal duzu nirekin ezkondu?

- Gog, gog, bai noski.

Mimikok etxera eraman zuen Ziortza, bere familia ezagutzera; baina Ziortzari ez zitzaion gustatu.

- Banoa hemendik! –esan zuen garrasika.

- Baina, Ziortza, ez nauzu bakarri utziko, ezta?

- Bai, utziko zaitut.

- Ez mesedez

- Banoa hemendik.

Ziortza, isil-isilik kotxea hartu, eta, Mongoliara joan zen. Hantxe San Martin eguna zen eta jende guztia Ziortzaren atzetik joan zen bera jateko. Baina animalia honek garraioa hartu eta Errusiako gaztelu batetara ailegatu zen.

- Nolako gaztelu polita! –esan zuen ederrarena eginez.

Bat batean gazteluko atea ireki eta Jainkoa agertu zen.

- Pasa zaitetz txerrixo! –esan zuen Jainkoak alai.

- Ongi da, banoa –esan zuen ilusioz.

Ziortza gazteluko logelarik politenera joan zen. Bitartean Jainkoa pentsakor zebilen bere logelan ez baitzekien zer egin animalia horrekin.

- Badakit, txerria harategira eramango dut.

- Zer esan duzu?

- Ezer ez.

Txerriak hortik aldegin zuen goiz batean eta bere lurraldera itzuli zen.

- Ama, hemen nago.

- Badakit hemen zaudela jolasean –esan zuen barrezka.

Txerritxoak jakin izan zuen amets bat zela eta pozik jarri zen.

- Esotzi, mesedez, ez joan lurra ezagutzera, agian suerte txarra emango dizu –
esan zuen penaz.

Hortik aurrera familia pozik eta alai bizi izan zen.

Itziar Salaberria Larrauri

Irabazlea 15 – 16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

IRAKURKETA MIRESGARRIA

1988ko uztailaren hasiera zen. Bero izugarria zegoen eta egun askotako lehortea. Jendea oporretarako ilusioz zegoen. Jadanik, asko Kanariar irletara, Balear irletara, Saloura... joana zen.

Jendea aurrera eta atzera zebilen bitartean, Mikel etxean zegoen, zer egin ez zekiela. Mikel, 16 urteko mutil gazte liraina zen. Begi urdin, ile hori eta ezpain sendoduna. Gainera, gorputz bikaina zuen. Neska ugari zituen atzetik, baina Mikelek ez zuen neskekin aritzeko nahirik.

Mikel bere gurasoekin bizi zen. Seme bakarra zen eta amaren aldeko aitonaren iloba kuttuna gainera. Bere aitona Andoni zuen izena. Honek 78 urte zituen, nahiz eta 60 bat eman. Gizon prestua zen. Hau ere, oso ederra izandakoa zen gaztetan, eta oraindik ere, zuen adina izanda, bere xarma mantentzen zuen.

Mikel oso bakarrik sentitzen zen garai hartan, Bilbotik Bartzelonara bizitzera joatean lagun gabe aurkitzen baitzen, lagun bakarra bere aitona zelarik.

Andoni urte askotan bizi izan zen Bartzelonan bere lanak bultzaturik, eta Mikelen aita ere aitonaren moduan lana zela eta hiri hartara joateko beharrea aurkitu zen.

Uztailaren 6a heldu zen eta Mikel bere logelan zegoen zeharo aspertua, bere aitona logelan sartu zenean:

- Epa Mikel.
- Kaixo aitona... - esan zuen Mikelek ahots leunez.
- Hori duk aurpegia! Asperturik al hago?
- Bai, guztiz! Zer egin dezaket aitona?
- Begira, nik hire adina nuenean, askotan sentitzen ninduan zer egin ez nekiela.

Ba al dakik zer egiten nuen horrelako kasuetan?

- Zer aitona? Esan mesedez!
- Ba, abenturazko liburu bat hartu, eta horren kontakizunean kontzentratuz pasatzen nian denbora.

- Jo aitona! Hori bai aspergarria!

- Aspergarria? Begira, nik liburu bat utziko diat, baina ez pentsa edonolako liburua izango denik; liburu "magikoa" duk.

- Hala, hala aitona! Mesedez! Jadanik ez naiz ume bat, 17 urte beteko ditut aurten. Orain dela 10 urte beno, baina orain ez ditut txorakeria horiek sinesten -esan zuen Mikelek gaitzetsita.

- Ez dituk txorakeriak! -erantzun zion aitona guztiz konbentzituta. Begira, liburu hori irakurri ondoren irakurtzeko grina pizten bazaik, egia esan dudala esan nahi dik, eta irakurtzeak oraindik amorrua sortarazten badik, hik nahi dituan hiru gauza eskaiezazkidak.

- Nik nahi ditudanak? - Mikelek pozik.

- Bai, baina liburu osoa irakurri behar duk! Ulertu al duk?

- Bai aitona! Nahi duzunean hasiko naiz

Arratsalde hartan aitona liburuarekin agertu zen. Oso zaharkitua zegoen, eta orriek kolore horixka zuten. Mikelek liburua hartu eta bere hiru nahietan pentsatuz irakurtzen hasi zen:

*Munduan bazegoen oihan bat mapetan
kokatu gabe zegoena. Oso oihan ederra eta
handia zen, eta mota guztietako animaliak
zeuden bertan. Egun batean...*

...eta lokartu egin zen. Bere gorputza leku berean aurkitzen zen arren, arima kontakizunean sartua zuen.

Poliki-poliki itzartu eta oihan baten barrenean zegoela ohartu zen. Harriduraren harriduraz, geldik geratu zen, zer egin ez zekiela, bere ondoan zuen zuhaitzaren adarretatik suge bat zetorkiola konturatu zen arte. Korrika hasi zen eta sugea bere atzetik zetorrela ikustean abiadura arindu zuen. Harrigarria zen suge hark zuen abiadura. Mikel oso azkarra izan arren, sugeak lehenago edo beranduago harrapatuko zuen, gero eta distantzia txikiagoa baitzegoen bien artean.

Sugeak Mikel harrapatu behar zuenean zuhaitzetatik tximino bat agertu, eta Mikel besoetan hartu ondoren, oihanaren beste alde batera eraman zuen, eta zuhaitz baten gainean utzi. Mikel bakarrik utzi zuen eta, agertu zen bezalaxe, zuhaitz artetik desagertu zen.

Mikelek amets gaizto batean zegoela pentsatu zuen, baina itzartzeko egin zituen ahalegin guztiak alferrikakoak izan ziren. Inpotentzia handia sentitzen zuen eta, aspaldiko partez, negarrez hasi zen.

Bere tristuran murgildurik zegoela beste tximino bat agertu zen. Ez zen edonolako tximua, bazuen berezitasun handi bat: hitz egiten zekien.

Mikelengana hurbildu eta hau esan zion:

- Kaixo mutiko. Utzi negar egiteari eta kontaidazu gertatzen zaizuna.
- Hitz egiten dakizu! -Mikelek harrituta.

- Bai, hala da. Badakit oso arraroa gertatuko zaizula, baina... beno, gero azalduko dizut zergatik dudan ezaugarri hau. Orain, azaldu iezadazu zer egiten duzun.

- Begira, aitonak liburu bat eman dit irakurtzeko grina pizt iezadan. Horrela liburua irakurtzen hasi naiz, eta lokartu. Itzartu naizenean oihanaren erdian aurkitu naiz eta suge bat agertu zait. Arineketan hasi eta ia sugeak harrapatu nauenean... zazt! Zu bezalako tximu bat etorri eta hona ekarri nau.

- Beno, beno... betikoa da.

- Zer esan nahi duzu betikoa dela esatean?

- Badakit sinesgaitza gertatuko zaizula baina, irakurtzen ari zaren liburu horren istorioaren barnean zaude.

- Istorioaren barruan? Begira, niri interesatzen zaidan bakarria etxera itzultzea da. Liburu horren barnean nagoela egia baldin bada... mesedez, nola itzul naiteke etxera?

- Egin beharrekoa oso erraza da baina aldi berean oso arriskutsua. Badakizu oihan guztietan daudela lehoiak, baina leku honetan badago bat tximinoak hil eta jaten dituen. Benetan etxera itzuli nahi baduzu, lehoi hura hil beharko duzu –azaldu zion tximuak.

- Eta hiltzen ez badut?

- Hemen geldituko zara betiko eta ni bezalako tximu hiztuna bihurtuko zara.

- Zuri ere gauza bera gertatu al zitzazun, ba?

- Bai, baina nik ez nuen lehoia hil.

Mikelek zeukan ausardi guztia batu eta lehoiaren aurkako erasoak prestatzen hasi zen. Halako batean lehoia agertu eta borrokan hasi zen Mikelekin. Guda luze baten ondoren, Mikelek tximuak emandako lantza batekin hil zuen lehoia.

Tximu guztiak saltoka hasi ziren, eta Mikel heroi bihurtu zen. Tximua hurreratu eta zera esan zion:

- Oso adoretsua izan zara Mikel. Etxera bueltatu nahi baduzu, lo egin, eta itzartzean loak hartu zaituen tokian agertuko zara.

- Eskerrik asko denarengatik. Ez dakit zer egingo nukeen zu gabe –Mikelek, esker onez.

- Eskerrik asko zuri. Zugatik izan ez balitz lehoiaren beldurrez jarraitu beharko genukeen. Orain joan zaitez lasai –eta tximino guztiak aldendu ziren.

Mikelek tximuak agindutakoa egin eta berriz ere etxean agertu zen bere amaren ahotsa sentitu zuenean.

- Mikel! Ordua da mutil! Jadanik bazkaltzeko ordua da eta aitona ere gurekin dugu. Jantzi eta zatoz jatera!

Mikel korrika jaitsi zen eta aitonarengana zuzendu zen esanez:

- Aitona, irakurri dut liburua, eta arrazoa duzu, "magikoa" da! Baina... zergatik arriskatu duzu nire bizitza liburu horren barruan harrapatua izatera? –galdetu zuen serio.

- Ez huen arriskurik. Gertatutako guztia idatzita zegok, eta irakurlea beti onik ateratzen duk. Berrito ere irakurriz gero, gauza bera gertatuko zaik, eta ezagutu berri dituzuen izakiek ez haute ezagutuko –azaldu zuen-. Zer, piztu al zaik irakurtzeko gogoa?

- Bai aitona, batez ere liburu magikoak irakurtzeko gogoa.

- Pozten nauk. Orain goazak bazkaltzera, ama haserretu egingo zaiguk bestela.

Paule Sanchez Arieta-Araunabeña

Akzesita 15 – 16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

ITSASERTZEKO LAGUNA

Aspalditik ezagutzen dudan neska aparta da, eta ingurukoen konfidantza irabazia zeukan lehenengo egunetik.

Gelara etorri zen egun berean, bere begi urdinek gu sorgindu gintuzten. Bakoitzak bere burua aurkeztu zuen eta gero bera, zailtasun gabe agertu zen, egunero 30 pertsonen aurrean hitz egingo balu bezala.

Neska hark bere buruarekiko zuen konfidantza ikusita, berarengana hurbildu eta aurkezpen gehiago egin ordez, jendeak bere gauzak kontatzen zizkion betidanik ezagutuko balute bezala.

Bitartean, neure txokotik hura miresten nuen eta era berean goitik behera aztertzen. Bitxia zen, oso bitxia. Edertasun berezi bat zuen, ez zen telebistan agertzen ziren neska horien antzekoa, guztiz desberdina antzematen nuen. Bere aurpegiak iluntasuna desagertarazten duen eguzkia zirudien, bere eskuek uso zurien hego pareak, bere gorputza firin-faran dabilen haizearekin dantzan zegoen, oso pertsona alaia iruditu zitzaidan.

Etixeratzean, ezin nuen matematikako klasean eman genuena gogoratu, bere irudia agertzen zitzaidan edonon.

Han eta hemen ikusten nuen, beti ere jendeak inguratzen zuela. Irudi horrek barregura eta tristura sortarazten zizkidan. Barregura, kofesaleku batean sartua dagoen abade baten antza hartzen niolako eta tristura, bere barruko penak kontatzeko inor ez zuelako.

Hala eta guztiz ere, neskarengana hurbiltzeko adorerik ez nuen. Gainera, laguntza behar izanez gero eskatu egingo zuela iruditzen zitzaidan.

Ikasturtea aurrera zihoan eta jadanik udaberrian geunden.

Neska honek hilabeteetan zehar sekulako aldaketa eman zuen. Kolore biziz jantzen zen pertsona alai hura, kolore ilun eta hotzez jantzitako neska bilakatu zen.

Erabateko aldaketa hark zeharo harritu ninduen.

Nik pertsonak aztertzea gogoko dut eta bera ikustean autoestima lurretik zuela iruditu zitzaidan. Jendez inguratuta jarraitzen zuen, hala ere, ez zuen irribarrea galtzen. Halako batean, jendetza zabaldu eta nire aurrean ikusi nuen neska hura.

Sei hilabete zeramatzan nire gelan eta oraindik ez nuen berarekin hitz bat ere gurutzatu.

- Barkatu, zuk Jon duzu izena ezta?

- Bai, hala da. -ezin nuen sinestu, bera! Bera niri hitz egiten! Ezagutzen ninduen!

- Zurekin hitz egin behar dut. Gaur zazpietan kaian. -esan zidan.

“Ezinezkoa, ez dut berarekin sekula hitz egin eta ez naiz agertuko” pentsatu nuen.

Eguerdiko hamabiak ziren eta jadanik urduri nengoen.

Ordu batak; berdin.

Ordu bi eta erdietan; ezin egon.

Laurak; buruan mila burutazio bueltaka.

Seiak; ez noa... ez.

Zazpiak laurden gutxi; urduri nago, ez naiz heltzen.

Korrika nindoan eta zazpiak bost gutxitarako han, geratutako lekuan, nengoen.

Banku batean eseri eta nire urduritasunak bertatik pasatzen zen mutil bati zigarroa eskatzera behartu ninduen.

Zigarroa piztu eta hura erretzen nengoen bitartean, zertan ari naiz? Erretzen ni? Ez da etorriko, banao. Lasai, agertuko da,... Nire buruak momentu batetik bestera eztanda egin behar zuela iruditzen zitzaidan.

Minutu erdian sei aldiz begiratu nuen erlojua, zigarroa bukatu zitzaidan eta urduritasunagatik lur jotzera nindoan momentu berean neska agertu zen.

Soineko berde bat zeraman soinean eta ile beltza, haizearekin solasean, sorbalden gainean pausatzen zitzaion.

- Kaixo Jon!

- Kaixo! –erantzun nion ahots dardarti batez.

- Zatoz paseatzera!

Eskutik ebatu ninduen eserleku hartatik ipurdia jasoaraziz.

- Badakizu?

- Zer?

- Haitz hartan nengoen olatu batek itsasoaren sabelera eramango ninduen egunaren zai –esan zuen.

Nik ez nuen ezer ulertu.

Eserleku hotz batean geunden biok.

Bere begirada guztiz galdua zegoela iruditu zitzaidan, baina ez zen horrela. Begi urdinak eguzkira zuzenduta zituen, eguzkiaren edertasunak liluratua baitzuen.

Itsasoa bare zegoen eta, sarritan bezala, olatuek hondartzan zeuden are aleak ureztatzen zituzten noizbehinka. Urrunean, emazteak lehorrean utzitako marinelen itsasontzi bat zihoan.

Eguna benetan berezia zen.

Ilunabar ikusgarria zen. Hondartzako pasealekuan zeuden eserleku jarri berrietako batean eserita, ortzera begira, bakoitza bere munduan guztiz murgilduta geunden.

Denborak aurrera egin zuen eta nire lagunak esandako esaldi hura zebilkidan buruan tximeleta balitz bezala, ideia guztiak nahasten. Galdera ugari nituen, baina nola ausart nintekeen pertsona hura bere ametsetatik edonola esnatzen?

Ezin nuen gehiago jasan, jakin-minak tripak jaten zizkidan. Beraz, arnasa hartu eta erantzungo ninduen itxaropenarekin zera galdetu nion:

- Barkatu, baina, zer esan nahi zenidan esaldi hura aipatzean?

Ez zidan erantzun, ezta begiratu ere. Geldi-geldi zegoen, seguruenik, bere baitan nonbait galdua.

Ez dakit nola demontre, nire begiak ixten joango balira bezala sentitu nituen.

Lo nengoen ala ez?

Ez nekien ziur, ametsa hastera zihoan edo begiak zabaltzean laguna horizontera begira ikusiko ote nuen. Horregatik, begiak itxita uztea erabaki nuen. Urrunean ahots bat entzuten nuen baina, amets haietan gertatuko zena erakargarriagoa iruditu zitzaidan.

Laino artean bezala sentitzen nintzen eta bat batean kolpe siku bat sentitu nuen besoan.

Ez nion jaramonik egin dei hari, paradisuan sentitzen nintzen, kotoizko bola erraldoi haien artean.

Begiak zabaltzeko ordua iritsi zen. Han, nire ondoan, ez nuen inor ikusi.

- O! Ez!

Kartazal bat zegoen, honela esaten zuen:

Berezia zinela uste nuen.

Zurekin hitz egitean, barruan gordetako samin guztiak askatzea pentsatua neukan.

Ziur nago, zuk ere berezitzat zenuela zeure burua. Hala ere, oso erraza da norberaren burua engainatzea. Hala eta guztiz ere, ingurukoak denbora luzez engainatuta mantentzea oso zaila da.

Ezin nuen sinestu irakurtzen ari nintzena. Haserreturik, etxera joan nintzen eta, gurasoak agurtu gabe, izendegian neska inozo haren telefonoa bilatzeari ekin nion.

Hantxe zegoen, neurearen azpian.

Deitu eta bere amari alaba etxean ote zegoen galdetu nion.

- Kaixo, Jon naiz. Alaba etxean al da?
- Bai, orain jarriko da.

Une hori gogoratzen dudan unerik luzeena izan zen.

- Kaixo, zer nahi duzu? –galdetu zidan ahots zakarrez.
- Ba... begira. Kartazalean idatzitakoaz nire iritzia ematearren deitzen dizut.
- Eta?
- Arrazoi osoa duzu. Berezia sentitzen nintzen, baina, mundu honetako guztiak artalde berekoak gara nahiz eta ardi beltzak ere banaka ageri.
- Zer esan nahi didazu horrekin? Nik berezitzat dudala neure burua?
- Bai, halaxe da. Baina, ez pentsa horrela denik. Gaur guztiok oso antzekoak garela azaldu didazu eta!
- Baina... –bere ahotsa intentsitatea galtzen zihoan. Edozein unetan negar egiten hasiko zela uste nuen. Beraz, lasaitzeko erregutu nion eta biharamunean toki berean hitzordua geneukala ere azpimarratu nion.

Gaua oso luze egin zitzaidan.

Biharamunean jaiki eta ordua heldu arte, zer eta nola esan pentsatzen aritu nintzen.

Neska kaian zegoen ni heldu orduko.

- Kaixo Jon! –agurtu ninduen ahots lotsatiz.
- Kaixo!
- Barkatu atzokoa. Ez nekien zer egin lo zeundela konturatu nintzenean.
- Ez du axola. Ni ere telefonoz pasatu egin nintzen.
- Sentitzen dut, benetan. Benetako lagun baten premia nuen eta zu aproposena zinelakoan nengoen. Konfunditu egin naizela ohartu naiz, beraz, agur. –neska altxatu eta bere soineko beltza aldean zeramala aldentzen ikusi zuen.

“Ezin nuen sinestu...” zioen ahots batek.

“... bakardadearen itzalak jarraitzen ninduen...” ezaguna egiten zitzaidan ahotsa.

“Itsasbazterrean nengoela, neure buruaz beste egitea pentsatu nuen...” Geroz eta ezagunagoa egiten zitzaidan ahotsa. Baina, norena zen?

“Ez nintzen neure burua itsasora botatzeko gai, beraz, haitz hartan nengoen olatu batek itsasoaren sabelera eramango ninduen egunaren zai”

Esaldi hura berriro!

Orduan ohartu nintzen neska haren hitzak buruan geratu zitzaizkidala ni lo geratu nintzen egun hartan. Sinesgaitza benetan!

Korrika ari nintzen neskaren atzetik.

- Barkatu, inozo hutsa izan naiz. Zure laguna izatea gustatuko litzaidake.
- Baina, zin egin ez garela sekula bananduko.
- Zin egiten dizut.

Hau duela urte asko gertatu zen. Hala eta guztiz ere, lagunak izaten jarraitzen dugu. Bera, ikasketa batzuk burutzen kanpoan da, baina astero idazten diogu elkarri eta oporretan munduko toki ezberdinak erakutsiko dizkidala zin egin dit.

Fernando Morillo Grande

Irabazlea 17 urtetik gorako sailean

BETIEREKOTASUNEZ

Urteak ziren. Urte asko, neurgaitzak kasik. Baina guzti horrek merezi izan zuen, beharrik! Merezi izan zuen. Azkenik ere... lortzeko zorian zegoen oraintxe. Arnasa sakonki hartu, eta aurrera ekin zion. Dena ala ezerrez, iritzi zion. Gerta ala gerta. Gehiegi zuen jokoan zalantza ziztrinekin hasteko. Dena, erabaki zuen, dena izan behar zen. Derrigorrez.

Azken osagaiak nahastu zituen, erlojua begiratu, eta zain geratu zen. *Grimoriumaren* arabera, minutu batzuk besterik ez ziren izango. Minutu batzuk gehiago, demontre! Haatik, hainbeste denbora igaro bazuen ere, honez gero, hau lortu nahian, une labur hauek amaitezinak iruditu zitzaizkion. Beste pixka bat, arren, pixka bat, besterik ez.

Lortu egin zuen.

Gelako horma oso bat goritu egin zen gorgarriki, suaren dantza erotuaz mozorrotuz une berean. Ez zen ordea hau, su arrunta, eta ez zuen garrarik atera, beste nonbaitetik zetorren, izendaezina den sakan ilunenetik, ausaz. Seguruenik. Horman itsatsirik balego mugitzen zen sua, zelatan antza, larderiatsu betiere bi dimentsio haietara zedarriturik. Horrelako zerbait itxaroten bazuen ere, gure laguna aho bete hortz geratu zen arras. Azken unean zalantzek eraso zioten. Aitzitik, muzin egin zien oldarki.

Igarobide beltz eta borobil bat zabaldu zen horman bat-batean gorgarri, eta bera ipurdiz erori zen atzera, alimaleko sustoaren ondoren. Hala ere, bere kikilkeria menperatu zuen berriro ere, irmoki. Ez zuen hutsik egingo. *Ezin* zuen hutsik egin. Ezin zuen. Heldua baitzen bere *benetako* ordua.

Irudi bat irten zen pasabidetik. Itxura liluragarria zuen, mirestu zuen, egiatan gorpuzkera aparta. Ezin izango zuen egoki deskribatu, hori ezinezkoa bailitzateke ziurrenik. Ilea *pizturik* zuen irudiak, gar erogarriez, baina ezin zuen baieztatu jantzirik ere zegoenik, hain zen jasangaitza bere presentzia. Eta zirrara hori areagotzeko, etorri berriaren begirada zegoen. Indar ikaragarria isurtzen zuen begi distiratsuetatik, den guztia azpiratzeko jaio izan bailitzan. Nor izango zen horrelako begirada bat eusteko gai? Galdetu zion alferrik bere buruari. Nork egin lezake? Inork ere ez. Ezta inork ere!

– Nork deitu nau? – egotzi zion irudi piztuak, bera bakarrik bazen ere gela osoan aurki zitekeen beste pertsona bakarra. Jolasean ala? – Nork deitu nau? – errepikatu zuen ozenkiago, besteak ez baitzion erantzuten.

– Nnn... nik. Nik. – maiseatu zuen ahal moduan besteak. Bere totalka hitz egite hori ez zen ez gutxiagorako.

– Hik. – ez zen galdera bat.

– Bai.

– Eta zertarako? Ba al dakik nor naizen?

– Nolabait... bai.

– Ba al dakik nor naizen? – errepikatu zion berriro.

– Bai.

– Ez dezagun orduan denborarik galdu.

Azkenean bai, lortu behar zuen. Gaztetatik izan zen bere obsesio arreena, kiskalgarriena, bizigarriena. Bere aita zerraldoan ikusi zuenetik, gogoratu zuen. Zurbila, zurruna, munduko edertasun guztietarako itsua; egunsenti gehiagorik ez gizaldi eta gizaldietan, ez irribarrerik, ez besarkadarik, ez... milioi bat urte eguzkia mendiak zeharkatzen ikusi gabe! Milioi bat milioi urte! Eta gehiago, ene, gehiago. Nork jasan zezakeen horrelakorik?

Hala eta guztiz ere, bazirudien bera besterik ez zela ohartzen, gela hotz eta negarti hartan. Beste guztiek tristura tankera bat agertzen zuten, hunkiturik beharbada, edo hala agertu nahi zuten bederen. Ama negar batean zegoen, gainontzeko hurbileko senideak antzera, goibeltasun ilun batean murgildurik. Baina ez zen hori. Ez. Ez zen hori bere arimaz jabetu zen sentipen higatzailea. Ez al zuten sumatzen bada, Dama Beltzaren soinekoaren fereka, limurtzaile bezain zarrastatzailea, barreneko hezur guzti-guztietan erroturik? Ez al zien bi huts mugagabeen arteko txinpartaren ezgauzak gogamena infinituki ohiltzen?

Balirudike ezetz. Berarentzat, alta, goitik beherako antzaldaketa suposatu zuen aitaren heriotzak. Begien irekitze bortitz bat, borroka lazgarrienerako zioa. Eta beldur izugarri, neurgaitz eta atergabea halaber.

Ikasten hasi zen, ero antzera, etsipenak ematen zion erabakitasunaz horniturik. Egon behar zuen bideren bat halabeharra nola edo hala saihestu ahal izateko. Egon behar zuen! Eta berak aurkituko zuen.

Ikas zitekeen dena ikasi zuen, eta gehiago ere. Pixkanaka, bidezidor bat irekiz joan zitzaion. Baziren hainbat bide, arriskutsuak, ezinbestean. Baina hori, bizitza serio hartzen duen edonorentzako ebidentea zen, hausnartu zuen, ezin baita borrokara joan dena gal daitekeen uste osorik gabe. Erantzukizun-gabetasun barkaezina litzateke.

Itsukeria hutsa. Ondiko handienetarako egon behar zuen prest, nahi zuena lortu nahi bazuen. Bera prest zegoen. Orain ziur zen. Orain behintzat bai.

Goi-*grimoriuma* lortu zuen, egin behar zena egin zuen, eta orain saria eskura zekusan. Berak imajina lezakeen saririk garaiena, berealdikoena, bikainena ; Heriotik itzurtzeko aukera! Hilezkortasuna!!

– Zein da hire eskaera? – jaulki zion agerpenak ahots burrunbatsuz.

– Hilezkortasuna jauna. – erantzun zion besteak ia arranditsuki. Bere nahiaren lorpen hurbilak ausarkeriaz blaitu zuen antza.

– Hilezkortasuna? Zertarako nahiko huke ba hik betiereko bizia?

– Hori nire gauza da jauna. Uste nuen hori eskaintzeko gai zinela. – ihardetsi zion apur bat kezkatu. Egin behar zen dena egin zuen. Orain ezin zion ukatu! Ezin zion ezetz esan, otoi!

– Horixe naizela gai, memeloa halakoa! Zer uste duk? –itxurazko amorru suminaldi batek hartu zuen, eta literalki su eztanda batean zartarazi zen, gela osoa argi jasangaitzaz gainezkatuz. Gure lagunak begiak ireki zituenean, denak berdin zirauela ohartu zen, baina horrelako indar erakustaldi baten ondoren, dardara geldiezin batean hasi zen.

– Barkatu jauna, barkatu. – eta irudiaren aurrean makurtu zen umiliaturik. – Nik... nik ezin hobeto zerbitzatu zaitut hainbat urtetan. Uste nuen... uste nuen hori eska niezazukeela.

– Mmm... – murmurikatu zuen agerpenak. – Egia da bai, ondo zerbitzatu nauk. Badakik? Hire eskaera onartuko diat. Bai, hilezkor egingo haut. Tipo jatorra naizelako, gero.

– Benetan? – eta bere begiak itxaropenaz urpetu ziren.

– Nik ez diat gezurrik esaten! – oihukatu zuen berriro trumoi antzera.

– Noski, noski.

– Zehaztapen txiki bat. Hilezkortasuna *heureganatzeko*, lehen hil egin behar duk.

– Zer? – galdetu zuen mesfidati. Zertan ari zen ordea? Bazekien bere aurreko agerpen hura ironiaren maisua zela. Adar joka ari ote zitzaion?

– Esan diat nik ez diodala gezurrik. Ez duk txantxa. Heuk ikusi nola egiten duan heure buruaz beste.

– Neure buruaz... beste... egin?

– Bai. Behin hil eta gero, hirugarren egunean piztu egingo hintzateke, berriro "*sekula sekulorum*" ez hiltzeko.

– Hirugarren egunean? Baina hori... hori ez al da...?
– Ez huen ba pentsatuko lehenengoa hi hintzenik, ez da hala? – moztu zion besteak.

– Ez ez. Bakarrik...

– Zer? – bota zion zakarki.

– Beno, deus ez.

– Hori dugu guztia beraz?

– Bai. – Zer erremedio. Ez zen beste ezer esatera ausartu.

– Orduan, badakik zer egin behar duan. *Heldu horri!* – oihukatu zion, airean desagertzen zen bitartean. Gure lagunak gorde zuen irudiaren azken oroimena, irkaitz bitxi bat izan zen, nolabaiteko irribarre maltzurra. Haatik, beste gauza garrantzitsuagoak zituen orain buruan. Hilezkorra izango zen! Beste pixka bat. Pixka bat bakarrik.

Pozoina aukeratu zuen. Tiroz edo labarren batetik salto egiteari bortitzegia iritzi zion bere izaera baketsurako.

Lagun gutxi agertu ziren hiletara. Ezin izango zituzkeen egiazki gehiago espero, bere biziak bakartia kontutan izanik. Ez zen ezer aipatzekorik gertatu; pare bat malko, pare bat hitz. Eta etxera.

Hirugarren egunean, ikaragarriko konbultsioak jota, esnatu egin zen, esnatu ere. Hasiera batean, itotzen ari zen sentsazio lazarria izan zuen gainean, arnasik ezin bereganaturik, eta non zegoen asmatu ezinik bere zorabioan. Segundo luze batzuk igaro ostean, alabaina, gogoratu zuen. Hilezkortasuna. Hilezkortasuna! Barre egin zuen. Berririo egin zuen barre pozarren. Betiko biziak. Betiko! Ez zuen ez inoiz hain barre alairik egin.

Eta ez zuen inoiz gehiago egingo.

Zerraldoaren barruan aurkitu zuen bere burua. Klaustrofobiako atake mutiri baten ondoren, norbaitek (inoiz badare) entzungo ziola uste nahi izan zuen, bere burua lasaitu nahi izan zuen. Denbora zuen horretarako, ez? Ez? Kolpeka hasi zitzaion zerraldoaren estalki sendoari ordea, ero moduan. *Bada norbait? Norbaitek entzuten al du? Arren, arren!! Oso ilun dago. Oso. Ireki! Ireki atea!*

Hilezkortasuna, maiseatzen zuen tarteka izaturiko begiradaz, *hilezkortasuna*. Bere beldurra areagotzen zihoan denborak aurrera egin ahala. Izan ere, bere gorputza (gorpua ia), jan ezean, mugaraino ahuldurik zen, eta minak eta itolarriak goraka ari zitzaion. Min ikaragarria, berebizikoa, amaigabea. Hilezkorra. Hilezkorra!

Negar egin zuen orduan, ironia beltzez gainezkaturiko negar pattala, indargea.

Orain, hainbeste desiratu izan zuen betierekotasun osoa zuen bere burua
madarikatzeko. Eternitate sorta bat berarentzako bakarrik, eternitate guztiak. Eta
bitartean, garai batean hainbeste izutu zuen horretan pentsatzeko astia, orain hainbeste
irrikatzen zuen horretan. Heriotzaren misterioa, berak orain ezagutu ezin izango zuen
atseden eternoan mugitzeko ahala. Heriotza, heriotza...! Herioa... ...hotza. Hotza. Gaua.
Mina. Betiko. Betiko! *Ireki atea, arren! Ireki...!*

Aintzane Agirrebeña Ubera

Akzesita 17 urtetik gorako sailean

MAKALETIK MADARIKATURAKO TRANTSIZIOA

Hamaika pauso triste egina naiz ni. Nire bizitzako unerik zailenak izan nituen haiek. Ez zen eguzkirik irteten niretzat eta hodei ilunek kaleak iluntasun likits batez horditzen zituzten. Mundua gero eta estuagoa egiten zitzaidan; jada, ez nintzen bizitzaren pasabide estuan barrena kabitzen. Hainbeste estutzen ninduen non ez bainuen arnasa hartzeko betarik izaten eta ito beharrea nengil. (Beno ez dezadan larregi exajeratu...) Etxeko arazoak gutxi bailiren, uztar-lagunak "ondo bizi" esanda aldegin zidan eta eskolan ez nuen ia bat bera ere gainditzen. Nire zerupeko unerik zailenak izan nituen haiek. Sasitik irten orduko lar tartean sartzen nintzen. (E! Zu! Irri bat atera zaizu! Ba, ez pentsa, ez zen nire errua nota txarrak ateratzea, irakasleek gorrotatu egiten nindutelako zen dena...)

Nik deskuidu txiki bat egiteko zain egoten ziren haiek, eta uste gutxien nuenean, denen aurrean lotsagarri uzten ninduten. Nik ezer gutxi egin orduko, begirada zitalak zuzentzen zizkidaten. Ondoren etortzen zena, halaber, ez zen atseginagoa izaten; behin eta berriz errepikatzen zitzaidan amets gaizto hura. Haien ezpainetan osatzen zen "ZU!" beldurgarriak eztarria korapilatzen zidan. "ZU KALERA!" ozena zetorkidan behin eta berriz. Bigarren ilarako mahaian eserita egon arren, ate aldera ematen nuen pauso bakoitzeko nire mundu txiki hartako pieza bat erortzen zitzaidan lurrera, dena puzzle hauskor bat izango balitz bezala. Buru makur irteten nintzen, baina horrek ez zidan besteek nire kontura egindako trufa isila sentitzea eragozten. Ikasle txarra nintzela zioten, baina inoiz ez zidaten aukerarik eman. Eta nire pauso isilak korridoreetan barrena mugitzen ziren, atzean geratutako ikasleen barre eta ziriei jaramon zipitzik ere egin gabe.

Ikastolan neu nintzen azkeneko mamu gorria;ez nuen lagunik izan sekula eta eskola berrira pasatu nintzenean okerrago izan zen. Ikusi bezain laster, gelakide guztiek ezkerreko begiz hartu ninduten (nik ere ezin nituen haiek jasan, baina ni bat nintzen eta haiek asko). Makinatxo bat bider joana naiz etxera ubelunez belztuta, baita odolez makilaturik ere. (Noski, makilaturik edo margoturik ez dakit, baina, makilakadak hartuta bai behintzat). Gurasoek, honen aurrean, ez zuten ez mutik ez zirkinik egiten. Horiek haurren arteko "adineko borrokatxoak" zirela esan ohi zuten eta ez ziren ohartu nire estuasunaz, egin nuena jazo zitzaien arte. Ordura arte sarri jaso ohi nituen bezalako jipoi bat kobratu ondoren, etxera joan eta inor ez zegoela ikustean, aiztoa hartu nuen eskuartean. Inoiz ez dut berriz halako esperientziarik izan. Bihotzaren taupadak gorputzeko kokagune bakoitzean nabari nituen baina gehien eskumuturrean. Aiztoa

bertara zuzendu nuen zainak mozteko asmoz baina ez neukan indarrik eta eskuetatik ihes egin zidan. Izerdi patsetan nengoen eta zer egin ez nekiela, amaren logelara joan eta kaxoitik zapi ilun bat hartu nuen, begiak estaltzeko. Bigarren aldiz saiatu nintzen, zapia begien inguruan nuelarik, izua aldenduko zitzaidalakoan, baina, ez zen hala izan. Gurasoen urratsak entzun nituenean bakarrik erreakzionatu nuen. Eskua dardaraz hasi zitzaidan eta begirada lanbrotuak ez zidan eskumuturra erakutsi nahi. Itsu-itsuan, jesus amen esan orduko, zast! zainak ebaki nituen. Normala denez, ez dut ezer gehiago gogoratzen, anbulantzia zaratatsua izan ezik, irudirik gabeko formak.

Erizaindegian itzartu eta nire gelakide guztiak bertan ikusteak, bihotzari salto bat eragin zion, aurpegia zeharo aldatuz. Gelakide guztien begiradak ni nentzan oherantz zuzentzen ziren eta behingoz, denen arreta neureganatzea lortu nuen. Errukiz begiratzen zidaten eta nik, bitartean nire –aspaldidanik entseiatu gabeko– irrifarrik zabalena eskaintzen nien. Lau horma zuri haien artean egoteak ez ninduen batere alaitzen are gutxiago kable eta makina haiek inguruan nituelarik. Egunak eta gauak igarotzen nituen egindakoaren azterketa sakona egiten, buruan mareatu arteko jira-birak emanez. Egoera hura ezingo nuela gainditu iruditzen zitzaidan, eta lotsa sentitzen nuen nire gurasoen aurrean. Baina mundua buru gainera eroriko zitzaidala uste nuenean Mirari agertu zitzaidan. ("Nor da Mirari hori?" pentsatuko duzue...) Ba... Mirari erizaindegiko gelakidetzat nuen Imanolen arreba zen, ordura arte inoiz ikusitako pertsonarik alai eta biziena. Egunero-egunero bere presentziaz betetzen zigun gela, piper,gatz eta azukre nahasketa bat hedatuz gelaren azalera osoan. Lehenengo aldiz ikusi nuenean, mututurik gelditu nintzen, ahoa memelo baten antzera zabal-zabalik nuela. Bere begietan zuen bizipoza kutsakorra zen; irrifar goxoak gaztetu egiten zion eguzkiaren distira bezainbesteko argia isurtzen zuen aurpegi alaia. Anaia loak hartzen zuenean, bere ondoan egoten zen liburu bat irakurtzen. Orduak eta orduak pasatzen nituen, konturatu ere egin gabe, bere mugimenduak aztertzen, zer esan jakin gabe. Goizetan, Mirari ikusteko irrikiak goizago esnarazten ninduen. Imanolengandik jakin ahal izan nuenez, Mirarik ez zuen senargairik, eta nire buruak beregana nola hurbildu beste arazorik ez zerabilen, bere gogameneko igarobideetan barrena. Azkenean heldu zitzaidan aukera: bere urtebetetze eguna zela eta erizaindegiko lorategitik ostutako loreak eskaini nizkion, lau arrosa gorri. Bai zoriontsu egin ninduela eskertzeko eman zidan musu hark! Bizitza berri bati ekingo niola sinestu nuen bete-betean. Hurrengo egunean, Mirari erizaindegira iritsi aurretik berriz lorategira ihes egin nuen hain gogoko zituen arrosa gehiagoren bila, ordainez beste musuren bat jasoko nuen esperoan. Baina bizitzak nahi duenean petrala

izaten ere badaki eta... Itzalean nengoen bitartean etorri zen Mirari, baina ez zetorren bakarrik, motorrean zekarren mutil batek. Mirariren barre algarak iristen ziren nire entzumenetara, beti bezain alai, eta baita bere ahots leuna ere, beti bezain goxoa, txoriei buruzko hizketaldian. Belarriak zorrotzu nituen orduan, bere bizitzaz zertxobait gehiago ikastekotan, eta gutxien espero nuena jazo zen. Nitaz hitz egiten ari zen larruzko txaketaz jantzitako tipo harekin! Mirariren algarak nire kontura eginikoak ziren, lumatu gabeko txorikumeak loreak oparitu zizkiola eta! Mirari bakar bat gertatu zait bizitza nekagarri honetan eta bera ustelduta zegoen barrualdetik.

Orduak eta orduak pasa behar izan nituen nire barneko tristura guztiak kanporatzeko eta azkenik, heldu zen berriz etxera itzultzeko garaia.

Zuriz mozorrotutako etxe izugarri hartatik atera nintzenerako, dena bere normaltasunera itzulia zegoen. Gelakideek jarrera berbera azaltzen zuten nirekiko nahiz eta lagunak bat edo beste hurbildu galdera batzuk egitearren. Jakin nuen, derrigortuta joanak zirela ni bisitatza eta barre egiten zidaten ni ikustearren joan zirela uste izateagatik. Indartsuenek ni jipoitzen segitzen zuten eta ni ez nintzen haien sakeak errestatzeko gai (bazirudien denek Mikel Gonik besteko abiadura eta indarra zutela sakea ateratzerakoan). Gurasoek, berriz, ildo beretik jarraitzen zuten, lehengo lepotik zuten burua. Hobeto zaintzen nindutela uste zuten, baina dena lehen bezala zegoen.

Egun batez, bizikletaz eskolara nindoan batean, bigarren mailako ume bat parean gurutzatu zitzaidan, eta istripua ezinbestekoa izan zen. Aurpegiaz lurra jo eta sudurretik odola zerion. Zer egin ez nekiela gelditu nintzen. Bitartean, txikia masailak lehertu beharrean negarrez ari zen. Ni jipoitzen ninduteneko irudia etortzen zitzaidan behin eta berriro burura. Zenbat ukabilkada, zenbat ostiko hartu behar izan nituen isil-isilik, umekeriak zirela eta. Nire sudurrak ederto zenbatuak zituen gelako liskar altxatzaile haiek atzaparretan zenbat hatz zeuzkaten. Barrena irakiten jarri zitzaidan. Lehenengo ostikoa eman nionean ez nintzen konturatu zertan ari nintzen, bere lagunak garrasika hasi ziren arte. Ingurura begiratu eta beldurra ikusi nien ume haiei begiratuan. Han ez zegoen iseka eta barrerik. Ni nintzen han indartsuena eta hori gustuko nuen. Bigarren ostikoa, nire hezurak mami bihurtu arte jipoitzen ninduten haientzat izan zen; nire gurasoentzat, behin eta berriz zigortzen ninduten irakasleentzat... Hiruzpalau ostiko gehiago eman nizkion, nagusiak gerturatzeko hasi ziren arte.

Egindakoagatik ez nuen atarramendu txarrik jasan behar izan. Erraz libratu nintzen zigorrik jaso gabe, baina ez zen hala gertatu nire barruan piztu zitzaidan irriki berri harekin. Su hark, barrena irakiten jarri eta indar berri batez betetzen zidan

gorputzean sentitzen nuen hutsunea. Nire menpekoak zeintzuk ziren bereizten bai azkar ikasi nuela! Oilo busti haien begietan ikusten nuen beldurrak eta euren negar barregarriek nire barneko arrangura errotuari ura irrigatzen zioten, gorroto itsu bihurtu arte. Haien izuaz elikatzen nintzen. Izu-ikara sakratuaren aurrean hazi egiten nintzen.

Ez zen hilabete bat pasatuko, eskolan zegoen "makarra" tankerako mutil anker hura droga eskainiz etorri zitzaidanean. Entzuna zuen ematen zizkidaten jipoien berri, baita nik eginiko ekintzen berri ere. Tipo hark, ondo baino hobeto zekien ezingo niola hauts zurixka hari uko egin. Mundu hilkorri ihes egingo niolakoan, egunero-egunero erosten nion sobretxo bat, gutxienez. Alderatzen zenean, nire eginkizunetan jarraitzen nuen. Inork ez zuen ezer susmatu.

Gero eta zorrotzagoa nintzen jendearekin eta nire jenioa biziagotu egin zen. Hasieran, dirua behar nuenean gurasoei lapurtzen nien baina gerora, diru eskaera emendatzean, beste diru iturri batzuk aurkitu nituen, izan ere, munduan makal ugari baitago. Biderik errazena banketxetik irteten ziren aiton-amonak izaten ziren; konturatu orduko haien karteren jabe egiten nintzen.

Unibertsitateko lehenengo egunetan gelakide guztiak aztertzen aritu nintzen. Bat edo beste liskar altxatzaileak baziren ere, jadanik era horretako asunek ez zidaten hazkurarik ematen. Txikitako makal planta hura atzean utzi nuenetik, jendearen begirada nigana zuzentzen zenean apalagoa izaten zen. Birritan pentsatu behar izaten zuten niri hitz erditxo bat zuzendu aurretik; nire larruzko jakako ezkerreko sakelan eramaten nuen hamazazpi zentimetrotako labana ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula. Nire gainontzeko itxura ere itzela zen: kaskarra zerora moztuta, nire zaharraren bihotzaren kaltetan bi belarritako eskuineko belarrian eta beste bi sudurrean eta, nola ez, kendu ere egiten ez nituen koadrodun prakak. Unibertsitateko pasilloetan ibiltzen nintzen istilu bila, liskar altxatzaile bihurtu nintzen neu ere. Niretzat lanean jarri nituen zenbait kankailu; hain zen erraza haiei nire aginduak betearaztea... Nire oinaze guztia barneraturik, lege guztiak irensteko prest, bizitzari iseka eginaz bizitzea nuen jomuga.

Horrezaz gain, dena ondo zihoakidan, droga pasatzen zidanak istripu bat izan zuen arte. Auto batek jo eta hila suertatu zen. Ezin nintzen nire droga gabe gelditu eta hau uzteak eragina izan zuen nigan. Okerrena eragin hau ez zela onerako izan. Hasieran infernuko suaz gorituta nuen bihotza eta baita gorputza ere. Drogaren menpekotasuna gainditu nuenean, jendeari min egiteko grina hedatu egin zen nire burmuinean. Zuzendariak nire ibileren berri entzun zuenean, bere bulegora deitu eta Unibertsitatean ni bezalakorik ez zutela onartzen esan ondoren pasaporte eman zidan, delinkuente soila

izango banintz bezala... bulego bat izateak ni baino boteretsuago egiten zuelakoan... Hurrengo astean zakarrontzian istripuz eroritako zigarro lipar batek su hartu eta bulego dotorea kiskali zitzaionean apika ez zuen berdin pentsatuko; ez eta bere Renault beltza beste kolore batzuen konbinaketaz apaindu nionean. Ondo baino hobeto jakinarazi nion nor nintzen ni.

Etorkizunaren lokarria galdurik, gizatasunik gabeko presentzia bihurtu nintzen. Etxe huts zaharkitu batera alde egin nuen, nire zaharren aurpegi luzeak berriz ikusi beharrik ez izateko. Nazkatuta nengoen haien betiereko kexuekin, haien beranduko arduratu itxura hutsalekin eta jadanik haien jarduna gehiago entzun beharrik ez nuenez, etxeko bazterretan aurkitutako diru eta baliozko objektu guztiak eraman nituen neurekin.

Denboraren poderioz, nire makurkeriak gero eta ausartagoak egiten ziren. Egin ahalak egin arren, ez ninduten inoiz harrapatzen eta gero eta indartsuago sentitzen nuen neure burua. Merke saltzen nuen nik bititza. Eskolako umeei drogak saltzeari ere ekin nion eta gainera, berdin izaten zitzaidan haien adina, nik ongi ezagutzen bainuen krudela izateak ez duela adinik; niretzat, objektuak besterik ez ziren deabrutxo haiek. Erruki hitza nire hiztegitik ezabatua nuen aspalditik. Dendetan lapurretan egitera behartzen nituen aitaxoren umetxoak eta behin baino gehiagotan salatu nituen hartan ari zirela, gizon handi haien ohore puztua nola husten zen ikusteko. Haietako bat izan zen nire irakasle ohi baten semea: irrati bat osten harrapatu zuten eta etxean, bereak ez ziren beste hainbat gauza aurkitu zizkieten. Mendekua garratza izan ohi da; historiako irakaslearentzat bederen istorio tamalgarria, larrutik nozitu baitzituen hark lotsa eta porrota.

Lapurtu, haurrak zauritu, drogak saldu... zer ez ote nuen egin? Baina niretzat ez zen aski. Legearen muga guztiak zeharkatu nahi nituen. Legearen muga guztiak hautsi nahi nituen, hauen esparrua zabaldu. Zikilu saltsa besterik ez ziren izan ordura artekoak. Sena joanda bezala nengoen, begiak erne, zerbaiten zai. Eta azkenean zeruaren erantzuna izango balitz bezala iritsi zitzaidan zerbait hori. Gau batez, ardoak itzala egiten zidan batean, trenbidean zehar aurrez betetakoa hustera abiatu nintzen, han inguruan paseatzen zebilen emakumeak ezagutu egingo ninduela aurrez susmatu gabe. Gelditu eta arreta handiz begira-begira egon ondoren, garrasika hasi zen inguruko jendeari laguntza eskatuz. Nik, badaezpada, hanka jokoak erakutsi nion, ez bainintzen ezkerreko sakelari gorderik nuen labana ateratzeko gai sentitzen. Baina emakume setatia ez zegoen ni joatearen alde eta nire atzetik segika zetorren, itzal ilun baten antzera. Trenbidetik irten nintzen errepidea gurutzatuz. Mirakulua izan zen une horretan nigana zuzen-zuzen

zetorren autobusak ni ez zapaltzea; berak ez zuen zorte bera izan, ordea. Herioren, igitaidun zaharraren, itzal hotza, atzean, hain gertutik sentitzea bizigarria egin zitzaidan; ni hilezkorra nintzelako burutazioa sortu zitzaidan kaskezurrean.

Nire larruzko txaketa beltzeko poltsikoan pistola erabiltzen hasi nintzen, pistolak hamazazpi zentimetrotako labanak baino errespetu handiagoa ematen baitu. Nire ausardia amaigabea zen; sarri ateratzen nuen pistola. Besteen beldurraz elikatzeaz gozatzen nuen, drakularen antzera, haien odola edanez... Jendearen aurpegikeretan marrazten zen izuak boteretsu egiten ninduen, eta azkenean nire handiusteak galdu ninduen. Tabernari bat garbitu nuen bezero guztien aurrean, oihu eta garrasi artean. Azkarra nintzela uste izan nuen, nire pistola indartsua zela, baina ertzainen eskuetan erori nintzen, atxilotu egin ninduten; argia nintzela uste izan nuen, baina juezak hogeituroteko kartzela zigorra ezarri zidan; indartsua nintzela uste izan nuen baina kartzelan pairatutako torturek bizitzaren gogortasunak ni ere barne hartzen ninduela erakutsi zidan.

Hamar urte pasa nituen ilunpetan, eguzkiaren argia berriz ikusi orduko. Pareta beltz haien orroa mutua, haien irudi zehatza, nire erraietan gelditu zen betiko itsatsirik; hasiera-hasieratik argi utzi zidaten han indartsuena ni ez nintzena. Bizitzaren mugak ebidentziaren aurrean ikusten dira, eta kartzelak erakutsi zidan iheskortasuna zela nire izatearen funtsa. Izerdi hotzez, lau paretei loturik, gatibuan igaro nuen hamar urte haietako egun bakoitza.

Oso mantso joan ziren urte haiek niretzat, baina irten nintzenerako, jendea kaltetzeko gogoak ospa egina zidan. Berrero kartzelara joatearen ideia ez zen batere tentagarria eta bizitza berri bat eratu nahi nuen, nire burua kausitu. Baina nire bizitzaren kausetik jauzi batez irtetea nahi izan banuen ere, kanean, denek, aurpegikera arraroz begiratzen ninduten, urteetako Sufrimenduaren kiratsa nire gorputzari atxikirik balego bezala. Ezkontza kontuak ere erabili nituen buruan jiraka, baina, nor ezkonduko zen ni bezalako tipo nardagarri batekin? Mundu gizatiar soilak mundu ilunaren sakonera baztertzen ninduen. Bestalde, ideia honek hotzikara sortu eta zeharo tristatzen ninduenez, Ameriketara etortzea erabaki nuen.

Bakar-bakarrik bizi izan nituen ondorengo hogeituroteak, mendiko etxola zaharkitu batean, lurreko arazoez at, naturaren putzu sakonean nire zatiezinezko sumina ito nahian, nire burua aurkitu nahian, nire mundu hutsala galdutako paraje hartan ezkutatu nahian. Hasieran pozik bizi nintzen inoren kexuak entzun gabe, baina asper-asper egin nintzen etxolako isiltasunaz eta nire barnean ernaldutako harraren kurruskak entzuteaz.

Bakardadearen bakardadeak eraginda noraezean nenbilen, tristura eta sufrimenduak goitikatu nahian. Jadanik jasangaitza egin zitzaidan isiltasunean murgildutako isiltasunak oihukatutako hitz isilak, isiltasunean galdutako zurrumurruak...

Gabean ez ninduen loak hartzen. Hain zen handia nahiaren oinazea... Honen aurrean hiriratzea pentsatu nuen eta hemen ikusten nauzue zaharren egoitza horietako batean (beno, ez nauzue ikusten baina imajina nazakezue, ezta?).

Ez da arrunta izan ohi hain gazterik egoitza batean egotea, baina inork ez zidan ezetzik eman eta nire zerupeko aldi kaxkarrari azken puntua bertan jarriko niola erabaki nuen. Orain badakit bizi eder bat alferrik galdu dudala. Hala ere, nik honela bukatzea beste batzuen errua izan da nirea baino gehiago, egin dudan guztia burutzeraz ingurukoek bultzatu bainaute. Nork daki, apika, guraso ezberdinak izan banitu munduko gizakirik zoriontsuena izango nintekeen. Agian... hau ez da ustea besterik (Usteak erdi ustel), baina nire bizitza irtenbide bakarreko pasabidea izan da eta ez dut beste ezein ihesbiderekin topo egin. Nork alda dezake patua?

Egoera honi aurre egiteko kemena izan beharko dut gelditzen zaizkidan urte apurretan. Inorengatik zapata gutxi urratu baditut ere, hemen lagunen bat egitea espero dut, neure azken finean lagunak izan ditudalako poztasun izpi batekin hil nadin.

Bertso Paperak

Iñigo Igartza Olabarri

Akzesita 13 – 14 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

BERTSOAK

Dirua ez da ona
kendu nahi digute
txuleta eder on bat
diru honen truke
janari hobea dela
jakingo balute
diru multzo guzti hau
hartu alko nuke

Lagunekin nabil ni
beti ni gustora
Durangoko kaletik
bera eta gora
erosten galtzen dugu
nahiko denbora
azkenean etxera
bihar be kanpora

Durangoko kaletan
dago zalaparta
horra joaten dena
beti da ausarta
inoiz ez duzu izango
lagun baten falta
beti ateratzeko
kristoren zarata

Lagunekin nabil ni
nolako itxura
ez dugu inork hartzen
batere ardura
beti ibiltzen gara
nahi dugun modura
barrezka ibiltzen gara
lagunen kontura

Txomin Magdalena Arriaga

Irabazlea 15 –16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

GAU BATEAN IKUSITAKOA

Aulki batean eserita gauz
hori omen da o(ra)in moda
gauero hemen jubilatuz lez
arin pasatzen denbora
eskumaldean kotxeak barra
ezkerrean hainbat lora
relajatzeko gaba hau dugu
yoga baino askoz hoba

Aurreko bide huts horretatik
badoa txakur nomada
ta ezkerreko zabor hoietan
egin duela parada
basura jaten edo usaintzen
gogoz hartu du patxada
bizitza hontan bizidun denok
nomadak gara beharbada

Txakurra joan eta paretik
bikote zahartxo bat dela
eskuak elkar helduta eta
amodio berri bezela
odol beroa dutenez gero
bizitza nahia itzela
oraindik ere ez dute moztu
maitasunaren kordela

Bizitza iturri ondo-ondotik
atsoa joan da bakarti
gaztetasuna pasa du eta
gozatu izan du beti
heriotzaren atean dago
aurkitzen da txit beldurti
eta iturri horren ondoan
azken malkoa du jaurti

KLASERA BUELTA

Bihar klasea dadukagula
ahaztutzeko ahalegina
nere burmuina despejatzeko
handia dut zeregina
klasera joan behar horrexek
ematen didala mina
berriro ere bueltatu zaigu
urte osoko rutina

EUSKERA

Gure hizkuntzak jaso izan dauz
makina bat zapalkuntza
eta oraintxe gainean dago
euskeraren normalkuntza
batzuk diote zatarrak dela
ez du sortzen konfiantza
izanen da gure hizkuntza
betetzen du bizi funtsa
oraintxe denok hasi behar dugu
euskeraren eraikuntza
etorkizuna geurea denez
euskeraz jo ta su mintza

BASERRIA

Baserritarrek Euskal Herriko
kultura dute ezarri
mundu zabal hau mantendu behar
da
hori pentsatzen dut sarri
lan asko eginez sortu dituzte
larreetan hainbat herri
baserria beti izan dalako
gure arbasoen oinarri

Baserria da Euskal Herriko
hirien aurrekaria
gure kulturaren zati handi bat
duela da nabaria
batzuen planak zabaltzen dute
baserritarren zauria
baserri danak deuseztu nahia
hori bai krudelkeria

Erlantz Kortabitarte Agirrezabal

Akzesita 15 – 16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

GURE NATURA

Azkenaldian ekologian
daukat jarria begia
natura oso gaizki dagola
guztiz dalako egia
denborarekin bihurtu baita
mundua zikinegia
ta beraz zaindu dezagun denok
betirako ekologia

Oraintxe ere hainbat proiektu
ari direla egiten
Abiadura Handiko Trenak
nahi dituzte hasi jartzen
ta horrexek bihotzean niri
izugarri mina ematen
mendi ta baso eder guztiak
baitituzte zeharkatzen

Bizi honetan egin ditugu
mordoxka bat asmakuntza
hoien ondorioz iritsi zaigu
teknologia iraultza
eroso bizi garen artean
natura mintzen gabiltza
guzti honekin bukatutzeko
guk denok daukagu hitza

Tontor gainean ni nengoela
alboetara begiratu
larre berdeak zuhaixka pila
ederki nuen gozatu
baina gu denon tristurarako
gizartea zaigu sartu
fabrikak eta errepideak
natura dute suntsitu

HITZAURREA

Duela 16 urte, 1983an, Durangoko Udaleko Kultura Batzordeak umeentzako Ipuin Lehiaketa bat antolatzea pentsatu zuen. Joan Antonio Aromak, batzordekidea garai hartan, Julene Azpeitia izena proposatu zuen lehiaketarako, eta Batzordeak aho batez onartu. Izan ere, Julene Durangon bizi izan zen hainbat urtetan eta, umeak zituenez etorkizunerako esperantza, berauentzat idatzi zituen hainbat liburu: *Amandriaren altzoan*, *Irakurri matte* eta *Zuentzat*.

1983tik 1989ra Durangoko Udalak Julene Azpeitia Lehiaketa antolatzen jarraitu zuen, baina azken hamarkadan Berbaro elkarteak hartu zuen bere gain antolaketaren ardura. 1999 urtean, Durangoko Udalak eta Berbarok hala adostuta, lehiaketaren antolakuntza Udalaren eskuetara itzuli da. Guztiaren emaitza liburuxka hau duzue: *Julene Azpeitia Lehiaketa. Ipuin eta Bertso Paperak*.

Hasierako helburua ahaztu barik, hau da, lehiaketa Durangoko umei zuzentzea, badago atal berri bat: Euskal Herri osoko 17 urtetik gorakoek ere hartu dezakete parte ipuin zein bertso paperen alorrean. Beraz, liburuxka honetan, zazpi ipuin eta hiru bertso sorta izango dituzue irakurgarri. Testuen osagarri modura Imanol Larrinaga durangarraren marrazki paregabeak aurkituko dituzue.

Besterik gabe, azaleko irudiak iradokitzen duenari jarraitu eta murgildu zaitezte barruko orrialdeetan. Gogoan izan Erronkariko esaera zaharrak dioena: “*Libro zerratruk ez du ñori erakustan*”.

Durangon, 1999ko azaroan.

Nerea Urien Azpitarte
Euskara, Kultura eta Hezkuntza
Batzordeko Presidentea

Ipuinak

Natalia Campo Dominguez

Irabazlea 11 –12 urteko sailean

Landako Herri Eskola

ORDU BATZUETATIK DIRUZ JOSIA

- Zerbait behar duzu andereño?

- Bai, ekarridazu limonada bat mesedez.

- Oraintxe bertan, zenbat izotz botako dizkizut?

- Birekin nahikoa dut, ah! Eta ez ahaztu bi edo hiru "pajita" ekartzea azkarrago amaitzeko.

- Bai, Larraitz andereño.

Limonada edan, bikinia jantzi eta ura bero edo hotza egongo zen pentsatu barik, igerilekura egin zuen salto.

Ura ez zegoen ez bero ez hotz, baina oso ondo egoten zen hantxe barruan.

Larraitz ez zen denbora askorik igeriketean ibili, presaka baitzebilen, festa batera joan behar zuelako.

Azkar batean, bere logela handira sartu eta armairuan zeukan traje politena jantzi zuen.

Trajea more kolorekoa zen eta bi lore zeuzkan, tirante bakoitzean bana. Kolore berdineko zapatak ere jantzi zituen. Geroxeago limusin batek bere ile-apaindegi pribatura eraman zuen, eta han, bere ile hori eta polita ondo orraztu eta gero, atzazalak margotu zizkieten, more kolorekoak ere.

Hau guztia amaitu ondoren, limusinean igo eta aireporturantz abiatu zen. Han, hegazkina hartu eta Parisera joan zen, festa "Eiffel" dorreko jatetxean zelako. Oso gustura egon zen Larraitz festan, eta ekitaldiari amaiera emateko lehiaketa bat antolatu zuten. Lehiaketa hau, "festako politena" deitzen zen, eta nahi zuenak hartu zezakeen parte. Larraitzek, bi bider pentsatu barik, parte hartu zuen. Aurkezleak berriz, honela hitz egin zuen saria ematerakoan:

- Lehiaketa honetako epaimahaiak erabakia hartu du: saria Larraitz andereñoari ematea. Zorionak!!!

- Eskerrik asko guztioi! –esan zuen Larraitzek, aurkezleak 500.000 pezeta eta urrezko iruditxo bat ematen zion bitartean.

Baina, egia esan, hori Larraitzentzako ez zen ezer berak zeukanarekin konparatuz. Larraitz mantsio batean bizi zen. Etxetzar horretan bizkartzaina, etxezaina, neskamea eta

zerbitzari asko zegoen Larraitz zaintzeko eta laguntzeko, gurasoak Ingalaterran zeuden bitartean.

Ordenagailu eta telebisiio pila bat zeukan etxean zehar, hamar limusin (telebisiio, bideo, ordenagailu, kasetta eta guzti)... Mantsioaren lorategian 200 m²-tako igerileku bat jauzi-ohol eta txirristekin; etxe barruan 15 m²-tako zazpi bainugela jakuzzy eta guzti, eta Larraitzen logela 100 m² zituen. Zoragarria, ezta?

Larraitzek berriz hegazkina hartu eta etxera bueltatu zen oso nekaturik. Horregatik, dutxa bat hartu, pijama jantzi, ohean sartu eta atoan lo geratu zen.

Hurrengo goizean, bere logelan gosaltzen zegoen bitartean, halako soinu bat entzun zuen: TIRRIIIIIIN!!!

- Zer ote da hori? –pentsatu zuen Larraitzek soinu hura birritan entzun ondoren.

- Telefonoa balitz, jadanik, nire neskameren batek hartuko zuen. Eta atea bada? – galdetu zion bere buruari- ez eta ez, hala izango balitz ere, jadanik nire zerbitzariren batek zabalduko zuen...

Larraitzek pentsatzen eta pentsatzen jarraitzen zuen, soinu hura aurrera zihoan bitartean: TIRRIIIIN!!! TIRRIIIIN!!!

Baina, bat batean, ahots bat entzun zuen:

- Larraitz, esnatu zaitez maitea.

Larraitzek begiak zabaldu eta ... nor ote zen hori? Larraitzen ondoan emakume dotore bat zegoen jesarrita. Emakume hori bere ama zen, eta logelatik arineketan zebilen neskatoa bere ahizpa txikia zen. Eta 100 m²-tako logela? Eta neskameak? Non zegoen gure Larraitz gizagaixoa? Guztia desagertu egin zen!!!

- Baina, zer da hau? Non nago? Nortzuk zarete? –deiar dar egin zuen Larraitzek-.

Egia esan, goizeko zortziak eta bost minutu ziren eta Larraitzek eskolara joan behar zuen. Etxean zegoen! Den dena bere imajinazioan gertatu zen, lotan zegoen bitartean. Berak ez zeukan halako mantsiorik ez antzerako ezer. Berak zeukana hori baino inportanteagoa zen: Imajinazio handia. Oso amets polita izan zen, amets zoragarri bat!!!

Iasmina Gorroño Larrinaga

Irabazlea 13 – 14 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

GIZON BATEN AMETSA IZANA NAIZ

Gaur, ehun urte bete ditudanean, bota egingo nautela jakin dut. Atsekabeturik eta triste nago, lur jota. Ez nau inork maite.

Gaur, sitsez eta sasiz janda egon arren, luzaroan gizon baten ametsa izana naiz: Juanjo Zugadirena alegia.

Juanjo, Errota baserriko 9. semea, 18 urte zituela, Argentinara sukaldari joan zen bere lehengusu baten jatetxera.

Egunak joan, egunak etorri, Juanjoren bazkari-afariak gero eta ospetsuagoak egin ziren eta jatetxe hark makina bat janari eman zuen. Horregatik, gure sukaldariak bere jatetxe propioa irekitzea erabaki zuen, Buenos Airesen bertan. Negozioa primeran zihoakionez, hotelen esparruan ere sartu zen bere lehengusua kidea zuelarik. 55 udaberri eta ile urdin mordoxkarekin aldean, bere jaioterrira itzultzea erabaki zuen; ezkondu, seme alabak izan eta bitzta osoan amestutako etxea eraikitzeko: NI NEU.

Ez ninduen edonola egin. Sasoi hartako arkitektozik onenetariko batek diseinatu ninduen eta altzairu ederrenez jantzi ninduten. Handik gutxira, Juanjo, nire lorategian ezkondu zen Etxebarri baserriko Maritxu Iriarte gazte mardularekin eta geroago, euren seme-alabak bertan hazten ikusi nituen urteetan zehar.

Daniel gazteenak, zirugia izan zuen txikitatik gustuko. Sukaldean oilasko bat hiltzen zen bakoitzean, han zegoen laguntzaile.

Begoña, aitaren urratsak jarraituz, negozioen munduan sartu zen, lehenik ostalaritzan eta beranduago, etxegintzan.

Pedro Marik, semerik zaharrenak ere, aitaren pausoei jarraituz sukaldaritza zuen ogibide; baina, Juanjorena berezkoa bazen, Pedro Marirena ostera, aitarengandik ikasitakoaz gain hainbat ikastarotan ikasitakoaren emaitza zen. Horregatik, Parisa joan zen bertako ardoak eta sukaldaritza ospetsua ezagutzera.

Etxeko umeak gazteak ziren bitartean, nire geletan bizitasuna eta berbaroa ziren nagusi. Daniel, Begoña eta Pedro Mari kanpora ikastera joan zirenean ordea, isiltasuna nagusitu zen eta aldi berean Juanjo gaixotu egin zen, minbiziaz.

Nire egileak hainbat ordu igarotzen zituen nire lorategian zegoen aterpeko besaulkian eserita. Udaberriko egun epel eta eguzkitsu batean, 80 urterekin, joan egin zitzaigun.

Bat batean, Maritxurentzat handiegia bilakatu nintzen; seme-alabak etxetik kanpo, senarra hilda, zer egingo zuen ba! Ulertzekoa zen hartu zuen jarrera: Maritxuk

gero eta ordu gehiago pasatzen zituen etxetik kanpo eta nik ezagunagoak nituen hezetasunaren usaina eta hautsaren laguntza. Ni ere alferrik galtzen hasia nintzen!

Handik pare bat urtetara beste lagun bat izan genuen etxean: Peter Collins amerikarra. Etxekoandrearen laguna.

Donostiako zaldi lasterketetan ezagutu ziren, biei apustua gustatzen baitzitzaien.

Maritxu alargundu zenean, apustuak egitera zaletu zen: bingoetara, loteriara, kasinoetara, baita ere zaldi lasterketetara ere.

Peter gizon lodikotea eta garaia zen, dirua barra-barra gastatzen zuen horietakoa. Aberatsa ematen zuen.

Urteak pasatu ziren, eta Pedro Marik gustura jarraitzen zuen Parisen bizitzen, Interpolen lan egiten Sarah Dupon zuen neskarekin.

Sarah oraingoan, duela lau urte New York-eko Metropolitan museoan lapurtutako Gertrude Stein Picassoren margo famatuaren desagerketa aztertzen zebilen. Kasua zaharra zen eta Interpolek ondorengo pista hauek zituen:

1. Lapurra gizona zen.
2. Lodikotea eta garaia zen.
3. Ameriketatik ihes egindakoa zen.
4. Erretratu robota bazuten.

Iluntzeko zazpiak ziren Parisen, Pedro Mari afaltzeko arraina prestatzen zegoen eta Sarah, Picassoren koadroaren lapurketaren fitxategiak birpasatzen zegoen erretratu robota alboan zuela. Handik ordu laurdenera, Pedro Mari joan zitzaionean afaria prest zegoela esatera, erretratu robota ikusi zuenean, ezaguna egin zitzaion aurpegi hura. Bere amaren maitalearen izugarrizko antza zuen gizon hark, eta, txantxetan Sarah-ri komentatu zion. Sarah-k ez zuen uste txorakeria hutsa zenik eta eskuartean zituen paper eta boligrafoz Pedro Marik esandakoaz informe bat osatu zuen. Interpolek zituen datuak eta Pedro Marik emandakoak ez zetozen bat, deskribapen fisikoan izan ezik

Hau ikusitakoan, bikoteak aste beterako amarenera joatea erabaki zuen. Han etorri ziren Sarah eta Pedro Mari aspaldiko partez oporrak pasatzera zetozela esanez. Sarah-k denbora nahikoa izan zuen Peter Collins ez zela Peter Collins ziurtatzeko, John Martin baizik. Metropolitan museoan lapurtutako artelanaren lapurra.

Hurrengo egunean, Peter Collins ez zenak zerbait arraroa sumatu zuen bere etxe aurrean jende ezezaguna ikusteaz batera.

Arineketan, eskailerak igo zituen eta ihes egiteko nahian, bere logelako ezkerreko leihotik salto egin zuen, baina zoritxarrez, lorategiko harri koxkor baten kontra kokoteko bat hartuz, bertan siku geratu zen, hilda.

Maritxuk orduan, bertan behera utzi ninduen, bakarrik. ONG batekin Afrikako erdialdera joan zen bizitza berri baten bila.

Gaur bere ilobek saldu egingo naute, zentro komertzial handi bat egiteko.

Triste nago, inork ere ez nau maite, baina, egun baten gizon baten ametsa izan nintzen.

Gontzal Alkorta Garai

Akzesita 13 –14 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

ZIORTZA TXERRIA

Bazen behin Zerriporki izena zuen herria. Familia hauek osatzen zuten: Ziortza, Esotzi, Txirrimirri eta Kaskamirri.

Ziortza oso triste zegoen ez zuelako lurra ezagutzen eta Txirrimirri galdetu zion nolakoa zen. Arratsaldean bere familiari esan zion eta ondo hartu zuten gurasoek.

Bi astetara planetara iritsi zen eta txizepozo batera jauzi zen kotxez.

- Non nago ni? –esan zuen txerritxoak.

Han lau txerritxo zeuden, eta esan zioten txizepozo batean zegoela, baina berak ez zekien zer zen.

Hortik bi astetara Miamira iritsi zen. Bertan mutil bat ezagutu zuen, Pako zuena izena. Pako oso atsegina zen, batez ere Ziortzarekin.

Ziortza handik bost egunera Pariseko txerri dantzaldira joan zen, eta dantzan hasi zen Mimiko txerriarekin. Bera maitemindu egin zen eta honek esan zion:

- Nahi ahal duzu nirekin ezkondu?

- Gog, gog, bai noski.

Mimikok etxera eraman zuen Ziortza, bere familia ezagutzera; baina Ziortzari ez zitzaion gustatu.

- Banoa hemendik! –esan zuen garrasika.

- Baina, Ziortza, ez nauzu bakarri utziko, ezta?

- Bai, utziko zaitut.

- Ez mesedez

- Banoa hemendik.

Ziortza, isil-isilik kotxea hartu, eta, Mongoliara joan zen. Hantxe San Martin eguna zen eta jende guztia Ziortzaren atzetik joan zen bera jateko. Baina animalia honek garraioa hartu eta Errusiako gaztelu batetara ailegatu zen.

- Nolako gaztelu polita! –esan zuen ederrarena eginez.

Bat batean gazteluko atea ireki eta Jainkoa agertu zen.

- Pasa zaitetz txerritxo! –esan zuen Jainkoak alai.

- Ongi da, banoa –esan zuen ilusioz.

Ziortza gazteluko logelarik politenera joan zen. Bitartean Jainkoa pentsakor zebilen bere logelan ez baitzekien zer egin animalia horrekin.

- Badakit, txerria harategira eramango dut.

- Zer esan duzu?

- Ezer ez.

Txerriak hortik aldegin zuen goiz batean eta bere lurraldera itzuli zen.

- Ama, hemen nago.

- Badakit hemen zaudela jolasean –esan zuen barrezka.

Txerritxoak jakin izan zuen amets bat zela eta pozik jarri zen.

- Esotzi, mesedez, ez joan lurra ezagutzera, agian suerte txarra emango dizu –
esan zuen penaz.

Hortik aurrera familia pozik eta alai bizi izan zen.

Itziar Salaberria Larrauri

Irabazlea 15 – 16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

IRAKURKETA MIRESGARRIA

1988ko uztailaren hasiera zen. Bero izugarria zegoen eta egun askotako lehortea. Jendea oporretarako ilusioz zegoen. Jadanik, asko Kanariar irletara, Balear irletara, Saloura... joana zen.

Jendea aurrera eta atzera zebilen bitartean, Mikel etxean zegoen, zer egin ez zekiela. Mikel, 16 urteko mutil gazte liraina zen. Begi urdin, ile hori eta ezpain sendoduna. Gainera, gorputz bikaina zuen. Neska ugari zituen atzetik, baina Mikelek ez zuen neskekin aritzeko nahirik.

Mikel bere gurasoekin bizi zen. Seme bakarra zen eta amaren aldeko aitonaren iloba kuttuna gainera. Bere aitona Andoni zuen izena. Honek 78 urte zituen, nahiz eta 60 bat eman. Gizon prestua zen. Hau ere, oso ederra izandakoa zen gaztetan, eta oraindik ere, zuen adina izanda, bere xarma mantentzen zuen.

Mikel oso bakarrik sentitzen zen garai hartan, Bilbotik Bartzelonara bizitzera joatean lagun gabe aurkitzen baitzen, lagun bakarra bere aitona zelarik.

Andoni urte askotan bizi izan zen Bartzelonan bere lanak bultzaturik, eta Mikelen aita ere aitonaren moduan lana zela eta hiri hartara joateko beharrean aurkitu zen.

Uztailaren 6a heldu zen eta Mikel bere logelan zegoen zeharo aspertua, bere aitona logelan sartu zenean:

- Epa Mikel.
- Kaixo aitona... - esan zuen Mikelek ahots leunez.
- Hori duk aurpegia! Asperturik al hago?
- Bai, guztiz! Zer egin dezaket aitona?
- Begira, nik hire adina nuenean, askotan sentitzen ninduan zer egin ez nekiela.

Ba al dakik zer egiten nuen horrelako kasuetan?

- Zer aitona? Esan mesedez!
- Ba, abenturazko liburu bat hartu, eta horren kontakizunean kontzentratuz pasatzen nian denbora.

- Jo aitona! Hori bai aspergarria!
- Aspergarria? Begira, nik liburu bat utziko diat, baina ez pentsa edonolako liburua izango denik; liburu "magikoa" duk.

- Hala, hala aitona! Mesedez! Jadanik ez naiz ume bat, 17 urte beteko ditut aurten. Orain dela 10 urte beno, baina orain ez ditut txorakeria horiek sinesten -esan zuen Mikelek gaitzetsita.

- Ez dituk txorakeriak! -erantzun zion aitona guztiz konbentzituta. Begira, liburu hori irakurri ondoren irakurtzeko grina pizten bazaik, egia esan dudala esan nahi dik, eta irakurtzeak oraindik amorrua sortarazten badik, hik nahi dituan hiru gauza eska iezazkidak.

- Nik nahi ditudanak? - Mikelek pozik.

- Bai, baina liburu osoa irakurri behar duk! Ulertu al duk?

- Bai aitona! Nahi duzunean hasiko naiz

Arratsalde hartan aitona liburuarekin agertu zen. Oso zaharkitua zegoen, eta orriek kolore horixka zuten. Mikelek liburua hartu eta bere hiru nahietan pentsatuz irakurtzen hasi zen:

*Munduan bazegoen oihan bat mapetan
kokatu gabe zegoena. Oso oihan ederra eta
handia zen, eta mota guztietako animaliak
zeuden bertan. Egun batean...*

...eta lokartu egin zen. Bere gorputza leku berean aurkitzen zen arren, arima kontakizunean sartua zuen.

Poliki-poliki itzartu eta oihan baten barrenean zegoela ohartu zen. Harriduraren harriduraz, geldik geratu zen, zer egin ez zekiela, bere ondoan zuen zuhaitzaren adarretatik suge bat zetorkiola konturatu zen arte. Korrika hasi zen eta sugea bere atzetik zetorrela ikustean abiadura arindu zuen. Harrigarria zen suge hark zuen abiadura. Mikel oso azkarra izan arren, sugeak lehenago edo beranduago harrapatuko zuen, gero eta distantzia txikiagoa baitzegoen bien artean.

Sugeak Mikel harrapatu behar zuenean zuhaitzetatik tximino bat agertu, eta Mikel besoetan hartu ondoren, oihanaren beste alde batera eraman zuen, eta zuhaitz baten gainean utzi. Mikel bakarrik utzi zuen eta, agertu zen bezalaxe, zuhaitz artetik desagertu zen.

Mikelek amets gaizto batean zegoela pentsatu zuen, baina itzartzeko egin zituen ahalegin guztiak alferrikakoak izan ziren. Inpotentzia handia sentitzen zuen eta, aspaldiko partez, negarrez hasi zen.

Bere tristuran murgildurik zegoela beste tximino bat agertu zen. Ez zen edonolako tximua, bazuen berezitasun handi bat: hitz egiten zekien.

Mikelengana hurbildu eta hau esan zion:

- Kaixo mutiko. Utzi negar egiteari eta kontaidazu gertatzen zaizuna.

- Hitz egiten dakizu! -Mikelek harrituta.

- Bai, hala da. Badakit oso arraroa gertatuko zaizula, baina... beno, gero azalduko dizut zergatik dudan ezaugarri hau. Orain, azaldu iezadazu zer egiten duzun.

- Begira, aitonak liburu bat eman dit irakurtzeko grina pizt iezadan. Horrela liburua irakurtzen hasi naiz, eta lokartu. Itzartu naizenean oihanaren erdian aurkitu naiz eta suge bat agertu zait. Arineketan hasi eta ia sugeak harrapatu nauenean... zazt! Zu bezalako tximu bat etorri eta hona ekarri nau.

- Beno, beno... betikoa da.

- Zer esan nahi duzu betikoa dela esatean?

- Badakit sinesgaitza gertatuko zaizula baina, irakurtzen ari zaren liburu horren istorioaren barnean zaude.

- Istorioaren barruan? Begira, niri interesatzen zaidan bakarria etxera itzultzea da. Liburu horren barnean nagoela egia baldin bada... mesedez, nola itzul naiteke etxera?

- Egin beharrekoa oso erraza da baina aldi berean oso arriskutsua. Badakizu oihan guztietan daudela lehoiak, baina leku honetan badago bat tximinoak hil eta jaten dituen. Benetan etxera itzuli nahi baduzu, lehoi hura hil beharko duzu –azaldu zion tximuak.

- Eta hiltzen ez badut?

- Hemen geldituko zara betiko eta ni bezalako tximu hiztuna bihurtuko zara.

- Zuri ere gauza bera gertatu al zitzazun, ba?

- Bai, baina nik ez nuen lehoia hil.

Mikelek zeukan ausardi guztia batu eta lehoiaren aurkako eraso prestatzen hasi zen. Halako batean lehoia agertu eta borrokan hasi zen Mikelekin. Guda luze baten ondoren, Mikelek tximuak emandako lantza batekin hil zuen lehoia.

Tximu guztiak saltoka hasi ziren, eta Mikel heroi bihurtu zen. Tximua hurreratu eta zera esan zion:

- Oso adoretsua izan zara Mikel. Etxera bueltatu nahi baduzu, lo egin, eta itzartzean loak hartu zaituen tokian agertuko zara.

- Eskerrik asko denarengatik. Ez dakit zer egingo nukeen zu gabe –Mikelek, esker onez.

- Eskerrik asko zuri. Zugatik izan ez balitz lehoiaren beldurrez jarraitu beharko genukeen. Orain joan zaitez lasai –eta tximino guztiak aldendu ziren.

Mikelek tximuak agindutakoa egin eta berriz ere etxean agertu zen bere amaren ahotsa sentitu zuenean.

- Mikel! Ordua da mutil! Jadanik bazkaltzeko ordua da eta aitona ere gurekin dugu. Jantzi eta zatoz jatera!

Mikel korrika jaitsi zen eta aitonarengana zuzendu zen esanez:

- Aitona, irakurri dut liburua, eta arrazoa duzu, "magikoa" da! Baina... zergatik arriskatu duzu nire bizitza liburu horren barruan harrapatua izatera? –galdetu zuen serio.

- Ez huen arriskurik. Gertatutako guztia idatzita zegok, eta irakurlea beti onik ateratzen duk. Berrito ere irakurriz gero, gauza bera gertatuko zaik, eta ezagutu berri dituzuen izakiek ez haute ezagutuko –azaldu zuen-. Zer, piztu al zaik irakurtzeko gogoa?

- Bai aitona, batez ere liburu magikoak irakurtzeko gogoa.

- Pozten nauk. Orain goazak bazkaltzera, ama haserretu egingo zaiguk bestela.

Paule Sanchez Arieta-Araunabeña

Akzesita 15 – 16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

ITSASERTZEKO LAGUNA

Aspalditik ezagutzen dudan neska aparta da, eta ingurukoen konfidantza irabazia zeukan lehenengo egunetik.

Gelara etorri zen egun berean, bere begi urdinek gu sorgindu gintuzten. Bakoitzak bere burua aurkeztu zuen eta gero bera, zailtasun gabe agertu zen, egunero 30 pertsonen aurrean hitz egingo balu bezala.

Neska hark bere buruarekiko zuen konfidantza ikusita, berarengana hurbildu eta aurkezpen gehiago egin ordez, jendeak bere gauzak kontatzen zizkion betidanik ezagutuko balute bezala.

Bitartean, neure txokotik hura miresten nuen eta era berean goitik behera aztertzen. Bitxia zen, oso bitxia. Edertasun berezi bat zuen, ez zen telebistan agertzen ziren neska horien antzekoa, guztiz desberdina antzematen nuen. Bere aurpegiak iluntasuna desagertarazten duen eguzkia zirudien, bere eskuek uso zurien hego pareak, bere gorputza firin-faran dabilen haizearekin dantzatzeko zegoen, oso pertsona alaia iruditu zitzaidan.

Etixeratzean, ezin nuen matematikako klasean eman genuena gogoratu, bere irudia agertzen zitzaidan edonon.

Han eta hemen ikusten nuen, beti ere jendeak inguratzen zuela. Irudi horrek barregura eta tristura sortarazten zizkidan. Barregura, kofesaleku batean sartua dagoen abade baten antza hartzen niolako eta tristura, bere barruko penak kontatzeko inor ez zuelako.

Hala eta guztiz ere, neskarengana hurbiltzeko adorerik ez nuen. Gainera, laguntza behar izanez gero eskatu egingo zuela iruditzen zitzaidan.

Ikasturtea aurrera zihoan eta jadanik udaberriari geunden.

Neska honek hilabeteetan zehar sekulako aldaketa eman zuen. Kolore biziz jantzen zen pertsona alai hura, kolore ilun eta hotzez jantzitako neska bilakatu zen.

Erabateko aldaketa hark zeharo harritu ninduen.

Nik pertsonak aztertzea gogoko dut eta bera ikustean autoestima lurretik zuela iruditu zitzaidan. Jendez inguratuta jarraitzen zuen, hala ere, ez zuen irribarrea galtzen. Halako batean, jendetza zabaldu eta nire aurrean ikusi nuen neska hura.

Sei hilabete zeramatzan nire gelan eta oraindik ez nuen berarekin hitz bat ere gurutzatu.

- Barkatu, zuk Jon duzu izena ezta?

- Bai, hala da. -ezin nuen sinestu, bera! Bera niri hitz egiten! Ezagutzen ninduen!

- Zurekin hitz egin behar dut. Gaur zazpietan kaian. -esan zidan.

“Ezinezkoa, ez dut berarekin sekula hitz egin eta ez naiz agertuko” pentsatu nuen.

Eguerdiko hamabiak ziren eta jadanik urduri nengoen.

Ordu batak; berdin.

Ordu bi eta erdietan; ezin egon.

Laurak; buruan mila burutazio bueltaka.

Seiak; ez noa... ez.

Zazpiak laurden gutxi; urduri nago, ez naiz heltzen.

Korrika nindoan eta zazpiak bost gutxitarako han, geratutako lekuan, nengoen.

Banku batean eseri eta nire urduritasunak bertatik pasatzen zen mutil bati zigarroa eskatzera behartu ninduen.

Zigarroa piztu eta hura erretzen nengoen bitartean, zertan ari naiz? Erretzen ni? Ez da etorriko, banoa. Lasai, agertuko da,... Nire buruak momentu batetik bestera eztanda egin behar zuela iruditzen zitzaidan.

Minutu erdian sei aldiz begiratu nuen erlojua, zigarroa bukatu zitzaidan eta urduritasunagatik lur jotzera nindoan momentu berean neska agertu zen.

Soineko berde bat zeraman soinean eta ile beltza, haizearekin solasean, sorbalden gainean pausatzen zitzaion.

- Kaixo Jon!

- Kaixo! –erantzun nion ahots dardarti batez.

- Zatoz paseatzera!

Eskutik ebatu ninduen eserleku hartatik ipurdia jasoaraziz.

- Badakizu?

- Zer?

- Haitz hartan nengoen olatu batek itsasoaren sabelera eramango ninduen egunaren zai –esan zuen.

Nik ez nuen ezer ulertu.

Eserleku hotz batean geunden biok.

Bere begirada guztiz galdua zegoela iruditu zitzaidan, baina ez zen horrela. Begi urdinak eguzkira zuzenduta zituen, eguzkiaren edertasunak liluratua baitzuen.

Itsasoa bare zegoen eta, sarritan bezala, olatuek hondartzan zeuden are aleak ureztatzen zituzten noizbehinka. Urrunean, emazteak lehorrean utzitako marinelen itsasontzi bat zihoan.

Eguna benetan berezia zen.

Ilunabar ikusgarria zen. Hondartzako pasealekuan zeuden eserleku jarri berrietako batean eserita, ortzera begira, bakoitza bere munduan guztiz murgilduta geunden.

Denborak aurrera egin zuen eta nire lagunak esandako esaldi hura zebilkidan buruan tximeleta balitz bezala, ideia guztiak nahasten. Galdera ugari nituen, baina nola ausart nintekeen pertsona hura bere ametsetatik edonola esnatzen?

Ezin nuen gehiago jasan, jakin-minak tripak jaten zizkidan. Beraz, arnasa hartu eta erantzungo ninduen itxaropenarekin zera galdetu nion:

- Barkatu, baina, zer esan nahi zenidan esaldi hura aipatzean?

Ez zidan erantzun, ezta begiratu ere. Geldi-geldi zegoen, seguruenik, bere baitan nonbait galdua.

Ez dakit nola demontre, nire begiak ixten joango balira bezala sentitu nituen.

Lo nengoen ala ez?

Ez nekien ziur, ametsa hastera zihoan edo begiak zabaltzean laguna horizontera begira ikusiko ote nuen. Horregatik, begiak itxita uztea erabaki nuen. Urrunean ahots bat entzuten nuen baina, amets haietan gertatuko zena erakargarriagoa iruditu zitzaidan.

Laino artean bezala sentitzen nintzen eta bat batean kolpe siku bat sentitu nuen besoan.

Ez nion jaramonik egin dei hari, paradisuan sentitzen nintzen, kotoizko bola erraldoi haien artean.

Begiak zabaltzeko ordua iritsi zen. Han, nire ondoan, ez nuen inor ikusi.

- O! Ez!

Kartazal bat zegoen, honela esaten zuen:

Berezia zinela uste nuen.

Zurekin hitz egitean, barruan gordetako samin guztiak askatzea pentsatua neukan.

Ziur nago, zuk ere berezitat zenuela zeure burua. Hala ere, oso erraza da norberaren burua engainatzea. Hala eta guztiz ere, ingurukoak denbora luzez engainatuta mantentzea oso zaila da.

Ezin nuen sinestu irakurtzen ari nintzena. Haserreturik, etxera joan nintzen eta, gurasoak agurtu gabe, izendegian neska inozo haren telefonoa bilatzeari ekin nion.

Hantxe zegoen, neurearen azpian.

Deitu eta bere amari alaba etxean ote zegoen galdetu nion.

- Kaixo, Jon naiz. Alaba etxean al da?
- Bai, orain jarriko da.

Une hori gogoratzen dudan unerik luzeena izan zen.

- Kaixo, zer nahi duzu? –galdetu zidan ahots zakarrez.
- Ba... begira. Kartazalean idatzitakoaz nire iritzia ematearren deitzen dizut.
- Eta?
- Arrazoi osoa duzu. Berezia sentitzen nintzen, baina, mundu honetako guztiak artalde berekoak gara nahiz eta ardi beltzak ere banaka ageri.
- Zer esan nahi didazu horrekin? Nik berezitzat dudala neure burua?
- Bai, halaxe da. Baina, ez pentsa horrela denik. Gaur guztiok oso antzekoak garela azaldu didazu eta!
- Baina... –bere ahotsa intentsitatea galtzen zihoan. Edozein unetan negar egiten hasiko zela uste nuen. Beraz, lasaitzeko erregutu nion eta biharamunean toki berean hitzordua geneukala ere azpimarratu nion.

Gaua oso luze egin zitzaidan.

Biharamunean jaiki eta ordua heldu arte, zer eta nola esan pentsatzen aritu nintzen.

Neska kaian zegoen ni heldu orduko.

- Kaixo Jon! –agurtu ninduen ahots lotsatiz.
- Kaixo!
- Barkatu atzokoa. Ez nekien zer egin lo zeundela konturatu nintzenean.
- Ez du axola. Ni ere telefonoz pasatu egin nintzen.
- Sentitzen dut, benetan. Benetako lagun baten premia nuen eta zu aproposena zinelakoan nengoen. Konfunditu egin naizela ohartu naiz, beraz, agur. –neska altxatu eta bere soineko beltza aldean zeramala aldentzen ikusi zuen.

“Ezin nuen sinestu...” zioen ahots batek.

“... bakardadearen itzalak jarraitzen ninduen...” ezaguna egiten zitzaidan ahotsa.

“Itsasbazterrean nengoela, neure buruaz beste egitea pentsatu nuen...” Geroz eta ezagunagoa egiten zitzaidan ahotsa. Baina, norena zen?

“Ez nintzen neure burua itsasora botatzeko gai, beraz, haitz hartan nengoen olatu batek itsasoaren sabelera eramango ninduen egunaren zai”

Esaldi hura berriro!

Orduan ohartu nintzen neska haren hitzak buruan geratu zitzaizkidalara ni lo geratu nintzen egun hartan. Sinesgaitza benetan!

Korrika ari nintzen neskaren atzetik.

- Barkatu, inozo hutsa izan naiz. Zure laguna izatea gustatuko litzaidake.
- Baina, zin egin ez garela sekula bananduko.
- Zin egiten dizut.

Hau duela urte asko gertatu zen. Hala eta guztiz ere, lagunak izaten jarraitzen dugu. Bera, ikasketa batzuk burutzen kanpoan da, baina astero idazten diogu elkarri eta oportretan munduko toki ezberdinak erakutsiko dizkidala zin egin dit.

Fernando Morillo Grande

Irabazlea 17 urtetik gorako sailean

BETIEREKOTASUNEZ

Urteak ziren. Urte asko, neurgaitzak kasik. Baina guzti horrek merezi izan zuen, beharrik! Merezi izan zuen. Azkenik ere... lortzeko zorian zegoen oraintxe. Arnasa sakonki hartu, eta aurrera ekin zion. Dena ala ezerrez, iritzi zion. Gerta ala gerta. Gehiegi zuen jokoan zalantza ziztrinekin hasteko. Dena, erabaki zuen, dena izan behar zen. Derrigorrez.

Azken osagaiak nahastu zituen, erlojua begiratu, eta zain geratu zen. *Grimoriumaren* arabera, minutu batzuk besterik ez ziren izango. Minutu batzuk gehiago, demontre! Haatik, hainbeste denbora igaro bazuen ere, honez gero, hau lortu nahian, une labur hauek amaitezinak iruditu zitzaizkion. Beste pixka bat, arren, pixka bat, besterik ez.

Lortu egin zuen.

Gelako horma oso bat goritu egin zen gorgarriki, suaren dantza erotuaz mozorrotuz une berean. Ez zen ordea hau, su arrunta, eta ez zuen garrarik atera, beste nonbaitetik zetorren, izendaezina den sakan ilunenetik, ausaz. Seguruenik. Horman itsatsirik balego mugitzen zen sua, zelatan antza, larderiatsu betiere bi dimentsio haietara zedarriturik. Horrelako zerbait itxaroten bazuen ere, gure laguna aho bete hortz geratu zen arras. Azken unean zalantzek eraso zioten. Aitzitik, muzin egin zien oldarki.

Igarobide beltz eta borobil bat zabaldu zen horman bat-batean gorgarri, eta bera ipurdiz erori zen atzera, alimaleko sustoaren ondoren. Hala ere, bere kikilkeria menperatu zuen berriro ere, irmoki. Ez zuen hutsik egingo. *Ezin* zuen hutsik egin. Ezin zuen. Heldua baitzen bere *benetako* ordua.

Irudi bat irten zen pasabidetik. Itxura liluragarria zuen, mirestu zuen, egiatan gorpuzkera aparta. Ezin izango zuen egoki deskribatu, hori ezinezkoa bailitzateke ziurrenik. Ilea *pizturik* zuen irudiak, gar erogarriez, baina ezin zuen baieztatu jantzirik ere zegoenik, hain zen jasangaitza bere presentzia. Eta zirrara hori areagotzeko, etorri berriaren begirada zegoen. Indar ikaragarria isurtzen zuen begi distiratsuetatik, den guztia azpiratzeko jaio izan bailitzan. Nor izango zen horrelako begirada bat eusteko gai? Galdetu zion alferrik bere buruari. Nork egin lezake? Inork ere ez. Ezta inork ere!

– Nork deitu nau? – egotzi zion irudi piztuak, bera bakarrik bazen ere gela osoan aurki zitekeen beste pertsona bakarra. Jolasean ala? – Nork deitu nau? – errepikatu zuen ozenkiago, besteak ez baitzion erantzuten.

– Nnn... nik. Nik. – maiseatu zuen ahal moduan besteak. Bere totalka hitz egite hori ez zen ez gutxiagorako.

– Hik. – ez zen galdera bat.

– Bai.

– Eta zertarako? Ba al dakik nor naizen?

– Nolabait... bai.

– Ba al dakik nor naizen? – errepikatu zion berriro.

– Bai.

– Ez dezagun orduan denborarik galdu.

Azkenean bai, lortu behar zuen. Gaztetatik izan zen bere obsesio arreena, kiskalgarriena, bizigarriena. Bere aita zerraldoan ikusi zuenetik, gogoratu zuen. Zurbila, zurruna, munduko edertasun guztietarako itsua; egunsenti gehiagorik ez gizaldi eta gizaldietan, ez irribarrerik, ez besarkadarik, ez... milioi bat urte eguzkia mendiak zeharkatzen ikusi gabe! Milioi bat milioi urte! Eta gehiago, ene, gehiago. Nork jasan zezakeen horrelakorik?

Hala eta guztiz ere, bazirudien bera besterik ez zela ohartzen, gela hotz eta negarti hartan. Beste guztiek tristura tankera bat agertzen zuten, hunkiturik beharbada, edo hala agertu nahi zuten bederen. Ama negar batean zegoen, gainontzeko hurbileko senideak antzera, goibeltasun ilun batean murgildurik. Baina ez zen hori. Ez. Ez zen hori bere arimaz jabetu zen sentipen higitzailea. Ez al zuten sumatzen bada, Dama Beltzaren soinekoaren fereka, limurtzaile bezain zarrastatzailea, barreneko hezur guzti-guztietan erroturik? Ez al zien bi huts mugagabeen arteko txinpartaren ezgauzak gogamena infinituki ohiltzen?

Balirudike ezetz. Berarentzat, alta, goitik beherako antzaldaketa suposatu zuen aitaren heriotzak. Begien irekitze bortitz bat, borroka lazgarrienerako zioa. Eta beldur izugarri, neurgaitz eta atergabea halaber.

Ikasten hasi zen, ero antzera, etsipenak ematen zion erabakitasunaz horniturik. Egon behar zuen bideren bat halabeharra nola edo hala saihestu ahal izateko. Egon behar zuen! Eta berak aurkituko zuen.

Ikas zitekeen dena ikasi zuen, eta gehiago ere. Pixkanaka, bidezidor bat irekiz joan zitzaion. Baziren hainbat bide, arriskutsuak, ezinbestean. Baina hori, bizitza serio hartzen duen edonorentzako ebidentea zen, hausnartu zuen, ezin baita borrokara joan dena gal daitekeen uste osorik gabe. Erantzukizun-gabetasun barkaezina litzateke.

Itsukeria hutsa. Ondiko handienetarako egon behar zuen prest, nahi zuena lortu nahi bazuen. Bera prest zegoen. Orain ziur zen. Orain behintzat bai.

Goi-*grimoriuma* lortu zuen, egin behar zena egin zuen, eta orain saria eskura zekusan. Berak imajina lezakeen saririk garaiena, berealdikoena, bikainena ; Heriotik itzurtzeko aukera! Hilezkortasuna!!

– Zein da hire eskaera? – jaulki zion agerpenak ahots burrunbatsuz.

– Hilezkortasuna jauna. – erantzun zion besteak ia arranditsuki. Bere nahiaren lorpen hurbilak ausarkeriaz blaitu zuen antza.

– Hilezkortasuna? Zertarako nahiko huke ba hik betiereko bizia?

– Hori nire gauza da jauna. Uste nuen hori eskaintzeko gai zinela. – ihardetsi zion apur bat kezkatu. Egin behar zen dena egin zuen. Orain ezin zion ukatu! Ezin zion ezetz esan, otoi!

– Horixe naizela gai, memeloa halakoa! Zer uste duk? –itxurazko amorru suminaldi batek hartu zuen, eta literalki su eztanda batean zartarazi zen, gela osoa argi jasangaitzaz gainezkatuz. Gure lagunak begiak ireki zituenean, denak berdin zirauela ohartu zen, baina horrelako indar erakustaldi baten ondoren, dardara geldiezin batean hasi zen.

– Barkatu jauna, barkatu. – eta irudiaren aurrean makurtu zen umiliaturik. – Nik... nik ezin hobeto zerbitzatu zaitut hainbat urtetan. Uste nuen... uste nuen hori eska niezazukeela.

– Mmm... – murmurikatu zuen agerpenak. – Egia da bai, ondo zerbitzatu nauk. Badakik? Hire eskaera onartuko diat. Bai, hilezko egingo haut. Tipo jatorra naizelako, gero.

– Benetan? – eta bere begiak itxaropenaz urpetu ziren.

– Nik ez diat gezurrik esaten! – oihukatu zuen berriro trumoi antzera.

– Noski, noski.

– Zehaztaper txiki bat. Hilezkortasuna *heureganatzeko*, lehen hil egin behar duk.

– Zer? – galdetu zuen mesfidati. Zertan ari zen ordea? Bazekien bere aurreko agerpen hura ironiaren maisua zela. Adar joka ari ote zitzaion?

– Esan diat nik ez diodala gezurrik. Ez duk txantxa. Heuk ikusi nola egiten duan heure buruaz beste.

– Neure buruaz... beste... egin?

– Bai. Behin hil eta gero, hirugarren egunean piztu egingo hintzateke, berriro "*sekula sekulorum*" ez hiltzeko.

– Hirugarren egunean? Baina hori... hori ez al da...?
– Ez huen ba pentsatuko lehenengoa hi hintzenik, ez da hala? – moztu zion besteak.

– Ez ez. Bakarrik...

– Zer? – bota zion zakarki.

– Beno, deus ez.

– Hori dugu guztia beraz?

– Bai. – Zer erremedio. Ez zen beste ezer esatera ausartu.

– Orduan, badakik zer egin behar duan. *Heldu horri!* – oihukatu zion, airean desagertzen zen bitartean. Gure lagunak gorde zuen irudiaren azken oroimena, irkaitz bitxi bat izan zen, nolabaiteko irribarre maltzurra. Haatik, beste gauza garrantzitsuagoak zituen orain buruan. Hilezkorra izango zen! Beste pixka bat. Pixka bat bakarrik.

Pozoina aukeratu zuen. Tiroz edo labarren batetik salto egiteari bortitzegia iritzi zion bere izaera baketsurako.

Lagun gutxi agertu ziren hiletara. Ezin izango zituzkeen egiazki gehiago espero, bere bizona bakartia kontutan izanik. Ez zen ezer aipatzekorik gertatu; pare bat malko, pare bat hitz. Eta etxera.

Hirugarren egunean, ikaragarriko konbultsioak jota, esnatu egin zen, esnatu ere. Hasiera batean, itotzen ari zen sentsazio lazarria izan zuen gainean, arnasik ezin bereganaturik, eta non zegoen asmatu ezinik bere zorabioan. Segundo luze batzuk igaro ostean, alabaina, gogoratu zuen. Hilezkortasuna. Hilezkortasuna! Barre egin zuen. Berririo egin zuen barre pozarren. Betiko bizona. Betiko! Ez zuen ez inoiz hain barre alairik egin.

Eta ez zuen inoiz gehiago egingo.

Zerraldoaren barruan aurkitu zuen bere burua. Klaustrofobiako atake mutiri baten ondoren, norbaitek (inoiz badare) entzungo ziola uste nahi izan zuen, bere burua lasaitu nahi izan zuen. Denbora zuen horretarako, ez? Ez? Kolpeka hasi zitzaion zerraldoaren estalki sendoari ordea, ero moduan. *Bada norbait? Norbaitek entzuten al du? Arren, arren!! Oso ilun dago. Oso. Ireki! Ireki atea!*

Hilezkortasuna, maiseatzen zuen tarteka izaturiko begiradaz, *hilezkortasuna*. Bere beldurra areagotzen zihoan denborak aurrera egin ahala. Izan ere, bere gorputza (gorpua ia), jan ezean, mugaraino ahuldurik zen, eta minak eta itolarriak goraka ari zitzaion. Min ikaragarria, berebizikoa, amaigabea. Hilezkorra. Hilezkorra!

Negar egin zuen orduan, ironia beltzez gainezkaturiko negar pattala, indargea.

Orain, hainbeste desiratu izan zuen betierekotasun osoa zuen bere burua
madarikatzeko. Eternitate sorta bat berarentzako bakarrik, eternitate guztiak. Eta
bitartean, garai batean hainbeste izutu zuen horretan pentsatzeko astia, orain hainbeste
irrikatzen zuen horretan. Heriotzaren misterioa, berak orain ezagutu ezin izango zuen
atseden eternoan mugitzeko ahala. Heriotza, heriotza...! Herioa... ..hotza. Hotza. Gaua.
Mina. Betiko. Betiko! *Ireki atea, arren! Ireki...!*

Aintzane Agirrebeña Ubera

Akzesita 17 urtetik gorako sailean

MAKALETIK MADARIKATURAKO TRANTSIZIOA

Hamaika pauso triste egina naiz ni. Nire bizitzako unerik zailenak izan nituen haiek. Ez zen eguzkirik irteten niretzat eta hodei ilunek kaleak iluntasun likits batez horditzen zituzten. Mundua gero eta estuagoa egiten zitzaidan; jada, ez nintzen bizitzaren pasabide estuan barrena kabitzen. Hainbeste estutzen ninduen non ez bainuen arnasa hartzeko betarik izaten eta ito beharrea nengil. (Beno ez dezadan larregi exajeratu...) Etxeko arazoak gutxi bailiren, uztar-lagunak "ondo bizi" esanda aldegin zidan eta eskolan ez nuen ia bat bera ere gainditzen. Nire zerupeko unerik zailenak izan nituen haiek. Sasitik irten orduko lar tartean sartzen nintzen. (E! Zu! Irri bat atera zaizu! Ba, ez pentsa, ez zen nire errua nota txarrak ateratzea, irakasleek gorrotatu egiten nindutelako zen dena...)

Nik deskuidu txiki bat egiteko zain egoten ziren haiek, eta uste gutxien nuenean, denen aurrean lotsagarri uzten ninduten. Nik ezer gutxi egin orduko, begirada zitalak zuzentzen zizkidaten. Ondoren etortzen zena, halaber, ez zen atseginagoa izaten; behin eta berriz errepikatzen zitzaidan amets gaizto hura. Haien ezpainetan osatzen zen "ZU!" beldurgarriak eztarria korapilatzen zidan. "ZU KALERA!" ozena zetorkidan behin eta berriz. Bigarren ilarako mahaian eserita egon arren, ate aldera ematen nuen pauso bakoitzeko nire mundu txiki hartako pieza bat erortzen zitzaidan lurrera, dena puzzle hauskor bat izango balitz bezala. Buru makur irteten nintzen, baina horrek ez zidan besteek nire kontura egindako trufa isila sentitzea eragozten. Ikasle txarra nintzela zioten, baina inoiz ez zidaten aukerarik eman. Eta nire pauso isilak korridoreetan barrena mugitzen ziren, atzean geratutako ikasleen barre eta ziriei jaramon zipitzik ere egin gabe.

Ikastolan neu nintzen azkeneko mamu gorria;ez nuen lagunik izan sekula eta eskola berrira pasatu nintzenean okerrago izan zen. Ikusi bezain laster, gelakide guztiek ezkerreko begiz hartu ninduten (nik ere ezin nituen haiek jasan, baina ni bat nintzen eta haiek asko). Makinatxo bat bider joana naiz etxera ubelunez belztuta, baita odolez makilaturik ere. (Noski, makilaturik edo margoturik ez dakit, baina, makilakadak hartuta bai behintzat). Gurasoek, honen aurrean, ez zuten ez mutik ez zirkinik egiten. Horiek haurren arteko "adineko borrokatxoak" zirela esan ohi zuten eta ez ziren ohartu nire estuasunaz, egin nuena jazo zitzaien arte. Ordura arte sarri jaso ohi nituen bezalako jipoi bat kobratu ondoren, etxera joan eta inor ez zegoela ikustean, aiztoa hartu nuen eskuartean. Inoiz ez dut berriz halako esperientziarik izan. Bihotzaren taupadak gorputzeko kokagune bakoitzean nabari nituen baina gehien eskumuturrean. Aiztoa

bertara zuzendu nuen zainak mozteko asmoz baina ez neukan indarririk eta eskuetatik ihes egin zidan. Izerdi patsetan nengoen eta zer egin ez nekiela, amaren logelara joan eta kaxoitik zapi ilun bat hartu nuen, begiak estaltzeko. Bigarren aldiz saiatu nintzen, zapia begien inguruan nuelarik, izua aldenduko zitzaidalakoan, baina, ez zen hala izan. Gurasoen urratsak entzun nituenean bakarrik erreakzionatu nuen. Eskua dardaraz hasi zitzaidan eta begirada lanbrotuak ez zidan eskumuturra erakutsi nahi. Itsu-itsuan, jesus amen esan orduko, zast! zainak ebaki nituen. Normala denez, ez dut ezer gehiago gogoratzen, anbulantzia zaratatsua izan ezik, irudirik gabeko formak.

Erizaindegian itzartu eta nire gelakide guztiak bertan ikusteak, bihotzari salto bat eragin zion, aurpegia zeharo aldatuz. Gelakide guztien begiradak ni nentzan oherantz zuzentzen ziren eta behingoz, denen arreta neureganatzea lortu nuen. Errukiz begiratzen zidaten eta nik, bitartean nire –aspaldidanik entseiatu gabeko– irrifarririk zabalena eskaintzen nien. Lau horma zuri haien artean egoteak ez ninduen batere alaitzen are gutxiago kable eta makina haiek inguruan nituelarik. Egunak eta gauak igarotzen nituen egindakoaren azterketa sakona egiten, buruan mareatu arteko jira-birak emanez. Egoera hura ezingo nuela gainditu iruditzen zitzaidan, eta lotsa sentitzen nuen nire gurasoen aurrean. Baina mundua buru gainera eroriko zitzaidala uste nuenean Mirari agertu zitzaidan. ("Nor da Mirari hori?" pentsatuko duzue...) Ba... Mirari erizaindegiko gelakidetzat nuen Imanolen arreba zen, ordura arte inoiz ikusitako pertsonarik alai eta biziena. Egunero-egunero bere presentziaz betetzen zigun gela, piper,gatz eta azukre nahasketa bat hedatuz gelaren azalera osoan. Lehenengo aldiz ikusi nuenean, mututurik gelditu nintzen, ahoa memelo baten antzera zabal-zabalik nuela. Bere begietan zuen bizipoza kutsakorra zen; irrifar goxoak gaztetu egiten zion eguzkiaren distira bezainbesteko argia isurtzen zuen aurpegi alaia. Anaia loak hartzen zuenean, bere ondoan egoten zen liburu bat irakurtzen. Orduak eta orduak pasatzen nituen, konturatu ere egin gabe, bere mugimenduak aztertzen, zer esan jakin gabe. Goizetan, Mirari ikusteko irrikiak goizago esnarazten ninduen. Imanolengandik jakin ahal izan nuenez, Mirarik ez zuen senargairik, eta nire buruak beregana nola hurbildu beste arazorik ez zerabilen, bere gogameneko igarobideetan barrena. Azkenean heldu zitzaidan aukera: bere urtebetetze eguna zela eta erizaindegiko lorategitik ostutako loreak eskaini nizkion, lau arrosa gorri. Bai zoriontsu egin ninduela eskertzeko eman zidan musu hark! Bizitza berri bati ekingo niola sinestu nuen bete-betean. Hurrengo egunean, Mirari erizaindegira iritsi aurretik berriz lorategira ihes egin nuen hain gogoko zituen arrosa gehiagoren bila, ordainez beste musuren bat jasoko nuen esperoan. Baina bizitzak nahi duenean petrala

izaten ere badaki eta... Itzalean nengoen bitartean etorri zen Mirari, baina ez zetorren bakarrik, motorrean zekarren mutil batek. Mirariren barre algarak iristen ziren nire entzumenetara, beti bezain alai, eta baita bere ahots leuna ere, beti bezain goxoa, txoriei buruzko hizketaldian. Belarriak zorrotzu nituen orduan, bere bizitzaz zertxobait gehiago ikastekotan, eta gutxien espero nuena jazo zen. Nitaz hitz egiten ari zen larruzko txaketaz jantzitako tipo harekin! Mirariren algarak nire kontura eginikoak ziren, lumatu gabeko txorikumeak loreak oparitu zizkiola eta! Mirari bakar bat gertatu zait bizitza nekagarri honetan eta bera ustelduta zegoen barrualdetik.

Orduak eta orduak pasa behar izan nituen nire barneko tristura guztiak kanporatzeko eta azkenik, heldu zen berriz etxera itzultzeko garaia.

Zuriz mozorrotutako etxe izugarri hartatik atera nintzenerako, dena bere normaltasunera itzulia zegoen. Gelakideek jarrera berbera azaltzen zuten nirekiko nahiz eta lagunak bat edo beste hurbildu galdera batzuk egitearren. Jakin nuen, derrigortuta joanak zirela ni bisitatzera eta barre egiten zidaten ni ikustearren joan zirela uste izateagatik. Indartsuenek ni jipoitzen segitzen zuten eta ni ez nintzen haien sakeak errestatzeko gai (bazirudien denek Mikel Goñik besteko abiadura eta indarra zutela sakea ateratzerakoan). Gurasoek, berriz, ildo beretik jarraitzen zuten, lehengo lepotik zuten burua. Hobeto zaintzen nindutela uste zuten, baina dena lehen bezala zegoen.

Egun batez, bizikletaz eskolara nindoan batean, bigarren mailako ume bat parean gurutzatu zitzaidan, eta istripua ezinbestekoa izan zen. Aurpegiaz lurra jo eta sudurretik odola zerion. Zer egin ez nekiela gelditu nintzen. Bitartean, txikia masailak lehertu beharrean negarrez ari zen. Ni jipoitzen ninduteneko irudia etortzen zitzaidan behin eta berriro burura. Zenbat ukabilkada, zenbat ostiko hartu behar izan nituen isil-isilik, umekeriak zirela eta. Nire sudurrak ederto zenbatuak zituen gelako liskar altxatzaile haiek atzaparretan zenbat hatz zeuzkaten. Barrena irakiten jarri zitzaidan. Lehenengo ostikoa eman nionean ez nintzen konturatu zertan ari nintzen, bere lagunak garrasika hasi ziren arte. Ingurura begiratu eta beldurra ikusi nien ume haiei begiratuan. Han ez zegoen iseka eta barrerik. Ni nintzen han indartsuena eta hori gustuko nuen. Bigarren ostikoa, nire hezurak mami bihurtu arte jipoitzen ninduten haientzat izan zen; nire gurasoentzat, behin eta berriz zigortzen ninduten irakasleentzat... Hiruzpalau ostiko gehiago eman nizkion, nagusiak gerturatzeko hasi ziren arte.

Egindakoagatik ez nuen atarramendu txarrik jasan behar izan. Erraz libratu nintzen zigorrik jaso gabe, baina ez zen hala gertatu nire barruan piztu zitzaidan irriki berri harekin. Su hark, barrena irakiten jarri eta indar berri batez betetzen zidan

gorputzean sentitzen nuen hutsunea. Nire menpekoak zeintzuk ziren bereizten bai azkar ikasi nuela! Oilo busti haien begietan ikusten nuen beldurrak eta euren negar barregarriek nire barneko arrangura errotuari ura irrigatzen zioten, gorroto itsu bihurtu arte. Haien izuaz elikatzen nintzen. Izu-ikara sakratuaren aurrean hazi egiten nintzen.

Ez zen hilabete bat pasatuko, eskolan zegoen "makarra" tankerako mutil anker hura droga eskainiz etorri zitzaidanean. Entzuna zuen ematen zizkidaten jipoien berri, baita nik eginiko ekintzen berri ere. Tipo hark, ondo baino hobeto zekien ezingo niola hauts zurixka hari uko egin. Mundu hilkorari ihes egingo niolakoan, egunero-egunero erosten nion sobretxo bat, gutxienez. Alderatzen zenean, nire eginkizunetan jarraitzen nuen. Inork ez zuen ezer susmatu.

Gero eta zorrotzagoa nintzen jendearekin eta nire jenioa biziagotu egin zen. Hasieran, dirua behar nuenean gurasoei lapurtzen nien baina gerora, diru eskaera emendatzean, beste diru iturri batzuk aurkitu nituen, izan ere, munduan makal ugari baitago. Biderik errazena banketxetik irteten ziren aiton-amonak izaten ziren; konturatu orduko haien karteren jabe egiten nintzen.

Unibertsitateko lehenengo egunetan gelakide guztiak aztertzen aritu nintzen. Bat edo beste liskar altxatzaileak baziren ere, jadanik era horretako asunek ez zidaten hazkurarik ematen. Txikitako makal planta hura atzean utzi nuenetik, jendearen begirada nigana zuzentzen zenean apalagoa izaten zen. Birritan pentsatu behar izaten zuten niri hitz erditxo bat zuzendu aurretik; nire larruzko jakako ezkerreko sakelari eramaten nuen hamazazpi zentimetrotako labana ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula. Nire gainontzeko itxura ere itzela zen: kaskarra zerora moztuta, nire zaharraren bihotzaren kaltetan bi belarritako eskuineko belarrari eta beste bi sudurrean eta, nola ez, kendu ere egiten ez nituen koadrodun prakak. Unibertsitateko pasilloetan ibiltzen nintzen istilu bila, liskar altxatzaile bihurtu nintzen neu ere. Niretzat lanean jarri nituen zenbait kankailu; hain zen erraza haiei nire aginduak betearaztea... Nire oinaze guztia barneraturik, lege guztiak irensteko prest, bizitzari iseka eginaz bizitzea nuen jomuga.

Horrezaz gain, dena ondo zihoakidan, droga pasatzen zidanak istripu bat izan zuen arte. Auto batek jo eta hila suertatu zen. Ezin nintzen nire droga gabe gelditu eta hau uzteak eragina izan zuen nigan. Okerrena eragin hau ez zela onerako izan. Hasieran infernuko suaz gorituta nuen bihotza eta baita gorputza ere. Drogaren menpekotasuna gainditu nuenean, jendeari min egiteko grina hedatu egin zen nire burmuinean. Zuzendariak nire ibileren berri entzun zuenean, bere bulegora deitu eta Unibertsitatean ni bezalakorik ez zutela onartzen esan ondoren pasaportearen eman zidan, delinkuente soila

izango banintz bezala... bulego bat izateak ni baino boteretsuago egiten zuelakoan... Hurrengo astean zakarrontzian istripuz eroritako zigarro lipar batek su hartu eta bulego dotorea kiskali zitzaionean apika ez zuen berdin pentsatuko; ez eta bere Renault beltza beste kolore batzuen konbinaketaz apaindu nionean. Ondo baino hobeto jakinarazi nion nor nintzen ni.

Etorkizunaren lokarria galdurik, gizatasunik gabeko presentzia bihurtu nintzen. Etxe huts zaharkitu batera alde egin nuen, nire zaharren aurpegi luzeak berriz ikusi beharrik ez izateko. Nazkatuta nengoen haien betiereko kexuekin, haien beranduko arduratu itxura hutsalekin eta jadanik haien jarduna gehiago entzun beharrik ez nuenez, etxeko bazterretan aurkitutako diru eta baliozko objektu guztiak eramane nituen neurekin.

Denboraren poderioz, nire makurkeriak gero eta ausartagoak egiten ziren. Egin ahalak egin arren, ez ninduten inoiz harrapatzen eta gero eta indartsuago sentitzen nuen neure burua. Merke saltzen nuen nik bitzita. Eskolako umeei drogak saltzeari ere ekin nion eta gainera, berdin izaten zitzaidan haien adina, nik ongi ezagutzen bainuen krudela izateak ez duela adinik; niretzat, objektuak besterik ez ziren deabrutxo haiek. Erruki hitza nire hiztegitik ezabatua nuen aspalditik. Dendetan lapurretan egitera behartzen nituen aitaxoren umetxoak eta behin baino gehiagotan salatu nituen hartan ari zirela, gizon handi haien ohore puztua nola husten zen ikusteko. Haietako bat izan zen nire irakasle ohi baten semea: irrati bat osten harrapatu zuten eta etxean, bereak ez ziren beste hainbat gauza aurkitu zitzaizkien. Mendekua garratza izan ohi da; historiako irakaslearentzat bederen istorio tamalgarria, larrutik nozitu baitzizkien hark lotsa eta porrota.

Lapurtu, haurrak zauritu, drogak saldu... zer ez ote nuen egin? Baina niretzat ez zen aski. Legearen muga guztiak zeharkatu nahi nituen. Legearen muga guztiak hautsi nahi nituen, hauen esparrua zabaldu. Zikilu saltsa besterik ez ziren izan ordura artekoak. Sena joanda bezala nengoen, begiak erne, zerbaiten zai. Eta azkenean zeruaren erantzuna izango balitz bezala iritsi zitzaidan zerbait hori. Gau batez, ardoak itzala egiten zidan batean, trenbidean zehar aurrez betetakoa hustera abiatu nintzen, han inguruan paseatzen zebilen emakumeak ezagutu egingo ninduela aurrez susmatu gabe. Gelditu eta arreta handiz begira-begira egon ondoren, garrasika hasi zen inguruko jendeari laguntza eskatuz. Nik, badaezpada, hanka jokoak erakutsi nion, ez bainintzen ezkerreko sakelari gorderik nuen labana ateratzeko gai sentitzen. Baina emakume setatua ez zegoen ni joatearen alde eta nire atzetik segika zetorren, itzal ilun baten antzera. Trenbidetik irteten nintzen errepidea gurutzatuz. Mirakulua izan zen une horretan nigana zuzen-zuzen

zeturten autobusak ni ez zapaltzea; berak ez zuen zorte bera izan, ordea. Herioren, igitaidun zaharraren, itzal hotza, atzean, hain gertutik sentitzea bizigarria egin zitzaidan; ni hilezkorra nintzelako burutazioa sortu zitzaidan kaskezurrean.

Nire larruzko txaketa beltzeko poltsikoan pistola erabiltzen hasi nintzen, pistolak hamazazpi zentimetrotako labanak baino errespetu handiagoa ematen baitu. Nire ausardia amaigabea zen; sarri ateratzen nuen pistola. Besteen beldurraz elikatzeaz gozatzen nuen, drakularen antzera, haien odola edanez... Jendearen aurpegikeretan marrazten zen izuak boteretsu egiten ninduen, eta azkenean nire handiusteak galdu ninduen. Tabernari bat garbitu nuen bezero guztien aurrean, oihu eta garrasi artean. Azkarra nintzela uste izan nuen, nire pistola indartsua zela, baina ertzainen eskuetan erori nintzen, atxilotu egin ninduten; argia nintzela uste izan nuen, baina juezak hogeituro urteko kartzela zigorra ezarri zidan; indartsua nintzela uste izan nuen baina kartzelan pairatutako torturek bizitzaren gogortasunak ni ere barne hartzen ninduela erakutsi zidan.

Hamar urte pasa nituen ilunpetan, eguzkiaren argia berriz ikusi orduko. Pareta beltz haien orroa mutua, haien irudi zehatza, nire erraietan gelditu zen betiko itsatsirik; hasiera-hasieratik argi utzi zidaten han indartsuena ni ez nintzena. Bizitzaren mugak ebidentziaren aurrean ikusten dira, eta kartzelak erakutsi zidan iheskortasuna zela nire izatearen funtsa. Izerdi hotzez, lau paretei loturik, gatibuan igaro nuen hamar urte haietako egun bakoitza.

Oso mantso joan ziren urte haiek niretzat, baina irten nintzenerako, jendea kaltetzeko gogoak ospa egina zidan. Berrero kartzelara joatearen ideia ez zen batere tentagarria eta bizitza berri bat eratu nahi nuen, nire burua kausitu. Baina nire bizitzaren kaosetik jauzi batez irtetea nahi izan banuen ere, kanean, denek, aurpegikera arraroz begiratzen ninduten, urteetako Sufrimenduaren kiratsa nire gorputzari atxikirik balego bezala. Ezkontza kontuak ere erabili nituen buruan jiraka, baina, nor ezkonduko zen ni bezalako tipo nardagarri batekin? Mundu gizatiar soilak mundu ilunaren sakonera baztertzen ninduen. Bestalde, ideia honek hotzikara sortu eta zeharo tristatzen ninduenez, Ameriketara etortzea erabaki nuen.

Bakar-bakarrik bizi izan nituen ondorengo hogeituro urteak, mendiko etxola zaharkitu batean, lurreko arazoez at, naturaren putzu sakonean nire zatiezinezko sumina ito nahian, nire burua aurkitu nahian, nire mundu hutsala galdutako paraje hartan ezkutatu nahian. Hasieran pozik bizi nintzen inoren kexuak entzun gabe, baina asper-asper egin nintzen etxolako isiltasunaz eta nire barnean ernaldutako harraren kurruskak entzuteaz.

Bakardadearen bakardadeak eraginda noraezean nenbilen, tristura eta sufrimenduak goitikatu nahian. Jadanik jasangaitza egin zitzaidan isiltasunean murgildutako isiltasunak oihukatutako hitz isilak, isiltasunean galdutako zurrumurruak...

Gabean ez ninduen loak hartzen. Hain zen handia nahiaren oinazea... Honen aurrean hiriratzea pentsatu nuen eta hemen ikusten nauzue zaharren egoitza horietako batean (beno, ez nauzue ikusten baina imajina nazakezue, ezta?).

Ez da arrunta izan ohi hain gazterik egoitza batean egotea, baina inork ez zidan ezetzik eman eta nire zerupeko aldi kaxkarrari azken puntua bertan jarriko niola erabaki nuen. Orain badakit bizi eder bat alferrik galdu dudala. Hala ere, nik honela bukatzea beste batzuen errua izan da nirea baino gehiago, egin dudan guztia burutzera ingurukoek bultzatu bainaute. Nork daki, apika, guraso ezberdinak izan banitu munduko gizakirik zoriontsuena izango nintekeen. Agian... hau ez da ustea besterik (Usteak erdi ustel), baina nire biziaren irtenbide bakarreko pasabidea izan da eta ez dut beste ezein ihesbiderekin topo egin. Nork alda dezake patua?

Egoera honi aurre egiteko kemena izan beharko dut gelditzen zaizkidan urte apurretan. Inorengatik zapata gutxi urratu baditut ere, hemen lagunen bat egitea espero dut, neure azken finean lagunak izan ditudalako poztasun izpi batekin hil nadin.

Bertso Paperak

Iñigo Igartza Olabarri

Akzesita 13 –14 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

BERTSOAK

Dirua ez da ona
kendu nahi digute
txuleta eder on bat
diru honen truke
janari hobea dela
jakingo balute
diru multzo guzti hau
hartu alko nuke

Lagunekin nabil ni
beti ni gustora
Durangoko kaletik
bera eta gora
erosten galtzen dugu
nahiko denbora
azkenean etxera
bihar be kanpora

Durangoko kaletan
dago zalaparta
horra joaten dena
beti da ausarta
inoiz ez duzu izango
lagun baten falta
beti ateratzeko
kristoren zarata

Lagunekin nabil ni
nolako itxura
ez dugu inork hartzen
batere ardura
beti ibiltzen gara
nahi dugun modura
barrezka ibiltzen gara
lagunen kontura

Txomin Magdalena Arriaga

Irabazlea 15 –16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

GAU BATEAN IKUSITAKOA

Aulki batean eserita gauz
hori omen da o(ra)in moda
gauero hemen jubilatuz lez
arin pasatzen denbora
eskumaldean kotxeak barra
ezkerrean hainbat lora
relajatzeko gaba hau dugu
yoga baino askoz hoba

Aurreko bide huts horretatik
badoa txakur nomada
ta ezkerreko zabor hoietan
egin duela parada
basura jaten edo usaintzen
gogoz hartu du patxada
bizitza hontan bizidun denok
nomadak gara beharbada

Txakurra joan eta paretik
bikote zahartxo bat dela
eskuak elkar helduta eta
amodio berri bezela
odol beroa dutenez gero
bizitza nahia itzela
oraindik ere ez dute moztu
maitasunaren kordela

Bizitza iturri ondo-ondotik
atsoa joan da bakarti
gaztetasuna pasa du eta
gozatu izan du beti
heriotzaren atean dago
aurkitzen da txit beldurti
eta iturri horren ondoan
azken malkoa du jaurti

KLASERA BUELTA

Bihar klasea dadukagula
ahaztutzeko ahalegina
nere burmuina despejatzeko
handia dut zeregina
klasera joan behar horrexek
ematen didala mina
berriro ere bueltatu zaigu
urte osoko rutina

EUSKERA

Gure hizkuntzak jaso izan dauz
makina bat zapalkuntza
eta oraintxe gainean dago
euskeraren normalkuntza
batzuk diote zatarrak dela
ez du sortzen konfiantza
izanen da gure hizkuntza
betetzen du bizi funtsa
oraintxe denok hasi behar dugu
euskeraren eraikuntza
etorkizuna geurea denez
euskeraz jo ta su mintza

BASERRIA

Baserritarrek Euskal Herriko
kultura dute ezarri
mundu zabal hau mantendu behar
da
hori pentsatzen dut sarri
lan asko eginez sortu dituzte
larreetan hainbat herri
baserria beti izan dalako
gure arbasoen oinarri

Baserria da Euskal Herriko
hirien aurrekaria
gure kulturaren zati handi bat
duela da nabaria
batzuen planak zabaltzen dute
baserritarren zauria
baserri danak deuseztu nahia
hori bai krudelkeria

Erlantz Kortabitarte Agirrezabal

Akzesita 15 – 16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola

GURE NATURA

Azkenaldian ekologian
daukat jarria begia
natura oso gaizki dagola
guztiz dalako egia
denborarekin bihurtu baita
mundua zikinegia
ta beraz zaindu dezagun denok
betirako ekologia

Oraintxe ere hainbat proiektu
ari direla egiten
Abiadura Handiko Trenak
nahi dituzte hasi jartzen
ta horrexek bihotzean niri
izugarri mina ematen
mendi ta baso eder guztiak
baitituzte zeharkatzen

Bizi honetan egin ditugu
mordoxka bat asmakuntza
hoien ondorioz iritsi zaigu
teknologia iraultza
eroso bizi garen artean
natura mintzen gabiltza
guzti honekin bukatutzeko
guk denok daukagu hitza

Tontor gainean ni nengoela
alboetara begiratu
larre berdeak zuhaixka pila
ederki nuen gozatu
baina gu denon tristurarako
gizartea zaigu sartu
fabrikak eta errepideak
natura dute suntsitu



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

